# Soinu-grabazioak katalogatzeko eskuliburua

## 2026ko ekaina

Donostia kalea 1, 01010 GASTEIZ
Tel. 945 01 94 74
helbide elektronikoa: liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus

# AURKIBIDEA

*AURKIBIDEA* 2
*ESKULIBURUAREN HELBURUA* 6
*APLIKAZIO-IRIZPIDEAK* 6
Eremu bakoitzerako laguntza lortzea 7
Puntuazioa 8
Eremu errepikagarriak sartzea 8
Katalogazio-taulak 10
Autoritateei lotuta dauden eremuak 11
*SARRERA AUKERATZEA* 12
Egilea 12
Interpretea 14
*SOINU-GRABAZIOAK KATALOGATZEA* 18
GOIBURUA (EE) 18
T001 KONTROL ZENBAKIA (EE) 20
T007 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMU FINKOA (EE) 21
T008 LUZERA FINKOKO INFORMAZIO-KODEAK – OROKORRA + MUSIKA (EE) 27
T024 BESTE IDENTIFIKATZAILE NORMALIZATU BATZUK (E) 34
T028 ARGITARATZAILEAREN ZENBAKIA (E) 37
T035 SISTEMAREN KONTROL-ZENBAKIA (E) 39
T040 KATALOGAZIO-ITURRIA (EE) 40
T041 HIZKUNTZA-KODEA (EE) 41
T084 BESTE SAILKAPEN ZENBAKI BAT (E) 44
T100 SARRERA NAGUSIA – PERTSONA IZENA (EE) 45
T110 SARRERA NAGUSIA – ERAKUNDE KORPORATIBOAREN IZENA (EE) 47
T111 SARRERA NAGUSIA – BILTZARRAREN IZENA (EE) 49
T130 SARRERA NAGUSIA – IZENBURU HAUTATUA (EE) 50
T240 IZENBURU HAUTATUA (EE) 51
T243 IZENBURU HAUTATU OROKORRA (EE) 54
T245 IZENBURUAREN AIPUA (EE) 58
T246 IZENBURUAREN ALDAERAK (E) 63
T250 EDIZIOAREN AIPUA (E) 66
T260 ARGITALPENA, BANAKETA, ETA ABAR (E) 68
T300 DESKRIBAPEN FISIKOA (E) 72
T4XX SERIE AIPUETARAKO EREMUAK 75

T490 SERIEAREN AIPUA (E) 76
T5XX OHARREN EREMUAK – INFORMAZIO OROKORRA 78
T500 OHAR OROKORRA (E) 79
T505 EDUKI FORMATUDUNARI BURUZKO OHARRA (E) 80
T511 PARTE-HARTZAILEEI ETA ANTZEZLEEI BURUZKO OHARRA (E) 84
T518 GERTAKARI BATEN DATARI/ORDUARI ETA LEKUARI BURUZKO OHARRA (E) 86
T530 ESKURAGARRI DAUDEN BESTELAKO EUSKARRI FISIKOEI BURUZKO OHARRA (E) 87
T538 SISTEMAREN EZAUGARRIEI BURUZKO OHARRA (E) 89
T540 ERABILERA- ETA ERREPRODUKZIO-BALDINTZEI BURUZKO OHARRA (E) 90
T546 HIZKUNTZARI BURUZKO OHARRA (E) 91
T594 IZENBURUARI ETA ERANTZUKIZUNAREN AIPUARI BURUZKO OHARRA (E) 92
T597 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMUARI BURUZKO OHARRA (E) 93
T600 MATERIAREN SARRERA GEHIGARRIA - PERTSONA-IZENA (E) 96
T650 GAI-SARRERA GEHIGARRIA – GAI-TERMINOA (E) 97
T655 INDEXATZEKO TERMINOA – GENEROA / FORMA (E) 98
T7XX SARRERA GEHIGARRIAK – INFORMAZIO OROKORRA 99
T700 SARRERA GEHIGARRIA – PERTSONA IZENA (E) 101
T710 SARRERA GEHIGARRIA – ERAKUNDEAREN IZENA (E) 102
T711 SARRERA GEHIGARRIA - BILTZAR-IZENA (E) 103
T730 SARRERA GEHIGARRIA – IZENBURU HAUTATUA (E) 104
T740 SARRERA GEHIGARRIA – IZENBURU ERLAZIONATU EDO ANALITIKO KONTROLATUGABEA (E) 105
T76X-T78X – LOTURA-EREMUAK – INFORMAZIO OROKORRA 106
T773 ITURRI-DOKUMENTURAKO LOTURA (E) 107
T776 FORMATU FISIKO GEHIGARRI BATERAKO LOTURA (E) 109
T777 “HONEKIN BATERA ARGITARATUA” LOTURA (E) 111
T800 SERIEAREN SARRERA GEHIGARRIA - PERTSONA-IZENA (E) 115
T830 SERIEAREN SARRERA GEHIGARRIA - IZENBURU HAUTATUA (E) 116
T856 BALIABIDE ELEKTRONIKOEN KOKAPENA ETA SARBIDEA (E) 117
T9XX TOKIAN TOKIKO EREMUAK 118
NULL 119
*LOTURA BIDEZ BISTARATZEKOAK 120*
*1. ERANSKINA Soinu-grabazio ez-musikalak katalogatzea 121*
*2. ERANSKINA Soinu-grabazioetarako generoen zerrenda 124*
Aurretiko argibideak 124
Ahots-musika eta musika korala 124

Música vocal / Ahots musika 124
Música coral / Abesbatzako musika 125

Musika instrumentala 125

1. Orkestrako musika 125
Conciertos (Instrumento) / Kontzertuak (Instrumentua) 125
Oberturas / Oberturak 126
Preludios / Preludioak 126
Sinfonías / Sinfoniak 126
Suites / Suiteak 127

2. Ganbera-musika 127
Sonatas / Sonatak 127
Música de cámara (Instrumento) / Ganbera-musika (Instrumentua) 128
Dúos / Duoak 128
Tríos / Trioak 128
Cuartetos / Kuartetoak 129
Quintetos / Kintetoak 129
Sextetos, Septetos, Octetos, Nonetos / Sestetoak, Septetoak, Oktetoak, Nonetoak 130

3. Musika dramatikoa 130
Óperas / Operak 130
Zarzuelas / Zarzuelak 130
Óperas cómicas / Opera komikoak 130
Operetas / Operetak 131
Teatro musical / Antzerki musikala 131

Beste genero batzuk 133
Ballets / Balletak 133
Bailes de salón/Areto-dantzak 133
Bailes regionales/Eskualdeko dantzak 134
Música religiosa / Erlijio-musika 134
Villancicos / Gabon-kantak 134
Música infantil / Haur-musika 135
Canciones de cuna / Lo-kantak 135
Músicas tradicionales / Herri-musika 135
Country / Countrya 136
Flamenco / Flamenkoa 136
Música celta / Zelta musika 136
Fados / Fadoak 137
Canción ligera / Abesti arina 137
Cantautores / Kantautoreak 137
Jazz / Jazza 138
Gospel / Gospela 138
Blues / Bluesa 138
Soul / Soula 139
Pop / Popa 139
Indie / Indiea 140
Rock / Rocka 140
Hard rock / Hard rocka 140
Música metal / Metal musika 141
Punk / Punka 141
Musica electrónica / Musika elektronikoa 142

Reggae / Reggaea 142
Ska / Ska 142
Hip hop / Hip hopa 143
Nuevas músicas / Musika berriak 143
Bandas sonoras / Soinu-bandak 144
Marchas militares / Martxa militarrak 144
Himnos / Himnoak 145
Música para bandas / Bandentzako musika 145
Sonidos diversos / Hainbat soinu 145
Música experimental / Musika esperimentala 145

Musikalak ez diren soinu-grabazioak 147

*3. ERANSKINA Soinu-erregistroak sistematikoki sailkatzeko taula.* *148*

Sarrera 148

Musika-erregistroetarako sailkapen sistematikoa. 148
SA AHOTS MUSIKA 148
SB ABESBATZAKO MUSIKA 148
SC PIANOA ETA BERE FAMILIAKO INSTRUMENTUAK 149
SD ORGANOA ETA BERE FAMILIAKO INSTRUMENTUAK 149
SE AKORDEOIA ETA BERE FAMILIAKO INSTRUMENTUAK 149
SF PERKUSIO-INSTRUMENTUAK 149
SG PUNTEATZE HARI-INSTRUMENTUAK 149
SH HAIZE-INSTRUMENTUAK 149
SK GANBERA MUSIKA HAIZE-INSTRUMENTUETARAKO 150
SL HARI-INSTRUMENTUETARAKO MUSIKA 150
SM GANBERA MUSIKA HARI-INSTRUMENTUETARAKO 150
SN GANBERA MUSIKA (PIANORIK GABE) FAMILIA EZBERDINETAKO INSTRUMENTUETARAKO 150
SO GANBERA MUSIKA PIANOAREKIN / BC-AREKIN / ORGANOAREKIN 151
SP INSTRUMENTU MEKANIKOAK – ELEKTRONIKOAK -ESPERIMENTALAK 152
SQ TALDEETARAKO MUSIKA 152
SR GENEROAK 154
SV OBRA OSOAK, KONPOSITORE BATEN OBREN EDIZIO HAUTATUAK 158
SW BILDUMAK ETA ANTOLOGIAK 158
SZ MUSIKALAK EZ DIREN ERREGISTROAK 158

*4. ERANSKINA Musika-instrumentuak hizkuntzen arabera* *159*

Haize-instrumentuak 159

Metal-instrumentuak 159

Hari-instrumentuak 160

Musika-instrumentu pultsatuak 160

Tekla-instrumentuak 160

Perkusio-instrumentuak 161

*5. ERANSKINA Tonalitate-taula* *162*

*6. ERANSKINA Glosarioa* *163*

*BIBLIOGRAFIA* *167*

# ESKULIBURUAREN HELBURUA

Eskuliburu honetan, hainbat eratako soinu-grabazioak katalogatzeko irizpideak jasotzen dira.

1. Musika-grabazioak. Eduki musikal garbia duten edozein motatako dokumentu soinudun hutsak (binilozko diskoak, disko trinkoak, kaseteak, magnetofono-zintak, eta abar).
2. Erregistro soinudun ez-musikalak. Dokumentu soinudun ez-musikalak, hala nola haur-ipuinen kontaketak eta hitzaldien, olerkien, liburu-diskoen eta abarren grabazioak.

Material horiek AbsysNet atariko 3. moduluan katalogatuko dira; "Soinu-grabazioak" izenekoan, alegia.




# APLIKAZIO-IRIZPIDEAK

*ISBD bateratuan* ezartzen den bezala, soinu-grabazio askok eta askok ez daukate informazio-iturri bakarra deskribapen bibliografikoa egiteko; hori dela eta, baliabide bat deskribatzeko garaian, baliteke oso informazio-iturri desberdinen artean hautatu behar izatea: baliabidea bera (non datuak bisualak, entzunezkoak edo ikus-entzunezkoak izan daitezkeen), etiketa itsatsi bat, baliabidea bera gordetzen den ontzi edo tankerako zerbait, edota bestelako testu-material erantsiren bat (hala nola eskuliburu bat, liburuxka bat...). Informazio-iturri horien artean lehentasun-ordena bat erabakitzeko, honako irizpide hauek hartu behar dira aintzat:

1) Eskuarki, errekurtsoarekin **etengabe lotutako iturriak** izaten dira nahiago. Hala, aukeran nahiago izaten da disko baten etiketa, edota argazki-film estereografiko baten erdialdea, errekurtso horiekin izan litekeen beste testu-material erantsiren bat baino.

2) Edonola ere, obra(k) ahalik eta **ondoen identifikatuko d(it)uen iturria** lehenetsi behar da:

a) lehendabiziko irizpidearen arabera lehenetsitako iturriak katalogatzeko behar beste datu ez daukanean (bertan jasotako informazioa anbiguoa edo osatu gabea delako), eta

b) ezin daitekeenean iturri bat bera ere errekurtsoarekin etengabe lotutzat jo.

Hainbatetan, baliteke nahiago izatea datuen iturri gisa zinta edo disko trinko batekin argitaratutako txertaketa deskriptiboa (tartekoa), zintaren edota diskoaren etiketa bera baino; batez ere, errekurtsoak bi obra edo gehiago dituenean eta txertaketa deskriptiboa denean izenburu kolektiborako iturri bakarra. Era berean, zati anitzeko errekurtsoetarako, oro har, zatiak bilduko dituen bilgarri bat hobesten da, etiketen eta besteren aldean.

# Eremu bakoitzerako laguntza lortzea

Programak eremuetako edukiari buruzko eta horietan informazioa sartzeko laguntza lortzeko aukera ematen du.

- **Adierazleak**

Adierazleak kasu bakarrean idatzi beharko dira; aukera bat baino gehiago ahalbidetzen dutenean, alegia. Gainerako kasuetan, programak automatikoki jarriko ditu.

Sarrera nagusien (pertsonaren eta biltzarraren izena), izenburuen eta sarrera gehigarrien (pertsona-izena) kasuan, adierazleei lotutako informazioa bete beharko dugu.

Adierazleak idazteko, "Lehenengo adierazlea" edo "Bigarren adierazlea" aukeran klik egin behar dugu, eta, ondoren, adierazleak sartzeko hainbat modu izango ditugu:

- Egin klik  botoian, eta laguntza-pantaila bat agertuko da adierazleen zerrendarekin.
- Sakatu  (F5) tekla

- **Azpieremuak**

MARC formatuak hainbat azpieremu-kode ezartzen ditu, katalogazio-eremuen zatiak banatzen dituztenak. Ia beti letrak dira. Programan, kode horiek "**«**" eta "**»**" latindar komatxoen artean agertuko dira.

Azpieremu-kodeak idazteko, katalogazio-editorearen testu-zatian klik egingo dugu. Ondoren, azpieremu-kodeak sartzeko hainbat modu izango ditugu:

- Egin klik botoian, eta laguntza-pantaila bat agertuko da azpieremuen zerrendarekin.
- Sakatu F5 (F5) tekla
- Interesatzen zaigun azpieremuaren letra ezagutzen badugu:
    - Klik egin botoian, eta "**« »**" sinboloa agertuko da.
    - F3 tekla F3 sakatuz gero, "**« »**" ikurrak agertuko dira.

## Puntuazioa

**Ez** da beharrezkoa ISBD puntuazioa jartzea honako kasu hauetan:

• puntuazioa azpieremu-kode bati dagokionean (programak badaki zer puntuazio-zeinu jarri behar duen azpieremu-kode bakoitzaren aurretik);

• puntuazioak eremu osoa hartzen duenean (izenburu hautatuetako kako zuzenak, eta material-motarenak, eta bildumaren parentesiak);

• eremuak bereizteko puntuazioa denean (puntua zuriunea gidoia zuriunea).

**Puntuazioa jarri beharko da**, bai eta aurretik doazen zuriuneak ere:

• idazten den informazioaren arabera, puntuazio desberdina izan dezakeen azpieremu-kode bati dagokionean:

- "Izenburuaren aipua" T245 eremuko $b "Izenburuaren gainerakoa" azpieremuan, azpiizenburua edo pareko izenburua idatzi daiteke, eta, beraz, puntuazioa **:** (bi puntu) edo **=** (berdin) izan ahalko da. Era berean, ; (puntu eta koma) ere agertuko da, egile beraren hainbat obra izanez gero, edota . (puntu) egile baten baino gehiagoren hainbat obra izanez gero.

Azpieremuak ez dira puntuazio-zeinuz amaitzen, non eta azpieremuaren azken hitza ez den zeinu batez amaitzen.

Era berean, ez dira idatziko LG, ISBN eta ISSN siglak, hurrenez hurren, T017 – "Lege-gordailua", T020 – "ISBN" eta T022 – "ISSN" eremuetan.

## Eremu errepikagarriak sartzea

Eremu errepikagarri batean (esaterako, T017) informazioa tartekatu behar badugu, pauso hauek emango ditugu:

1. errepikapen berria txertatu nahi dugun posizioaren aurreko eremuan kokatuko gara;

2. "Zabaldu menua" sakatuko dugu  eta, ostean, "Gehitu eremua" 

aukera.

| Adibideak: |
|---|
| *Gure katalogazioan honako T017 eremuak ditugu:*<br>**T017 ## $a**BI 78-2001 (t.I)<br>**T017 ## $a**BI 27-2007 (t.IV)<br><br>*Bigarren liburukia heltzen bazaigu alta eman diegunen artean jarri beharko dugu, katalogazioak liburukien orden logikoa mantendu dezan:*<br>**T017 ## $a**BI 78-2001 (t.I)<br>**T017 ## $a**BI 89-2002 (t.II)<br>**T017 ## $a**BI 27-2007 (t.IV) |

# Katalogazio-taulak

Programak MARC eremuei lotutako informazioa sortzeko aukera ematen du, ostean erregistroen katalogazioan erabiltzeko: katalogazio-hizkuntza, idazlanaren hizkuntza, jasotzailea, material-mota, eta abar. Lokalizatzeko, etiketan kokatuko gara, laguntza hori definituta daukan azpieremuan, “Katalogatzeko laguntza” ikonoan .



# Autoritateei lotuta dauden eremuak

Zenbait katalogazio-eremu AUTO katalogoan sortutako autoritateei lotuta daude. Eskuliburu honetan, eremu horiek honako koadro hau dute:

**Eremu hori autoritate bati lotuta dago**

Sarrera berri bat edo gai berri bat gehitu aurretik, AUTOn bilatu behar da, dagoeneko sortuta badago ere.

Autoritatea ez bada existitzen, sortu egingo dugu.

Jarraian, gaien bigarren mailako sarrera-motak eta AUTOn duten elkarrekikotasuna jasoko dira:

| | **CATA** | CATA-autoritate elebiduna | **AUTO** |
|---|---|---|---|
| SN-Pertsona-izena | T100 | T900 | T100 |
| SN-Erakunde korporatiboaren izena | T110 | T901 | T110 |
| SN-Biltzarraren izena | T111 | T902 | T111 |
| SN-Izenburu hautatua | T130 | T903 | T130 |
| Izenburu hautatua | T240 | T940 | T130 |
| Izenburu hautatu orokorra | T243 | T941 | T130 |
| GSG-Pertsona-izena | T600 | T600 | T100 |
| GSG-Erakunde korporatiboaren izena | T610 | T610 | T110 |
| GSG-Biltzarraren izena | T611 | T611 | T111 |
| GSG-Izenburu hautatua | T630 | T630 | T130 |
| GSG-Gai-terminoa | T650 | T650 | T150 |
| GSG-Izen geografikoa | T651 | T651 | T151 |
| GSG-Indexatzeko terminoa - Generoa/forma | T655 | T655 | T155 |
| SG- Pertsona-izena | T700 | T910 | T100 |
| SG- Erakunde korporatiboaren izena | T710 | T911 | T110 |
| SG- Biltzarraren izena | T711 | T912 | T111 |
| SG- Izenburu hautatua | T730 | T913 | T130 |
| SSG-Pertsona-izena | T800 | T942 | T100 |
| SSG-Izenburu hautatua | T830 | T943 | T130 |

SG -Sarrera gehigarria
SN -Sarrera nagusia
ASG -Arloko Sarrera Gehigarria
SSG -Seriearen sarrera gehigarria

# SARRERA AUKERATZEA

Interpreteen eta egileen sarrera nagusia eta osagarriak aukeratzeko, honako gidalerro hauei jarraitu behar zaie:

## Egilea

Soinu-grabazioetan, oro har, sarrera nagusia musikaren egileari dagokio. Bi kasu topa ditzakegu:

1. A.- obrak **egile bakarrarenak izatea**; kasu horretan, honako taula hau aplikatuko da:

<table>
<tr><th>Egilea</th><th>Obra kopurua</th><th>Sarrera nagusia</th><th>Sarrera osagarria</th></tr>
<tr><td>Egile 1</td><td>Obra 1</td><td>Egilea</td><td></td></tr>
<tr><td colspan="4">T100 1# $aPrieto, Claudio ($d1934-)<br>T240 10 $aSonatas $mviolonchelo$nn. 7<br>T245 10 $aSonata 7 [$hGrabación sonora] $b: canto de amor : violonchelo / $cClaudio Prieto</td></tr>
<tr><td>Egile 1</td><td>2 obra, izenburu kolektiboarekin edo gabe</td><td>Egilea</td><td>2. obraren</td></tr>
<tr><td colspan="4">T100 1# $aSibelius, Jean ($d1865-1957)<br>T240 10 $aSinfonías $nn. 2, op. 43 $rdo mayor<br>T245 10 $aSymphonies 2 & 3 [$hGrabación sonora] /$cSibelius<br>T700 1# $aSibelius, Jean ($d1865-1957). $tSinfonías $nn. 3, op. 52 $rdo mayor</td></tr>
<tr><td>Egile 1</td><td>3 obratik aurrera, izenburu kolektiboarekin edo gabe</td><td>Egilea</td><td></td></tr>
<tr><td colspan="4">T100 1# $aFalla, Manuel de ($d1876-1946)<br>T243 10 $aObra selecta<br>T245 10 $aManuel de Falla, 1876-1946 [$hGrabación sonora]$b : grabaciones históricas<br>T505 00 $tSerenata andaluza ; $tCuatro piezas españolas ; $tFantasía bética ; $tEl amor brujo ; $tNoche en los jardines de España ; $tEl retablo de maese Pedro<br>T100 1# $aGillis, Don ($d1912-1978)<br>T243 10 $aPoemas sinfónicos. $kSelección<br>T245 10 $aSymphony No. 5 1/2 [$hGrabación sonora]$b ; The Alamo ; Saga of a Prairie School ; Portraid of a Frontier Town ; The man who invented music /$cDon Gillis<br>T740 42 $aThe Alamo Saga of a Prairie School<br>T740 02 $aPortraid of a Frontier Town<br>T740 42 $aThe man who invented music</td></tr>
</table>

1. B.- obrak **egile batenak baino gehiagorenak** izatea; kasu horretan, bilduma bat izango dugu. Bi bilduma mota daude:

- 1. B.a.- Izenburu kolektiboa duena
- 1. B.b.- Izenburu kolektiborik gabea

Sarrera nagusia eta gehigarria(k) desberdinak dira kasu bakoitzean:

1. B.a.- **Izenburu kolektiboa** duen bilduma
Izenburu kolektiboko hainbat obratako konpositorea izango da gaiburua. Hiru egile baino gehiago badira izenburu kolektiboarekin, hura izango du gaiburu. Interprete nabarmen bat izanez gero, berriz, hura izango du gaiburu.

<table>
<tr><th>Obra kopurua</th><th>Sarrera nagusia</th><th>Sarrera osagarriak</th></tr>
<tr><td>2 obra</td><td>1. obraren izenburu hautatua duen egilea</td><td>Gainerako egileak</td></tr>
<tr><td colspan="3">T100 1# $aMendelssohn-Bartholdy, Felix ($d1809-1847)<br>T240 10 $aConciertos $mviolín, orquesta $nop. 64 $rmi menor<br>T245 10 $aViolin concertos [$hGrabación sonora] /$cMendelssohn, Bruch<br>T505 00 $tConcierto para violín y orquesta, mi menor, op. 64 /$rMendelssohn. $tConcierto para violín y orquesta n. 1, sol menor, op. 26 /$rMax Bruch<br>T700 1# $aBruch, Max ($d1838-1920)</td></tr>
<tr><td>3 obra</td><td>Izenburu kolektiboa</td><td>Gainerako egileak</td></tr>
<tr><td colspan="3">T245 00 $aBerg, Janácek, Hartmann [$hGrabación sonora]$b : violin concertos<br>T505 00 $tConcierto para violín “Dem Andenken eines Engels” /$rAlban Berg. $tConcierto para violín “Putování dusicky” /$rLeos Janácek. $tConcierto fúnebre para violín solo y orquesta de cuerda /$rKarl Amadeus Hartmann<br>T700 1# $aBerg, Alban ($d1885-1935)<br>T700 1# $aJanácek, Leos ($d1854-1928)<br>T700 1# $aHartmann, Amadeus ($d1905-1963)</td></tr>
<tr><td>3 obra baino gehiago</td><td>Izenburu kolektiboa</td><td>Ez dago bigarren mailakorik, Bibliografia Nazionalerako interesgarriak diren egileak besterik</td></tr>
<tr><td colspan="3">T245 04 $aLas Edades del Hombre. $pLa música en la iglesia de Castilla y León [$hGrabación sonora]<br>T505 0# $tMiserere /$rA. Barea. $tReina y Madre /$rM. de Egüés. $tLamentación 1ª del miércoles /$rJ. Martínez de Arce. $tPelli meae /$rJ. de Carrión. $tNave que a Belén caminas /$rM. Gómez Camargo. $tMi amor no busca mis bienes /$r J. Hidalgo. $tRequiem /$rJ. García de Salazar. $tLauda Jerusalem/$rM. de Osete</td></tr>
</table>

1.B.b.- <u>**Izenburu orokorrik gabeko**</u> bilduma

| Obra kopurua | Sarrera nagusia | Sarrera osagarriak |
|---|---|---|
| 2 obra | 1. obraren izenburu hautatua duen egilea | Gainerako egileak<br>2. obraren izenburua |

<table>
<tr><td colspan="3">T100 1# $aBeethoven, Ludwig van ($d1770-1827)<br>T240 10 $aConciertos$mpiano, violín, violonchelo, orquesta$n, op. 56$rdo<br>T245 10 $aTriple concerto, op. 56 [$hGrabación sonora] /$cBeethoven. Double concerto / Brahms<br>T700 1# $aBrahms, Johannes ($d1833-1897)<br>T740 02 $tDouble concerto</td></tr>
<tr><td>3 obra</td><td>1. obraren izenburu hautatua duen egilea</td><td>Gainerako egileak<br>2. obraren eta hurrengoaren izenburua</td></tr>
<tr><td colspan="3">T100 1# $aArriaga, Juan Crisóstomo ($d1806-1826)<br>T240 14 $aLos esclavos felices $pObertura<br>T245 14 $aLos esclavos felices $pOverture [$hGrabación sonora]$b ; Symphony in D / $cArriaga. Symphony, n. 13, K. 112 / Mozart<br>T700 1# $aArriaga, Juan Crisóstomo ($d1806-1826)<br>T700 1# $aMozart, Wolfgang Amadeus ($d1756-1791)<br>T740 02 $tSymphony in D<br>T740 02 $tSymphony, n. 13, K. 112</td></tr>
<tr><td>3 obra baino gehiago</td><td>1. obraren izenburu hautatua duen egilea</td><td>Gainerako egileak</td></tr>
<tr><td colspan="3">T100 1# $aBeethoven, Ludwig van $d(1770-1827)<br>T240 10 $aSinfonías. $nn. 6, op. 68, $rfa mayor<br>T245 10 $a</b>Simphony no.6 in F major, op. 68 “Pastoral” [$hGrabación sonora] / $cBeethoven. Die Zauberflöte: overture / Mozart. La Scala di Seta: overture / Rossini. Invitation to the dance / Weber. Tragic overture / Brahms<br>T700 1# $aMozart, Wolfgang Amadeus ($d1756-1791)<br>T700 1# $aRossini, Gioacchino ($d1792-1868)<br>T700 1# $aWeber, Carl Maria von ($d1786-1826)<br>T700 1# $aBrahms, Johannes ($d1833-1897)<br>T740 42 $aDie Zauberflöte: overture<br>T740 32 $aLa Scala di Seta: overture<br>T740 02 $aInvitation to the dance<br>T740 02 $aTragic overture</td></tr>
</table>

## Interpretea

Soinu-grabazioa interprete(ar)en arabera egin baldin bada, taula hau aplikatu behar dugu sarrera nagusia eta osagarriak zehaztu ahal izateko (informazio-iturri nagusian agertzen baldin bada behintzat).

Interpretea ezin da izan pertsona edo erakunde bat (esate baterako, ganbera-musikako taldeak, abesbatzak eta tankerakoak).

| **Interpretea(k)** | **Sarrera nagusia** | **Sarrera osagarriak** |
|---|---|---|
| Interprete 1 + egile 1 | Egilea | Interpretea |

<table>
<tr><td colspan="3">**T100 1# $a**Paganini, Nicolo (**$d**1782-1840)<br>**T245 10 $a**24 capricci per violino solo, op. 1 [**$h**Grabación sonora] / **$c**Paganini<br>**T511 1# $a**Shlomo Mintz<br>**T700 1# $a**Mintz, Shlomo (**$d**1957-)</td></tr>
<tr><td>Interprete 1 + 2 egile</td><td>1. egilea</td><td>2. egilea<br>Interpretea<br>2. izenburua</td></tr>
<tr><td colspan="3">**T100 1# $a**Khachaturian, Aram Il'yich (**$d**1903-1978)<br>**T245 10 $a**Violin concerto [**$h**Grabación sonora] /**$c**Aram Khachaturian. Suite de concert / Taneyev<br>**T511 1# $a**David Oistrakh, piano **$d**(1908-1974)<br>**T700 1# $a**Taneev, Sergei Ivanovich **$d**(1856-1915)<br>**T700 1# $a**Oistrakh, David<br>**T740 02 $a**Suite de concert</td></tr>
<tr><td>Interprete 1 + 3 egile</td><td>Interpretea</td><td>Gainerako egileak</td></tr>
<tr><td colspan="3">*Interpretea izenburutzat hartzen den kasuetan:*<br>**T100 1# $a**Argerich, Martha (**$d**1941-)<br>**T245 10 $a**Martha Argerich [**$h**Grabación sonora]<br>**T505 00 $t**Piano concerto in A minor, op. 54 ; **$t**Fantasiestücke, op. 12 /**$r**Schumann. **$t**Gaspard de la nuit / **$r**Ravel. **$t**Danzas argentinas / **$r**Ginastera<br>**T700 1# $a**Schumann, Robert (**$d**1810-1856). **$t**Conciertos **$m**piano, orquesta **$n**op. 54 **$r**la menor<br>**T700 1# $a**Schumann, Robert (**$d**1810-1856)<br>**T700 1# $a**Ravel, Maurice (**$d**1875-1937)<br>**T700 1# $a**Ginastera, Alberto (**$d**1916-1983)<br><br>**T100 1# $a**Achúcarro, Joaquín (**$d**1932-)<br>**T245 10 $a**Obras de Béla Bartók, Sergue Rachmaninov y Alexander Scriabin [**$h**Grabación sonora] /**$c**J. Achúcarro<br>**T505 00 $t**Concierto n. 2 para piano y orquesta /**$r**Béla Bartók. **$t**Rapsodia sobre un tema de Paganini, para piano y orquesta, op. 43 ; Preludio en re menor, op. póst. /**$r**Serguei Rachmaninov. **$t**Estudio en do sostenido menor, op. 2 n. 1 ; Estudio en re sostenido menor, "Patético", op. 8 n. 12 /**$r**Alexander Scriabin<br>**T700 1# $a**Bartók, Béla (**$d**1881-1945)<br>**T700 1# $a**Rachmaninoff, Sergei (**$d**1873-1943)<br>**T700 1# $a**Scriabin, Aleksandr Nikolayevich (**$d**1872-1915)</td></tr>
<tr><td>Interprete 1 + 3 egile baino gehiago</td><td>Interpretea</td><td>Ez dago bigarren mailakorik, Bibliografia Nazionalerako interesgarriak diren egileak</td></tr>
</table>

**T100 1# $a**Mutter, Anne-Sophie (**$d**1963-)
**T245 10 $a**Romance [**$h**Grabación sonora] / **$c**Anne-Sophie Mutter
**T505 00 $t**Leyenda, op. 17 /**$r**Wieniawski. **$t**Adagio del Concierto nº 1 para violín /**$r**Bruch. **$t**Canzonetta del Concierto para violín op. 32 /**$r**Tchaikovsky. **$t**Andante del Concierto para violín op. 64 /**$r**Mendelssohn. **$t**Adagio de Concierto para violín /**$r**Brahms. **$t**Meditation /**$r**Massenet. **$t**Adagio del Concierto para violin K 216 /**$r**Mozart. Berceuse

**T110 2# $a**Kronos Quartet
**T245 10 $a**Kronos Quartet [**$h**Grabación sonora]
**T505 00 $t**Cuarteto de cuerda n. 8 / **$r**Peter Sculthorpe. **$t**Cuarteto de cuerda n.3 / **$r**Aulis Salinen. **$t**Company / **$r**Philip Glass. **$t**Cuarteto de cuerda / **$r**Conlon Nancarrow. **$t**Puple Haze / **$r**Jimi Hendrix

| | | |
|---|---|---|
| 2 interprete + egile 1 | Egilea | 1. interpretea<br>2. interpretea |

**T100 1# $a**Gershwin, George (**$d**1898-1937)
**T245 10 $a**Menuhin and Grappelli play Gershwin [**$h**Grabación sonora]
**T700 1# $a**Menuhin, Yehudi (**$d**1916-1999)
**T700 1# $a**Grappelli, Stéphane (**$d**1908-1997)

| | | |
|---|---|---|
| 2 interprete + 2 egile | 1. egilea | 2. egilea<br>1. eta 2. interpreteak<br>2. izenburua |

**T100 1# $a**Milhaud, Darius (**$d**1892-1974)
**T245 13 $a**Le boeuf sur le toit [**$h**Grabación sonora] / **$c**Milhaud**.** Fantasia appassionata, op. 35 / H. Vieuxtemps
**T246 11 $a**El buey sobre el tejado
**T511 1# $a**Gidon Kremer (violinista), Elena Bashkirova (pianista)
**T700 1# $a**Vieuxtemps, Henri François (**$d**1820-1881)
**T700 1# $a**Kremer, Gidon (**$d**1947-)
**T700 1# $a**Bashkirova, Elena (**$d**1958-)
**T740 02 $a**Fantasia appassionata, op. 35

| | | |
|---|---|---|
| 2 interprete + 3 egile | 1. egilea | 2. eta 3. egilea<br>1. eta 2. interpretea |
| 2 interprete + 3 egile baino gehiago | 1. interpretea | 2. interpretea<br>Bibliografia Nazionalerako egile interesgarriak. |
| 3 interprete + egile 1 | Egilea | 1., 2. eta 3. interpretea |
| 3 interprete + 2 egile | 1. egilea | 2. egilea<br>1., 2. eta 3. interpretea |
| 3 interprete + 3 egile | 1. egilea | 2. eta 3. egilea<br>1., 2. eta 3. interpretea |
| 3 interprete + 3 egile baino gehiago | 1. interpretea | 2. eta 3. interpretea<br>Bibliografia Nazionalerako egile interesgarriak. |

| | | |
|---|---|---|
| 3 interprete baino gehiago + egile 1 | Egilea | Bibliografia Nazionalerako interprete interesgarriak. |
| 3 interprete baino gehiago + egile bat baino gehiago = BILDUMA.<br>Izenburu kolektiboa duena | Izenburu kolektiboa | Bibliografia Nazionalerako egile eta interprete interesgarriak. |
| 3 interprete baino gehiago + egile bat baino gehiago = BILDUMA.<br>Izenburu kolektiborik gabe | Lehendabiziko tokian ageri den obra | Bibliografia Nazionalerako egile eta interprete interesgarriak. |

# SOINU-GRABAZIOAK KATALOGATZEA

## GOIBURUA (EE)

Bibliografia-erregistroaren lehenengo eremua dugu. Eremu finkoa da, haren luzerak erregistro bakoitzaren lehen 24 posizioak (00-23) hartzen ditu eta erregistroa prozesatzeko beharrezko den informazioa jasotzen du.

- Erregistro berrietarako, eremu “**lehenetsiak**” erabil daitezke.

“Kontrol-mota”, “Karaktereen kodifikazio eskema”, “kodifikazio-maila” eta “Zati anitzeko baliabide baten erregistro-maila” posizioak hutsik utzi behar dira.

- “**Kodifikazio-maila**" posizioan 5 lehenetsia duten eskuratzeetatik datozen erregistro guztiak zuriz (#) utzi behar dira.

Jarraian, posizio garrantzitsuenak zehazten dira:

### 05 Erregistroaren egoera

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da, eta erregistroaren eta fitxategiaren arteko erlazioa adierazten du, mantentze-lanetarako.

| | |
|---|---|
| n | ***Berria*** |

### 06 Erregistro mota

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da, eta erregistroaren ezaugarriak eta osagaiak definitzen ditu. Soinu-grabazioen kasuan hau izango da:

| | |
|---|---|
| i | ***Musikala ez den soinu-grabazioa.*** (Adibidez, hitzaldi bat.) |
| j | ***Soinu-grabazio musikala.*** (Adibidez, disko trinkoak edo kaseteak.) (Lehenetsitako aukera.) |

### 07 Maila bibliografikoa

Hizki bakarreko kode alfabetikoa da; erregistroaren maila bibliografikoa adierazten du.

| | |
|---|---|
| m | ***Monografia.*** Dokumentua unitate fisiko bat da, zati bakarrean ondo osatua, edo banatutako zati kopuru mugatu baten bidez osatzen dena (esaterako, hainbat pista dituen soinu-grabazio bat). |

### 08 Kontrol-mota

| | |
|---|---|
| *#* | ***Ez du mota zehazten***. Deskribatutako dokumentuari ez zaio motarik aplikatzen. |

### 09 Karaktereen kodifikazioaren eskema

Erregistro batean erabilitako karaktereen kodifikazioaren sistema zein den zehazten du.

| | |
|---|---|
| # | ***MARC-8.*** Marc21ean deskribatutako 8 biteko jokoa. |

### 17 Kodifikazio-maila

Karaktere bakarreko kode alfanumerikoa; bibliografia-erregistroaren kodifikazio-maila eta/edo informazio bibliografikoaren zehaztasuna zein den adierazten du.

| | |
|---|---|
| # | ***Maila osoa***. Deskribapen osoa, ale fisikoaren zuzeneko azterketaren ondoriozkoa. |

### 18 Katalogazio deskriptiboaren forma

Kode alfanumeriko bat da, eta katalogazio-arauei erreferentzia eginez adierazten ditu erregistroaren datu deskriptiboen ezaugarriak. Kasu horietan, “**puntuazio gabeko ISBN**” hautatuko dugu, hori baita aukera lehenetsia.

| | |
|---|---|
| c | ***Puntuazio gabeko ISBD.*** Erregistroaren zati deskriptiboak ISBDren puntuazioari buruzko arauak jasotzen ditu, baina ISBD puntuazioa ez da azpieremu baten amaieran agertzen. Gure kasuan, kode hauxe erabiliko dugu **beti**. |

### 19 Zati anitzeko baliabide baten erregistro-maila

| | |
|---|---|
| # | ***Ez dago zehaztuta edo ezin da aplikatu*** |



# T001 KONTROL ZENBAKIA (EE)

Sistemak automatikoki sortzen duen kontrol-zenbakia jasotzen du. TITN zenbakiarekin bat dator. Update formatuan ikus daiteke, baina ezin da editatu.

```
..T001:
   00769190
```

# T007 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMU FINKOA (EE)

Dokumentu baten ezaugarri fisikoei buruzko informazio berezia da, modu kodifikatuan emandakoa. Informazioa dokumentu oso bati zein horren zati bati buruzkoa izan daiteke; esaterako, atxikitako materialari buruzkoa.

Eremu horrek ez du ez adierazlerik, ez azpieremu-koderik. Elementuen posizioak berak definitzen ditu elementuok.

T007 eremuak zuhaitz-egitura arrunta du. “Soinu-grabazioetarako” T007 espezifikoa hautatuko dugu.




Programak automatikoki eta modu lehenetsian esleitzen dituen aukerak disko trinkoei soilik aplika dakizkieke. Bestelako euskarriak (binilo-diskoak, kaseteak, eta abar) katalogatzen ari bagara, beste aukera batzuk erabili beharko ditugu.




Kode guztiak minuskulaz idatziko dira.

## POSIZIOAK

### 00 Material-mota

| | |
|---|---|
| s | ***Soinu-grabazioa.*** Hizki bakarreko kode alfabetikoa; dokumentua soinu-grabazioa dela adierazten du. (Lehenetsita) |

### 01 Materialaren izendapen espezifikoa

Dokumentu bat zer soinu-grabazio mota espezifikotakoa den adierazten du.

| | |
|---|---|
| d | ***Diskoa***. Diskoak objektu zirkular finak dira, hainbat diametrotakoak (esate baterako, 7 hazbetekoak [17,5 cm], 10 hazbetekoak [25 cm], 12 hazbetekoak [30 cm]), eta horietan soinu-ondak grabatzen dira pitzadura edo ebakidura bidez, modulazioen edo pultsazioen forman. Audiorako disko trinkoek oro har 4 ¾ hazbete izaten dituzte (12 cm) diametroan. (Lehenetsita) |
| s | ***Kasetea.*** Kasetea bi karreteko ontzi bat da, eta soinu-zinta estu bat izaten du (oro har hazbetearen ⅛ izaten du, hau da, 3,1 mm). Karrete horietako bat elikadurarako (eta birbobinatzeko) izaten da, eta bestea, berriz, zinta jasotzeko. |

### 03 Abiadura

Grabaketaren erreprodukzio-abiadura.

| | |
|---|---|
| a | ***16 bira minutuko (diskoak)***. *(Biniloak)* |
| b | ***33 1/3 bira minutuko (diskoak).*** *(Biniloak)* |
| c | ***45 bira minutuko (diskoak).*** *(Biniloak)* |
| d | ***78 bira minutuko (diskoak).*** *(Biniloak)* |
| e | ***8 bira minutuko (diskoak).*** *(Biniloak)* |

| | |
|---|---|
| f | ***1,4 m/s (diskoa).*** Abiadura neurtzeko, erreprodukzio-mekanismoak diskoaren azaleran segundoko estaltzen duen distantziarekin kalkulatzen da, eta ez diskoaren erreboluzio kopuruarekin. Disko trinkoekin loturik dago (CDak). (Lehenetsita) |
| l | ***4,75 cm/s (zintak).*** Abiadura hori kasete estandarrek izaten dute, esate baterako. *(Kaseteak)* |
| \| | ***Ez da erabiltzen.*** |

**04 Soinuaren erreprodukzio-kanalak konfiguratzea**

Soinuaren erreprodukzio-kanalak konfiguratzea soinu-grabazio baterako.

| | |
|---|---|
| m | ***Monoaurala.*** Kanal bakarretik erreproduzitzeko konfiguratua. |
| q | ***Kuadrafonikoa.*** Lau kanal bereizitatik erreproduzitzeko konfiguratua. |
| s | ***Estereofonikoa.*** Bi kanal bereizitatik erreproduzitzeko konfiguratua. (Lehenetsita) |
| u | ***Ezezaguna*** |
| z | ***Bestelakoak*** |

**05 Ildaskaren zabalera / Ildaskaren neurriak**

Diskoetan grabatutako ildaskaren zabalera.

| | |
|---|---|
| m | ***Mikroildaska/Ildaska fina.*** Disko mikroildaskaduna edo ildaska fineko zilindroa. 16, 33 1/3 eta 45 bira minutuko dituzten diskoak, oro har, mikroildaskatan editatzen dira. *(Biniloak)* |
| n | ***Ez-aplikagarria.*** Dokumentuak ez du ildaskarik. Zinta eta disko trinkoetan erabiltzen da. (Lehenetsita) |

**06 Dimentsioak**

Bobina irekia duen disko baten diametroa edota kasete, kartutxo edo zilindro baten dimentsioak.

| | |
|---|---|
| a | ***3 hazbete (7,5 cm)*** |
| b | ***5 hazbete (12,5 cm)*** |
| c | ***7 hazbete (17,5 cm)*** |
| d | ***10 hazbete (25 cm)*** |
| e | ***12 hazbete (30 cm)*** |
| f | ***16 hazbete (40 cm)*** |
| g | ***4 ¾ hazbete (12 cm).*** (Lehenetsita) |
| j | ***3 ⅞ x 2 ½ hazbete (10,2 cm x 6,4 cm).*** Kasete baten garaiera eta zabalera: 3 ⅞ |

| | |
|---|---|
| | x 2 ½ hazbete (10,2 cm x 6,4 cm). Kasete estandar baten kasuan. |

**07 Zintaren zabalera**

| | |
|---|---|
| **l** | ***⅛ hazbete (3,1 mm).*** Kasete gehienek ⅛ hazbeteko zinta baliatzen dute (3,1 mm). |
| **n** | ***Ez-aplikagarria.*** (Lehenetsita) |

**08 Zintaren konfigurazioa**

| | |
|---|---|
| **c** | ***4 pista.*** Konfigurazio hori erabiltzen da 4 pista (kanal) zinta bakarrean grabatu ahal izateko. Audio estandarreko kaseteetan erabiltzen da. |
| **n** | ***Ez-aplikagarria.*** Dokumentua disko bat baldin bada, n kodea erabiltzen da. (Lehenetsita) |

**09 Disko, zilindro edo zinta mota**

| | |
|---|---|
| **m** | ***Serieko ekoizpena.*** Disko komertzial gehienak seriean ekoizten dira. Argitaletxearen izena izaten dute, baita kopiaren zenbakia eta informazio bibliografikoa ere inprimatutako etiketa batean edo bilgarrian. |

**10 Material mota**

Soinu-grabazioak fabrikatzeko erabilitako material mota.

| | |
|---|---|
| **m** | ***Metala eta plastikoa.*** Plastikoz egina, eta metalezko estaldurarekin. Dokumentu horren zati metalikoa, askotan, plastikozko oinarriari aplikatzen zaion geruza fin bat izaten da. Disko trinkoak barne. (Lehenetsita) |
| **p** | ***Plastikoa.*** Plastikoz egina erabat. Mylar, poliester eta biniloa barne. 1950eko hamarkadatik, seriean ekoitzitako 16, 33 1/3 eta 45 bira minutuko diskoak, bai eta kartutxo eta kaseteak ere, plastikozkoak dira. *(Biniloak)* |
| **z** | ***Bestelakoa.*** Definitutako beste kodeak ez dira aplikagarriak. *(Kaseteak)* |

**11 Ebakidura mota**

| | |
|---|---|
| **n** | ***Ez-aplikagarria***. Disko trinkoak "n" gisa kodetzen dira, ildaskak baino gehiago markak baitituzte (*pits*). |

**12 Soinu-erreprodukzioaren ezaugarri bereziak**

| | |
|---|---|
| e | ***Grabazio digitala.*** Erreprodukzio digitaleko ekipoa eskatzen du; esate baterako, Philips/Sony disko trinkoak edota Sony PCM zinta-grabazioak. Ez dugu “e” kodea erabiliko baldin eta grabaketan ekipo digitala erabili baldin bazen baina erreprodukzio-ekipo analogikoa erabili baldin badaiteke. 1982 aurreko grabaketa komertzialek ez dute “e” kodea eskatzen, ez eta disko edo zinta analogikoek ere. (Lehenetsita) |
| u | ***Ezezaguna.*** *(Biniloak) (Kaseteak)* |

**13 Soinua jasotzeko eta biltegiratzeko teknika**

Zer-nola jaso eta biltegiratu zen soinua jatorrian. Grabazioen berrargitalpenak jatorrian jasotzeko eta biltegiratzeko baliatutako teknikaren arabera kodetu behar dira, nahiz eta berrargitalpenak hobetuta egon beste teknikaren bat erabilita.

| | |
|---|---|
| d | ***Biltegiratze digitala.*** Soinu-grabazio horietan, soinua elektrikoki jasotzen da, eta teknika digitalak baliatuta biltegiratzen**.** (Lehenetsita) |
| e | ***Biltegiratze elektriko analogikoa.*** Soinu-grabazio horietan, soinua teknika elektrikoen bidez jaso zen, eta modulazio edo pultsazio bidez biltegiratu gainazal magnetiko batean. 1940ko hamarkadaren amaieratik eta 1980ko hasierara arte egindako gehienak grabaketa elektriko analogikoak dira. *(Biniloak) (Kaseteak)* |

Kaseteei eta binilozko diskoei dagokienez, T007 eremuak gorriz markatutako posizioetan baino ez du esku hartuko.

T007 kasete analogikoetarako


T007 Deskribapen fisikoaren eremu finkoa Soinu-grabazioa

| | | | |
|---|---|---|---|
| Materialaren kategoria | s | Materialaren berariazko izendapena | s |
| Abiadura | l | Soinu-erreprodukzioaren kanalaren egitura | s |
| Ildoaren zabalera/Ildoaren neurria | n | Neurriak | g |
| Zinta-zabalera | l | Zinta-egitura | c |
| Disko-, zilindro-, edo zinta-mota | m | Material-mota | z |
| Grabazio-mota | n | Soinu-erroprodukzioaren ezaugarri bereziak | u |
| Soinu atzitze- eta gordetze-teknikak | e | | |

T007 binilozko diskoetarako

T007 **Deskribapen fisikoaren eremu finkoa Soinu-grabazioa**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Materialaren kategoria | s | Materialaren berariazko izendapena | s |
| Abiadura | l | Soinu-erreprodukzioaren kanalaren egitura | s |
| Ildoaren zabalera/Ildoaren neurria | n | Neurriak | g |
| Zinta-zabalera | l | Zinta-egitura | c |
| Disko-, zilindro-, edo zinta-mota | m | Material-mota | z |
| Grabazio-mota | n | Soinu-erroprodukzioaren ezaugarri bereziak | u |
| Soinu atzitze- eta gordetze-teknikak | e | | |

# T008 LUZERA FINKOKO INFORMAZIO-KODEAK – OROKORRA + MUSIKA (EE)

**40 posiziok (00-39)** erregistro osoari buruzko informazio kodetua eta katalogatu beharreko dokumentuaren bibliografia-ezaugarri bereziak jasotzen dituzte. Eremu horrek ez du ez adierazlerik, ez azpieremu-koderik. Elementuen posizioak berak definitzen ditu elementuok. Kode alfabetikoak minuskulaz idatziko dira.

**OSO GARRANTZITSUA DA EREMU HORI ONDO BETETZEA, KODETUTAKO DATUAK OSO ERABILGARRI IZAN BAITAITEZKE ERREGISTROAK ERREKUPERATZEKO ETA ADMINISTRAZIO HELBURUETARAKO.**

## POSIZIOAK

00-05 - Fitxategiko sarrera-eguna

Sistemak sortzen dituen sei zenbakizko karaktere dira, eta erregistroa sortu zen data zehazten dute, *uuhhee* ereduarekin (adb.: 120510, 2012ko maiatzak 10).

Erregistro bat gehitzen den edota datu-base batetik erregistro bat lortzen den bakoitzean, sistemak alta ematen den data esleituko du automatikoki.

Aldaketen data eta ordua T005 eremuan (azken transakzioaren data eta ordua) erregistratuta geratuko da automatikoki. Eremua ezin da editatu, Update formatuan baino ez da bistaratzen.

**06 – Data-mota / argitalpenaren egoera**

*(Ik. Inprimaki modernoak)*

Letra bakarreko kode alfabetikoa da, eta emandako data mota adierazten du **T008**/07-10 (lehenengo data) eta **T008**/11-14 (bigarren data) posizioetan.

Kode erabilienak **s** (bakarra) eta **m** (hainbat) dira.

Erregistro gehienen kasuan, informazioa T260 eremutik hartzen da (argitalpena, banaketa, eta abar).

| | |
|---|---|
| **m** | ***Hainbat data.*** Zenbait liburuki dituen argitalpen bat zer urte-tartetan argitaratu den. |
| **q** | ***Zalantzazko data.*** Ez dakigu dokumentuaren data zehatza. |
| **r** | ***Jatorrizkoaren berrinprimatze-/berrargitalpen-data***. Erreprodukzio- edo berrargitalpen-data jasotzen du. |
| **s** | ***Data bakarra*.** Banaketa-, argitalpen-, igorpen- edo gauzatze-data bakarra jasotzen du, zehatza zein probablea. Kasu horretan, ez da "Bigarren data" beteko. (Lehenetsita) |

**07-10 – Lehenengo data**

*(Ik. Inprimaki modernoak)*

Lau zifraz adierazten da; bakarren bat ezezaguna bada, haren ordez **u** jar daiteke. Lau hutsuneak bete behar dira beti.

Lehenengo data argitalpen-data da, edo zenbait liburuki dituzten argitalpenen kasuan, argitalpenaren hasiera. Data hori T260 eremuaren $c azpieremuarekin lotuta dago; bi datak ez badatoz bat, programak gorriz markatuko ditu.

Argitalpen-urte zehatza ez badakigu, gertuen dagoen hamarkada edo mendea adieraziko dugu, eta karaktere ezezagun bakoitza **u** letrarekin ordeztuko dugu.

06 posizioan (data-mota) **r** jarri bada, hemen jatorrizko edizioaren data jarriko dugu.

| | |
|---|---|
| **1-9** | ***Dataren digituak*** |
| **u** | ***Data osoa edo zati bat ezezaguna da*** |

Hori da programak kontuan hartzen duen data, ARDAren araberako bilaketa egiteko.

**11-14 – Bigarren data**

*(Ik. Inprimaki modernoak)*

**15-17 – Idazlana argitaratu, ekoitzi edo egin den lekua**

**Bi edo hiru karaktereko** kode alfabetikoa da, eta idazlana non argitaratu, ekoitzi edo egin den adierazten du. Kodearen iturria *Marc Code List for Countries* da.

AbsysNet-ek "**sp**" du lehenetsia, Espainiari dagokiona. Aldatzeko, F5 funtzio-tekla edo laguntza-ikonoa sakatuz, herrialde bakoitzari dagozkion kodeak lor daitezke.

Bi karaktereko kodeak ezkerrera justifikatzen dira, eta erabili gabeko posizioa zuriune batez betetzen da (#).

Informazio hori da programak kontuan hartzen duen data HERRIALDEEN araberako bilaketa egiteko.

Soinu-grabazioetarako, kodeak ekoizpen-etxea zer tokitan dagoen adierazten du.

Baina, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean (EIPS), T008 eremuan argitaletxearen herrialdea ipiniko dugu (ikus T260), obra gure herrialdean argitaratzen duenarena.

**18-19 – Konposizioaren forma**

Bi hizkiko kode alfabetikoa, konposizioaren forma adierazten duena. Kodeek *Library of Congress* etxearen gaiburuak dituzte oinarri. Kode bat baino gehiago baldin bada egokia, **mu** kodea erabiliko da (hainbat musika-forma).

Musikazkoak ez diren soinu-grabazioek ez daukate konposizio-formarik, eta **nn** ipinita kodetzen dira (ez-aplikagarria).

| | |
|---|---|
| an | *Antifonoak* |
| bd | *Baladak* |
| bg | *Bluegrass* |
| bl | *Bluesa* |
| bt | *Balletak* |
| ca | *Txakonak* |
| cb | *Kantuak, beste erlijio batzuk* |
| cg | *Concerti grossi* |
| ch | *Koralak* |
| cl | *Koralerako preludioak* |
| cn | *Kanonak* |
| co | *Kontzertuak* |
| cp | *Polifoniak* |
| cr | *Gabonetako abestiak* |
| cs | *Ausazko musika* |
| ct | *Kantatak* |
| cy | *Country musika* |
| cz | *Canzonak* |
| df | *Dantzak* |
| dv | *Dibertimenduak, serenatak, kasazioak edo gauekoak* |
| fg | *Fugak* |
| xr | *Flamenkoa* |
| fm | *Herri-musika* |
| ft | *Fantasiak* |
| gm | *Gospel musika* |
| hy | *Himnoak* |
| jz | *Jazz (+ Soul)* |
| mc | *Errebistak eta komedia musikalak* |
| md | *Madrigalak* |
| mi | *Minuetak* |

| | |
|---|---|
| mo | *Moteteak* |
| mp | *Zinemarako musika* |
| mr | *Martxak* |
| ms | *Mezak* |
| mu | *Hainbat musika-forma* |
| mz | *Mazurkak* |
| nc | *Gauekoak* |
| nn | *Ez-aplikagarria* |
| op | *Operak* |
| or | *Oratorioak* |
| ov | *Oberturak* |
| pg | *Programa-musikak* |
| pm | *Pasioa (musika)* |
| po | *Polonesak* |
| pp | *Musika arina* |
| pr | *Preludioak* |
| ps | *Biribilketak* |
| pt | *Kantu polifonikoak* |
| pv | *Pabanak* |
| rc | *Rock musika* |
| rd | *Rondoak* |
| rg | *Ragtime* |
| ri | *Ricercare* |
| rp | *Rapsodiak* |
| rq | *Requiemak* |
| sd | *Dantzatzeko musika* |
| sg | *Kantak* |
| sn | *Sonatak* |
| sp | *Poema sinfonikoak* |
| st | *Azterlanak eta ariketak* |
| su | *Suiteak* |
| sy | *Sinfoniak* |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **tc** | ***Tokatak*** | **ts** | ***Trio-sonatak*** |
| **tl** | ***Antzerki lirikoa*** | **uu** | ***Ezezaguna*** |

**20 – Musika-formatua**

Ez da soinu-grabazioetan aplikatzen. Partituren deskripzioan bakarrik erabiltzen da. Lehenetsita agertzen den balioa utziko dugu (|).

**21 – Zati musikalak**

Ez da soinu-grabazioetan erabiltzen. **Hutsik** (#) utziko da.

Musika inprimatuaren kasuan bakarrik erabiltzen da.

**22 – Jasotzailea**

**Letra bakarreko kode alfabetikoa** da, eta dokumentua zuzenduta dagoen jasotzailearen maila intelektuala adierazten du.

Batez ere publiko hartzaile jakin batek erabiltzeko edo interpretatzeko musika identifikatzeko erabiltzen da. Dokumentua egokitzat jotzen bada publiko hartzaile batentzat baino gehiagorentzat, hartzaile nagusiari dagokion kodea erregistratuko da. Gazteentzako materialaren kasuan, **j** (gazteak) erabil daiteke, baina baita kode zehatzago hauek ere: **a** (eskolaurrea), **b** (lehen hezkuntza) edo **c** (nerabezaroaurrea). Gazteentzako materialtzat hartutako dokumentu batek, askotan, gaiburuan “gazteentzakoa” terminoa izan ohi du.

| | |
|---|---|
| **#** | ***Ezezaguna edo zehaztugabea***. Materialaren hartzailea ezezaguna da edo ez da zehaztu. (Lehenetsita) |
| **a** | ***Eskolaurrea.*** 0 eta 5 urte bitarteko haurrentzat, gutxi gorabehera. |
| **b** | ***Lehen hezkuntza.*** 6 eta 8 urte bitarteko haurrentzat, gutxi gorabehera. |
| **c** | ***Nerabezaroaurrea.*** 9 eta 13 urte bitarteko gazteentzat, gutxi gorabehera. |
| **d** | ***Nerabea.*** 14 eta 17 urte bitarteko gazteentzat, gutxi gorabehera. |
| **e** | ***Helduak*** |
| **f** | ***Espezializatua***. Dokumentua publiko jakin bati zuzenduta dago, eta interes txikia du gainerako erabiltzaileentzat. Hona hemen **f** letraz kodetutako dokumentuen adibideak: 1) material teknikoa; 2) jasotzaile-talde jakin bati zuzendutako dokumentuak; esaterako, erakunde bateko langileei. |
| **g** | ***Orokorra***. Interes orokorreko dokumentua da eta ez dago publiko mota zehatz bati zuzenduta. Kode hori gainerako kodeek modu egokiagoan deskribatzen ez duten fikzio-lan gehienetarako erabiltzen da. |
| **j** | ***Gazteak***. 0 eta 15 urtera arteko haur eta gazteei zuzendutako dokumentuak. (Gehiago zehaztu nahi ez denean.) |
| **\|** | ***Ez da erabiltzen*** |

**23 – Argitalpenaren forma**

Ez da soinu-grabazioetan erabiltzen. **Hutsik** (#) utziko da.

**24-29 – Atxikitako materiala**

Letra bateko sei kode alfabetikora arte (ordena alfabetikoz erregistratuta), programaren oharren edukia adierazteko, baita soinu-grabazioei, musika-eskuizkribuei edota nota-musikari atxikitako bestelako materialaren edukia ere. Sei kode baino gutxiago esleitzen badira, ezkerretan justifikatuko da, eta erabili gabeko posizioak zuriunez (#) osatuko dira.

Oro har, kode espezifiko bat bakarrik erabiltzen da, baldin eta atxikitako materialaren zati esanguratsu bat kodeak ordezkatutako material mota baldin bada. Kode egokiak sei baino gehiago baldin badira, sei garrantzitsuenak baino ez dira ipiniko.

| | |
|---|---|
| # | ***Ez dago atxikitako materialik*** |
| a | ***Diskografia.*** Atxikitako materialak diskografia bat edota soinu-grabazioen beste bibliografiaren bat dauka. |
| b | ***Bibliografia.*** Atxikitako materialak bibliografia bat dauka. |
| c | ***Aurkibide tematikoa*** |
| d | ***Libretoa edo testua.*** Atxikitako materialak libretoaren edo bestelako testuaren transkripzio idatzia du (esate baterako, soinu-grabazio baten ahozko edukiaren transkripzioa). |
| e | ***Konpositorearen edo egilearen biografia*** |
| f | ***Interpretearen edo musika-taldearen zein orkestra-taldearen historia*** |
| g | ***Musika-instrumentuei buruzko informazio teknikoa eta/edo historikoa*** |
| h | ***Musikari buruzko informazio teknikoa*** |
| i | ***Informazio historikoa*** |
| k | ***Informazio etnologikoa*** |
| r | ***Material didaktikoa*** |
| s | ***Musika.*** Partiturak edo bestelako formatuak ditu, dokumentu nagusia ez bezalakoak. |
| z | ***Bestelakoak*** |

**30-31 – Soinu-grabazioetako testu mintzatuak**

Karaktere bakarreko bi kode gehienez (ondoren erakutsiko den zerrendako ordenan erregistratuta); musikazkoa ez den soinu-grabazio batek duen literatur testuaren mota adierazten dute. Kode bakarra esleituz gero, ezkerretan justifikatzen dira, eta erabili gabeko posizioa zuriune batez (#) betetzen da.

| | |
|---|---|
| a | ***Autobiografia*** |

| | |
|---|---|
| b | ***Biografia*** |
| c | ***Biltzarretako aktak*** |
| d | ***Antzerkia*** |
| e | ***Saiakerak.*** |
| f | ***Fikzioa.*** Fikzioaren barruan, nobela, ipuina eta abar sartzen dira. |
| g | ***Erreportajea.*** Kategoria honetan, era berean, gertakizun garrantzitsuei buruzko erreportajeak eta informazio-mezuak sartzen dira***.*** |
| h | ***Historia.*** Historiaren barruan, narrazio historikoa eta abar sartzen dira. Beste kode batzuekin ere sailka daitezke (esaterako, poesia historikoa). |
| I | ***Jarraibideak.*** Egiteko baterako jarraibideak, arte bat ikastekoak eta abar (esaterako, fusible bat nola aldatu). |
| j | ***Hizkuntzen irakaskuntza.*** Baliteke beste kode batekin zehaztutako testuak izatea (adibidez, poesia biltzen duten eta hizkuntzak irakastekoak diren testuak). |
| k | ***Komedia.*** Ahozko komedia. |
| l | ***Konferentziak, hitzaldiak*** |
| m | ***Memoriak.*** Memoriak, oro har, autobiografikoak izaten dira. |
| n | ***Ez-aplikagarria.*** Dokumentua ez da soinu-grabazio bat (esaterako, musika inprimatua edo eskuz idatzia). |
| o | ***Herri-ipuinak*** |
| p | ***Poesia*** |
| r | ***Antzerki-saiakera.*** Musikazkoa ez den edozer obraren antzerki-saiakerak. |
| s | ***Soinuak.*** Adierazpen eta bokalizazio ez-musikalak, zentzua izan ala ez. |
| t | ***Elkarrizketak*** |
| z | ***Bestelakoa.*** Definitutako beste kodeak ez dira egokiak. |
| \| | ***Ez da erabiltzen*** |

### 33 – Transposizioa eta moldaketa

Katalogatzen den dokumentua edo haren zati bat beste obra baten transposizioa edo moldaketa den adierazten du.

| | |
|---|---|
| # | ***Ez da ez moldaketa, ez transposizioa; edo ez da zehazten.*** Ez da zehazten dokumentua beste obra baten moldaketa edo transposizioa den. |
| a | ***Transposizioa.*** Dokumentuari tonu desberdina eman diote jatorrizkotik. |
| b | ***Moldaketa.*** Dokumentua moldatu egin dute bitartekoari eta/edo ehundurari dagokionez. |

| | |
|---|---|
| **c** | ***Transportatua eta moldatua.*** Dokumentua jatorrizkoa ez den beste tonu batera aldatu dute, eta moldatu egin dute bitartekoari eta/edo ehundurari dagokionez. |
| **n** | ***Ez-aplikagarria.*** Dokumentua ez da nota-musika. |
| **u** | ***Ezezaguna.*** Ez dakigu dokumentua transportatua ala moldatua den. |
| **\|** | ***Ez da erabiltzen*** |

**35-37 - Hizkuntza**

Hiru karaktereko kode alfabetikoa da eta dokumentuaren hizkuntza adierazten du.

Soinu-erregistroarekin lotutako testu abestuaren edo mintzatuaren hizkuntza nagusia. Ez dauka zertan bat etorri karatularen aurkezpen-testuarekin.

Lehenetsita, sistemak **zxx** "Hizkuntza-edukirik gabe" aukera emango du musika instrumentalerako edo elektronikorako, baita ahozkoak ez diren soinu-grabazioetarako ere. Hizkuntza jakin batean dauden soinu-grabazioen kasuan, dagokion kodea aukeratu beharko dugu (esaterako, espainieraz, "**spa**").

**F5 funtzio-teklarekin** edo laguntza-ikonoarekin, hizkuntza bakoitzaren kodea kontsultatu eta aukeratu ahal izango dugu.

**38 – Aldatutako erregistroa**

**Karaktere bakarreko** kodea da eta bibliografia-erregistro batean jasotako zeinahi datuk katalogatuta dagoen dokumentuko informazioan aldaketarik eragiten duen adierazten du. Hutsik utziko da **(#)**.

**39 – Katalogazio-iturria**

**Letra bakarreko** kodea da, eta erregistroaren jatorrizko katalogazioaren iturria adierazten du. Guri dagokigunez, katalogazio partekatuko programa dugunez, BETI **c kodea** ipiniko dugu.

Katalogazio-iturria **T040** eremuaren **$a** azpieremuan zehaztuko da, Liburutegi Zerbitzuak ezarritako kodeak erabiliz horretarako (ikus **T040** eremua).

| | |
|---|---|
| **c** | ***Katalogazio kooperatiboko programa***. Erregistroaren sortzailea katalogazio kooperatiboko programa bateko kidea da. (Lehenetsita) |



T008 Informazio-kodeak - Musika

| | | | |
|---|---|---|---|
| Sarrera-eguna | 981203 | Data-mota/argitalpenaren egoera | s |
| Lehenengo data | 1998 | Bigarren data | |
| Argitalpenaren herrialdea | sp | Musika-formaren kodea | mn |
| Berariazko musika-formatua | | Zehaztu gabekoak | |
| Jasotzailearen maila | | Dokumentuaren forma | |
| Batera duen materiala | | Soinu-grabazioa ez musikala | |
| Transposizioa eta moldaketa | | Hizkuntza | baq |
| Erregistro aldatua | | Katalogazioaren iturriak | c |

# T024 BESTE IDENTIFIKATZAILE NORMALIZATU BATZUK (E)

Beste eremu batean idatzi ezin daitekeen zenbaki normalizatua edota dokumentuan argitaratutako kodea. Zenbaki normalizatu edo kode mota lehen adierazlearen bitartez identifika daiteke.

***Adierazleak***

| | |
|---|---|
| **Lehena** | **0** ***Grabaketetarako nazioarteko kode normalizatua (ISRC)***<br>**1** ***Produktuaren kode unibertsala (UPC)***<br>**3** ***Artikuluaren nazioarteko zenbakia (EAN)***<br>**4** ***Argitalpen seriatuaren zenbakiaren eta ekarpenaren identifikatzailea (SICI)*** |
| **Bigarrena** | # *Ez dago informaziorik* |

***Azpieremuko kodeak***

| | |
|---|---|
| **$a** | ***Zenbaki normalizatua edo kodea (EE)*** |
| **$z** | ***Zenbaki normalizatua edo kode ezeztatua/baliogabea (EE)*** |

Honako elementu hauek izan litzake:

- ***ISRC (International Standard Report Code)***, hamabi karaktere alfanumeriko dituen kodea, lau elementutan banatuta.

Zenbakia zuzenean ipintzen da, ISRC kodea sartu beharrik gabe, programak zuzenean sortzen baitu, lehendabiziko adierazlea 0 bat baldin bada.

ISRC kodeak ordena hau du:

1. **Herrialdea** [(bi hizki, ISO 3166 aintzat hartuta) *adib. FR (Frantzia)]*
2. **Lehendabiziko jabea** [(hiru karaktere alfanumeriko) *adib. Z03 (Mercury France)]*
3. **Grabaketa-urtea** [(urtearen azken bi digituak) *adib. 98 (1998an argitaratua)]*
4. **Grabaketaren kodea** [(lehendabiziko jabeak emandako bost digitu)]

Kodea marratxo eta guzti emango da, arestian aipatu ditugun blokeak aintzat hartuta. Formatua: XX-XXX-XX-XXXXX.

- ***UPC (Universal Product Code)***
  AEBn eta Kanadan erabiltzen da.

UPC barra-kode baten sinbolo gisa agertzen da, azpian 12 digitu inprimatuta dauzkala. Oro har, zenbakiarekin elementuak marratxoz edota zuriunez bereizita agertzen dira dokumentuan. Kodeak oinarrizko hiru zati izaten ditu:

1) lehendabiziko digitua Number System Character (NSC) izaten da, eta sinboloaren ezkerretan agertzen da, barretatik kanpo;

2) sinboloan ondoren kodetutako hamar digituak barren azpian erakusten dira;

3) hamabigarrena kontrol-digitua izatean da, eta, eskuarki, sinboloaren azpian agertzen da, eskuinetan.

Digitu guztiak gordetzen dira erregistroan, dokumentuan ageri diren moduan.

Audio eta bideo produktuetan, 2) zatiko digituak, barra paraleloen azpian inprimatuak, hiru elementu izaten ditu: fabrikatzailearen kodea, ***Uniform Code Council***ek emana eta bost digitukoa; hautaketa-zenbaki bat, bost digitukoa; eta konfigurazio-zenbaki bat, digitu bakarrekoa. Lehendabiziko elementuaren bosgarren digituak fabrikatzailearen izendapenaren azken digitua eta hautaketa-zenbakiaren lehendabiziko digitua irudikatzen ditu. Hamargarren digituak (konfigurazio-zenbakia) produktuaren formatua adierazten du.

UPC barne-marratxorik eta -zuriunerik gabe jasotzen da erregistroan.

- ***EAN (European Article Number)***

EAN kodeak hamahiru digitu izaten ditu. Argitalpen seriatuetan, hiru digituko aurrizki bat erabiltzen da (977), eta, ondoren, Argitalpen seriatuetarako Nazioarteko Zenbaki Normalizatua (ISSN) izaten du, edota herrialdean esleitutako izenburu-zenbaki bat (BIPAD). Ostean, bi edo bost digituko sinbologia osagarri bat edukitzen du, argitalpen seriatu baten zenbakia izendatzeko.

- ***SICI***

SICI kodeak luzera aldagarria du, eta identifikazio garbia ematen die argitalpen seriatuen aleei (SII) eta argitalpen seriatuen ekarpenei (SCI). SII kodea honako elementu hauez osatuta dago: ISSN, argitalpen-data, argitalpen-zenbakia, SICI kodearen bertsio normalizatuaren zenbakia eta kontrol-karakterea. SCI kodeak ekarpenaren kodea eransten du, baita izenburuarena ere (orrialde batek izenburu bat baino gehiago baldin badu) argitalpenaren zenbakiaren eta SICI bertsioaren zenbakiaren artean. Dokumentu baten zenbakiaren barra-kodearen bertsioa desberdina izango da begiz irakur daitekeenaren aldean.

*Lotura bidez bistaratzekoa*

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, hau da, ez da beharrezkoa hitzez-hitzezkoa idaztea, programak automatikoki sortuko baitu dagokion katalogazio-hizkuntzan, **T040** eremuko **$b** behar bezala betetzen bada.

| ***1 adie.*** | ***Castellano*** | ***Euskera*** |
|---|---|---|
| 0 | ISRC | ISRC |
| 1 | UPC | UPC |
| 2 | ISMN | ISMN |
| 3 | EAN | EAN |
| 4 | SICI | SICI |

**$a – Zenbaki normalizatua edo kodea**

| Adibidea: |
|---|
| **T024 0#  $a**FR - Z03 - 98 - 00212 |

# T028 ARGITARATZAILEAREN ZENBAKIA (E)

Soinu-grabazioetarako erabiltzen den editore-zenbakia. Zenbakia dokumentuan bertan ageri den bezala transkribatuko da, tarteak, marrak, parentesiak eta abar bere horretan jasoz.

Oso garrantzitsua da eremu hori betetzea; izan ere, batzuetan identifikatzaile bakarra izaten da, ezinbestekoa edizioaren historiarako eta dataziorako. Oro har, editorearen katalogo-zenbakia izaten da; batzuetan, matrizea eta are xafla ere garai bateko grabazioetan.

| ***Adierazleak*** | |
|---|---|
| **Lehena** | **0** ***Argitalpen-zenbakia*** (Lehenetsita)<br>**1** ***Matrize-zenbakia***<br>**2** ***Xafla-zenbakia***<br>**3** ***Beste musika-zenbaki bat***<br>**4** ***Bideo-grabazioaren zenbakia***<br>**5** ***Beste editore-zenbaki bat*** |
| **Bigarrena** | **0** ***Ez dago ez oharrik, ez sarrera gehigarririk***<br>**1** ***Oharra, sarrera gehigarri bat dago*** (Lehenetsita)<br>**2** ***Oharra, ez dago sarrera gehigarririk***<br>**3** ***Ez dago oharrik, sarrera gehigarri bat dago*** |
| ***Azpieremuko kodeak*** | |
| **$a** | ***Argitaratzailearen zenbakia (EE)*** |
| **$b** | ***Iturria (EE)*** |

Lehen adierazlea - Editore-zenbakiaren mota:

**0 Argitalpen-zenbakia.** Argitalpenaren izendapena edo argitalpen seriatuaren identifikazioa ezagutzeko erabiltzen da zenbaki hori. Argitaratzaile batek esleitzen dio grabazio soinudun jakin bati, grabazio soinudun baten alde bati edo grabazio soinudun bateko interpretazioari, edo osotasun bat balira bezala editatutako grabazio soinudunen multzo bati. Argitalpen-zenbakia soinu-grabazioaren zigilu diskografikoan ageri da, edo, hainbat grabaziok osatutako multzoen kasuan, bilgarrian.

**1 Matrize-zenbakia.** Soinu-grabazio bat egiteko, abiapuntutzat hartutako masterra. Dokumentuak argitalpen-zenbakirik edo zigilu diskografikorik ez duenean identifikazio-zenbaki gisa erabiltzen da.

**2 Xafla-zenbakia.** Argitaratzaileak musika-argitalpen zehatz bati esleitutako zenbakia da.

**3 Beste musika-zenbaki bat.** Ez da ez argitalpen-zenbakia, ez matrize-zenbakia, ez xafla-zenbakia.

Azpieremuaren kodeak:

**$a – Argitaratzailearen zenbakia**

**$b – Iturria**

Argitaratzaile-zenbakiaren iturria. Argitalpen motaren eta esleitutako argitaratzaile-zenbakiaren arabera, iturria aldatu egiten da. Soinu-grabazioetarako, zigilu diskografikoaren izena $b azpieremuan kodetzen da, iturrian azaltzen den moduan (siglak, marratxoak, zuriuneak eta gainerakoak jasota). Zigilu diskografikoaren izena eta editorearena bat baldin badatoz, izena T260 eremuan bakarrik jasoko da.

| Adibidea: |
|---|
| **T028 01 $a**7243 4 98364 2 6 **$b**EMI<br>**T028 01 $a**PN 470 **$b**PNEUMA |

Dokumentuan kode ugari jasotzeak zenbakiaren identifikazioa zaildu egiten du. Zalantzak izanez gero, zorroaren bizkarrean ageri den kodea hartu behar da.

# T035 SISTEMAREN KONTROL-ZENBAKIA (E)

OCLC zenbakia jasotzen du, ezinbestekoa WorldCat katalogoa erabiltzeko.
Baliteke jatorrizko sistemaren kontrol-zenbakia jasotzea, katalogoen fusioaren ostean migratutako erregistroetarako.
Update formatuan ikus daiteke, baina ezin da editatu.

| Adibidea: |
| --- |
| **T035 ##  $a**(OCoLC)864103543 |

# T040 KATALOGAZIO-ITURRIA (EE)

Jatorrizko bibliografia-erregistroa sortu, MARC eduki-adierazleak esleitu eta erregistroa transkribatu edo aldatu zuen erakundearen izena edo MARC kodea.

Gure kasuan, Liburutegi Zerbitzuak zentro bakoitzarentzat ezarritako kodeak erabiliko dira.

***Adierazleak***

**Lehena** **#**
***Zehaztugabea***

**Bigarrena** **#**
***Zehaztugabea***

***Azpieremuko kodeak***

**$a** ***Jatorrizko katalogazio-zentroa (EE)***

**$b** ***Katalogazio-hizkuntza (EE)***

**$c** ***Zentro transkribatzailea (EE)***

**$d** ***Zentro aldatzailea (E)***

$a, $b eta $c azpieremuak bete behar dira; bestela, programak gorriz markatuko ditu.

**Azpieremu** bakoitzak aurrez zehaztutako katalogazio-taula bat du; "Katalogatzeko laguntza" botoia sakatuz gero, erabil ditzakegun aukerak bakarrik ikusiko ditugu

(Ik. Inprimaki modernoak)

# T041 HIZKUNTZA-KODEA (EE)

Dokumentu batekin lotutako MARC hizkuntza-kodeak, erregistroaren **008/35-37** eremuko hizkuntza-kodea informazio osoa emateko nahikoa ez denerako. Hizkuntza anitzeko dokumentuen erregistroetan jasotzen da, edo itzulpen bat biltzen dutenetan.

Kodeen iturriak MARC Code List for Languages edota beste kode-zerrenda batzuk dira, hala nola *ISO 639-1 – Codes for the representation of names of languages.*

***Adierazleak***

| | |
|---|---|
| **Lehena** | ***# Ez dago informaziorik***<br>***0 Dokumentua ez da itzulpena eta ez du itzulpenik jasotzen***<br>***1 Dokumentua itzulpena da edo itzulpen bat jasotzen du*** |
| **Bigarrena** | ***# Hizkuntzaren MARC kodea*** |

***Azpieremuko kodeak***

| | |
|---|---|
| **$a** | ***Testuaren hizkuntza-kodea / soinu-banda (E)*** |
| **$b** | ***Laburpenaren edo aurkibidearen hizkuntza-kodea (E)*** |
| **$d** | ***Testu abestuaren edo mintzatuaren hizkuntza-kodea (E)*** |
| **$e** | ***Libretoen hizkuntza-kodea (E)***. |
| **$g** | ***Material atxikiaren hizkuntza-kodea libretoak ez badira (E)***. |
| **$h** | ***Jatorrizko hizkuntza-kodea (E)*** |
| **$m** | ***Jatorrizko material atxikiaren hizkuntza-kodea libretoak ez badira (E).*** |
| **$n** | ***Jatorrizko libretoaren hizkuntza-kodea (E)*** |

Hizkuntza-kode guztiak karaktere alfabetikoz jarriko dira, minuskulaz.

**$a - Testuaren hizkuntza-kodea**

Obra musikaletan, $a azpieremuan testu-edukiaren hizkuntza kodetuko da, baldin eta obra **musika inprimatua edo eskuz idatzia** bada. Obra soinu-grabazioa baldin bada, hizkuntzaren kodea **$d** azpieremuan ipiniko da.

**$b - Laburpenaren edo aurkibidearen hizkuntza-kodea**

Hizkuntzen kodeak hurrenkera alfabetikoan ipintzen dira.

Musikan, $b azpieremuak soinu-grabaziorekin batera dagoen materialaren hizkuntza-kodea jasotzen du, baldin eta atxikitako materialak musikazkoa ez den soinu-grabazio baten edukiaren aurkibideak baldin baditu edota abestien edo bestelako obra bokalen aurkibideak baditu (ez testuaren itzulpenak) musikazko soinu-grabazio batean jasoak.

**$d - Testu abestuaren edo mintzatuaren hizkuntza-kodea**

Dokumentu baten zati entzungarriko hizkuntzaren kodea, normalean soinu-grabazio baten **eduki abestua edo mintzatua**. Lehendabiziko $d hizkuntza-kodea, $a azpieremurik ez badago, 008/35-37 eremuan ere kodetu daiteke.

Dokumentu baten testu-zatiaren hizkuntza-kodea $a azpieremuan kodetzen da.

**$e - Libretoen hizkuntza-kodea**

Operen kasuan erabiliko da.

Musikan, obraren zati bokala/testuala jasotzen duen testu inprimatuaren hizkuntza-kodea. Atxikitako materiala bada (liburuxka) edota dokumentuarekin batera inprimatuta baldin badago erabiltzen da.

Libretoa abesten edo deklamatzen den testua da.

**$h– Jatorrizko hizkuntza-kodea**

Jatorrizko hizkuntzaren kodea edo kodeak. Jatorrizko hizkuntza ipin daiteke, nahiz eta lehen adierazleak itzulpena adierazi (1. balioa). Kodeak dokumentuaren eduki nagusiaren jatorrizko hizkuntzari egiten dio erreferentzia, eta ez dago erabili beharrik dokumentua ez bada itzulpena.

$m azpieremua erabiltzen da bigarren mailako materialen jatorrizko hizkuntza adierazteko (adibidez, letrei, kredituei eta gainerakoei buruzko informazioa).

**$g - Material atxikiaren hizkuntza-kodea libretoak ez badira**

Liburuxketarako.

Esanguratsutzat jotzen den atxikitako materialaren hizkuntza-kodea, ez dena ez laburpena ($b azpieremua), ez libretoa ($e azpieremua).

**$m - Material atxikiaren hizkuntza-kodea libretoak ez badira**

Libretoak ez diren bigarren mailako materialean jatorrizko hizkuntzaren kodea edo kodeak. Azpieremu horrek lotutako $h edo $g azpieremuei jarraitzen die.

**$n - Jatorrizko libretoaren hizkuntza-kodea**

Inprimatutako testuaren jatorrizko hizkuntza edo hizkuntzen kodea, obraren eduki bokal/testualarekin. Azpieremu horrek lotutako $e azpieremuari jarraitzen dio.

| Adibideak: |
|---|
| **T041 1#** **$d**fre **$h**ita **$e**eng **$e**fre **$e**ger **$e**ita<br>*(Opera originala italieraz, frantsesez abestuta, libretoa ingelesez, frantsesez, alemanez eta italieraz)*<br><br>**T041 1#** **$d**eng **$h**rus **$e**eng **$n**rus<br>*(Ingelesez abestutako soinu-grabazioa, errusierazko originaletik itzulita; libretoa ingelsesez errusierazko originaletik itzulita)* |

| |
|---|
| **Azpieremu** bakoitzak aurrez zehaztutako katalogazio-taula bat du; “Katalogatzeko laguntza” botoia sakatuz gero, erabil ditzakegun aukerak bakarrik ikusiko ditugu |

# T084 BESTE SAILKAPEN ZENBAKI BAT (E)

Gainerako eremuek barnean hartzen ez duten eskema batetik hartutako sailkapen-zenbakia.

Euskal Herriko musika-liburutegiek zehaztutako *Musikako Liburuen, Partituren eta Soinu-grabazioen Sailkapen Sistematikoa / Clasificación Sistemática de Libros de Música, Partituras y Grabaciones Sonoras* argitalpenean oinarritutako sailkapen laburtua erabiliko dugu[1].

| ***Adierazleak*** | |
|---|---|
| **Lehena** | **#**<br>***Zehaztugabea*** |
| **Bigarrena** | **#**<br>***Zehaztugabea*** |
| ***Azpieremuko kodeak*** | |
| **$a** | ***Sailkapen-zenbakia (E)*** |

**$a – Sailkapen-zenbakia**

Sailkapen-zenbakiari dagokion zenbakiaren zatia.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SR6<br>**T100 1# $a**aIrazoki, Joseba (**$d**1974-)<br>**T245 10 $a**Joseba Irazoki eta lagunak [**$h**Soinu-grabazioa]<br>**T655 #4 $a**Rocka<br>**T655 #1 $a**Rock |

[1] Ikus *"Musika-erregistroak sistematikoki sailkatzeko taula"* eranskinetan.

# T100 SARRERA NAGUSIA – PERTSONA IZENA (EE)

Bibliografia-erregistro batean sarrera nagusi gisa erabilitako pertsona-izena. Oro har, obraren arduradun nagusia.

**Eremu hori autoritate bati lotuta dago**

| ***Adierazleak*** | |
|---|---|
| **Lehena** | **0** ***Izena***<br>**1** ***Abizenak***<br>**2** ***Familia-izena*** |
| **Bigarrena** | **#** ***Zehaztugabea*** |

*(Ik. Autoritateak)*

Autoritate elebidunen kasuan (euskaraz nahiz gaztelaniaz sortu daitezkeenak), katalogatzeko orduan, dokumentuaren katalogazio-hizkuntzari lotutako autoritatea aukeratuko da eremu horretan (T040 eremuan aukeratu zen hizkuntza bera izango da).

Autoritate elebiduna T900 eremuan adieraziko da (Sarrera nagusia - Pertsona-izena (elebiduna)).

Egileen sarrera nagusiak eta osagarriak zehazteko, eskuliburu honetako "***Sarrera aukeratzea***" atalean emandako irizpideei jarraitu behar zaie.

Musika-grabazioetan, oro har, musikaren **egilea** agertzen da gaiburuan.

| Adibideak: |
|---|
| **T100 1# $a**Mozart, Wolfgang Amadeus (**$d**1756-1791)<br>**T245 10 $a**Eine kleine Nachtmusik [**$h**Grabación sonora] /**$c**W. A. Mozart<br><br>**T100 1# $a**Manzano, Olga (**$d**1940-)<br>**T245 14 $a**Los versos del capitán [**$h**Grabación sonora] **$b**: poemas de amor /**$c**Olga Manzano y Manuel Picón ; letra, Pablo Neruda |

**Interpretea(k)** agertuko dira gaiburuan, baldin eta argitalpenaren edukia esandako interpreteen arabera egin bada (antologiak, errezitalak, pop musika, jazza, eta abar) eta hainbat egileren obrak baldin badira.

| Adibideak: |
|---|
| **T100 1# $a**Pantoja, Isabel (**$d**1956-)<br>**T245 10 $a**Marinero de luces [**$h**Grabación sonora] / **$c**[interpreta] Isabel Pantoja ; todas las canciones han sido compuestas por José Luis Perales |

**T700 1# $a**Perales, José Luis (**$d1**945-)

**T100 1# $a**Casal, Luz (**$d**1958-)
**T245 10 $a**A contraluz [**$h**Grabación sonora] / **$c**Luz
**T505 ## $t**Un pedazo de cielo ; **$t**Se verá ; **$t**Todo va bien ; **$t**A 1.000 kms ; **$t**Es por tí ; **$t**Tal para cual ; **$t**Qué día es hoy

**T100 1 # $a**Domingo, Plácido (**$d**1941-)
**T245 1 0 $a**Gala de ópera [**$h**Grabación sonora] / **$c**Plácido Domingo

Grabaketa ez-musikalen kasuan (literatura, ipuinak...), sarrera nagusia **literatur egilea** izango da.

Adibideak:

**T100 1# $a**Tagore, Rabindranath (**$d**1861-1941)
**T245 10 $a**Cuentos cortos [**$h**Grabación sonora] / **$c**Rabindranath Tagore

**T100 1# $a**Stevenson, Robert Louis (**$d**1850-1894)
**T245 13 $a**La isla del tesoro [**$h** Grabación sonora] / **$c**Robert Louis Stevenson
**T511 0# $a**Narrador: Enrique Aparicio

# T110 SARRERA NAGUSIA – ERAKUNDE KORPORATIBOAREN IZENA (EE)

Bibliografia-erregistro batean sarrera nagusi gisa erabilitako erakunde korporatiboaren izena.

Soinu-grabazio musikalen kasuan, **T110** eremua erabiliko dugu musika-talde eta -formazioetarako (bandak, orkestrak, abesbatzak...), baldin eta argitalpenaren edukia haien arabera egin baldin bada, nahiz eta haiek ez izan letraren edo musikaren egileak.

Egileen sarrera nagusiak eta osagarriak zehazteko, eskuliburu honetako "***Sarrera aukeratzea***" atalean emandako irizpideei jarraitu behar zaie.

## Eremu hori autoritate bati lotuta dago

| ***Adierazleak*** | |
|---|---|
| **Lehena** | **0 *Izena alderantzizko hurrenkeran***<br>**1 *Jurisdikzioaren izena***<br>**2 *Izena hurrenkera zuzenean*** |
| **Bigarrena** | **# *Zehaztugabea*** |

*Ikus. Autoritateak)*

| Adibideak: |
|---|
| **T110 2# $a**Loquillo y Los Trogloditas<br>**T245 10 $a**A por ellos que son pocos y cobardes [**$h**Grabación sonora] / **$c**letra y música, José Mª Sanz y Sabino Méndez (Loquillo y Los Trogloditas)<br><br>**T110 2# $a**Oskorri<br>**T245 10 $a**Adio Kattalina [**$h**Soinu-grabazioa] / **$c**Oskorri<br><br>**T110 2# $a**Radiotelevisión Española. **$b**Orquesta Sinfónica<br>**T245 10 $a**Concierto conmemorativo del centenario de la invención del fonógrafo [**$h**Grabación sonora] / **$c**[intérprete] Orquesta Sinfónica de RTVE |

Autoritate elebidunen kasuan (euskaraz nahiz gaztelaniaz sortu daitezkeenak), katalogatzeko orduan, dokumentuaren katalogazio-hizkuntzari lotutako autoritatea aukeratuko da eremu horretan (T040 eremuan aukeratu zen hizkuntza bera izango da).

| Adibidea: |
|---|
| **T110 2# $a**Orfeón Donostiarra<br>**T245 13 $a**La bella Lola [**$h**Grabación sonora] **$b**: habaneras / **$c**Orfeón Donostiarra<br>**T901 2# $a**Donostiako Orfeoia |

Autoritate elebiduna T901 eremuan adieraziko da (Sarrera nagusia - Erakunde korporatiboaren izena [elebiduna]).

Akronimo eta siglen puntuazioa kendu egingo da, informazioa berreskuratzeko arazoak saihesteko (adibidez, REM, musika-taldea).

Musika-talde baten **autoritate-erregistroan** “Musika-taldea” eta “Grupo musical” terminoak zehaztu beharko dira bi T678 eremutan (datu biografikoak edo historikoak).

| Adibideak: |
|---|
| ***AUTO*** |
| **T110 2# $a**Sorotan Bele<br>**T678 ## $a**Musika taldea<br>**T678 ## $a**Grupo musical |

# T111 SARRERA NAGUSIA – BILTZARRAREN IZENA (EE)

Bibliografia-erregistro batean sarrera nagusi gisa erabilitako biltzar edo hitzaldi baten izena.

Eremu hori erabiliko da aldian-aldian antolatzen diren musika-ekitaldien soinu-grabaziok deskribatzeko (musika-asteak edo -denboraldiak, jaialdiak, musikal-lehiaketak, eta abar).

## Eremu hori autoritate bati lotuta dago

***Adierazleak***

| | |
|---|---|
| **Lehena** | **0** ***Izena alderantzizko hurrenkeran***<br>**2** ***Izena hurrenkera zuzenean*** |
| **Bigarrena** | **#** ***Zehaztugabea*** |

*(Ik. Autoritateak)*

Autoritate elebidunen kasuan (euskaraz nahiz gaztelaniaz sortu daitezkeenak), katalogatzeko orduan, dokumentuaren katalogazio-hizkuntzari lotutako autoritatea aukeratuko da eremu horretan (T040 eremuan aukeratu zen hizkuntza bera izango da).

Autoritate elebiduna T902 eremuan adieraziko da (Sarrera nagusia - Biltzarraren izena [elebiduna]).

Adibideak:

**T111 2# $a**Jazz Hoeilaart International Jazz Contest (**$n**27º. **$d**2005)
**T245 10 $a**27th Jazz Hoeilaart Intern'l Contest Belgium 2005 [**$h**Grabación sonora]
**T902 2# $a**Jazz Hoeilaart International Jazz Contest (**$n**27. a. **$d**2005)

**T111 2# $a**Temporada de Ópera (**$n**52ª. **$d**2003-2004. **$c**Bilbao)
**T245 10 $a**Temporada de Ópera [**$h**Grabación sonora] **$b** = Opera Denboraldia : 2003-2004 / **$c**Olbe-Abao
**T902 2# $a**Opera Denboraldia (**$n**52. a. **$d**2003-2004. **$b**Bilbao)

**T111 2# $a**Festival Internacional de Jazz de Getxo (**$n**16º. **$d**1992. **$c**Getxo)

**T111 2# $a**Concurso Internacional de Canto de Bilbao-Bizkaia (**$n**15º. **$d**2014. **$c**Bilbao)

# T130 SARRERA NAGUSIA – IZENBURU HAUTATUA (EE)

Bibliografia-erregistro batean sarrera nagusi gisa erabilitako izenburu hautatua. Izenburu hautatua erabiltzen da idazlan bat izenburuarekin zuzenean hasten denean, eta, gainera, izenburu bat baino gehiagorekin argitaratu denean. Kasu horretan, idazlana adieraziko duen izenburu jakin bat aukeratu behar da.

**Eremu hori autoritate bati lotuta dago**

| *Adierazleak* | |
|---|---|
| **Lehena** | ***0 – 9 Alfabetoaren arabera ordenatzeko kontuan hartzen ez diren karaktereak.*** Artikulu zehaztu edo zehaztugabe bati lotuta dauden izenburu baten hasierako karaktereen kopurua, zeinak ez baitira kontuan hartzen indexatzeko eta alfabetizatzeko prozesuetan (adib.: El, The, Der), eta zeinu diakritiko edota karaktere berezi guztiak (¿, ¡, [ ). |
| **Bigarrena** | ***# Zehaztugabea*** |

*(Ik. Autoritateak)*

Ez da oso ohikoa izango soinu-grabazioei izenburu hautatuarekin gaiburua ipintzea. Honako kasu hauek ager daitezke:

- ***Soinu-grabazio musikalak***. Soinu-grabazio anonimoek izenburu hautatuarekin izango dute gaiburua (oso kasu ezohikoak).
- ***Musikalak ez diren soinu-grabazioak***. Audioliburuen kasuan, ohikoagoa izango da gaiburu nagusi gisa izenburu hautatua erabiltzea (klasiko anonimoen soinu-grabazioak).

| Adibideak: |
|---|
| **T130 0# $a**Lazarillo de Tormes<br>**T245 13 $a**La vida de Lazarillo de Tormes y de sus fortunas y adversidades [**$h**Grabación sonora] / **$c**narrado por Francisco Rabal<br>**T300 ## $a**1 casete (65 min)<br>**T700 1# $a**Rabal, Francisco (**$d**1926-2001)<br><br>**T130 0# $a**Conciertos, **$m**violín, **$r**D mayor<br>**T903 0# $a**Kontzertuak, **$m**biolina, **$r**D maior<br><br>**T130 0# $a**Dúos, **$m**violín, violonchelo<br>**T245 10 $a**Dúo for violin and violoncello<br>**T903 0# $a**Duoak, **$m**biolina, biolontxeloa |

Autoritate elebiduna T903 eremuan adieraziko da (Seriearen sarrera nagusia - Izenburu hautatua [elebiduna]).

# T240 IZENBURU HAUTATUA (EE)

Idazlan baten izenburu hautatua sortuko da deskribapen bibliografikoaren sarrera nagusiak pertsona, erakunde edo biltzar baten izena jasotzen duen eremua duenean.

Izenburu hautatua erabiliko dugu idazlan bat hainbat izenbururekin argitaratu denean eta berau adierazten duen izenburu jakin bat aukeratu behar denean.

Erregistroan T130 eremua dagoenean ez da erabiliko T240 eremua.

## Eremu hori autoritate bati lotuta dago

***Adierazleak***

| | |
|---|---|
| **Lehena** | **0** ***Ez da ez inprimatzen, ez bistaratzen*** <br> **1** ***Inprimatu edo bistaratu egiten da*** |
| **Bigarrena** | ***0-9 Alfabetoaren arabera ordenatzeko kontuan hartzen ez diren karaktereen kopurua*** |

***Azpieremuko kodeak***

| | |
|---|---|
| **$a** | ***Izenburu uniformea (EE)*** |
| **$k** | ***Formaren azpisarrera (E)*** |
| **$l** | ***Lanaren hizkuntza (EE)*** |
| **$m** | ***Interpretatzeko bitartekoa (E)*** |
| **$n** | ***Lanaren zati edo atalaren zenbakia (E)*** |
| **$o** | ***Moldaketa (EE)*** |
| **$p** | ***Lanaren zati edo atalaren izena (E)*** |
| **$r** | ***Tonalitatea (EE)*** |
| **$s** | ***Bertsioa (EE)*** |

*Ik. Autoritateak*

Musika klasikoko grabaketetarako bakarrik erabiliko da, posible baita obra bera izenburu erabat desberdinekin argitaratzea. Hala, katalogoan egile beraren obra zehatz guztiak multzokatuta edukiko ditugu, edozer izenbururekin argitaratu direla ere.

| Adibidea: |
|---|
| **T100 1# $a**Alfonso. **$b**X**$c**Rey de Castilla <br> **T240 10 $a**Cántigas de Santa María <br> **T245 10 $a**Cántigas de Alfonso X el Sabio [**$h**Grabación sonora**]** |

Izenburu hautatua idazteko garaian, komeni da fonoteka garrantzitsuen OPACS edo erreferentziako obra espezializatuak kontsultatzea, irizpideak bateratzeko.

Katalogazio-arauen 16.9 arauaren arabera (Musika), bi kasu topatuko ditugu musika-grabazioetan:

1. **Konpositoreak emandako literatur izenburu bat edukitzea obrak**

16.9.2A katalogazio-arauaren arabera, obra musikal batek literatur izenburua duenean, konpositoreak emandako jatorrizko izena baliatuko da, agertu zen hizkuntzan.

| Adibidea: |
|---|
| **T100 1# $a**Mozart, Wolfgang Amadeus (**$d**1756-1791)<br>**T240 14 $a**Die Zauberflöte<br>**T245 13 $a**La flauta mágica [**$h**Grabación sonora**]** / **$c**Mozart |

Edonola ere, 16.1.1 katalogatze-arauaren arabera: *"... izenburu hautatua ez da beharrezkoa izenburua bera horrekin bat badator"*. Hala ere, guk T240 erabiliko dugu, eremu horrek hiperestekak sortzen eta informazioa berreskuratzea optimizatzen baitu.




2. **Izenburua forma musikal baten izena izatea**

Kasu horretan, 16.9.2B katalogatze-arauak dioenaren arabera ipiniko da izenburua.

- Forma musikalaren izena
- Interpretatzeko bitartekoa
    - Ahotsak
        - Ahots bakarlariak
        - Abesbatzak
        - Abestiak, *Lieder*, etab.
    - Teklazko musika-instrumentuak, teklazkoa ez den bat baino gehiago baldin badago
    - Gainerako musika-instrumentuak partituran agertzen diren hurrenkeran
    - Baxu jarraitua
- Serie-zenbakia
- Opusaren edo katalogo tematikoaren zenbakia
- Tonalitatea
- Beste elementu identifikatzaile batzuk

| Adibideak: |
|---|
| **T100 1# $a**Miaskovskii, Nikolai (**$d1**881-1950)<br>**T240 10 $a**Sinfonías. **$n**n. 1, op. 3, **$r**do menor<br>**T245 10 $a**Symphonies Nos. 1&25 [**$h**Grabación sonora] /**$c**Nikolai Myaskovsky<br>**T740 02 $a**Symphonies n. 25<br><br>**T100 1# $a**Chaikovskiï, Piotr Ilich (**$d**1840-1893)<br>**T240 10 $a**Conciertos, **$m** violín, orquesta. **$n** op. 35, **$r**re mayor<br>**T245 10 $a**Concerto for violin [**$h**Grabación sonora]**$b** ; Variations Rococo, [op. 33] **$c**/Tchaikovsky<br>**T740 02 $a**Variations Rococo |

Beste kasu batzuk:

| Adibideak: |
|---|
| **T240 10 $a**Variations,**$m**piano, 4 manos, **$n**K. 501**, $r**G mayor<br>**T940 10 $a**Variations,**$m**pianoa, 4 esku, **$n**K. 501**, $r**G maior<br><br>**T240 10 $a**Flute music, flutes (2). **$k**Selección<br>**T940 10 $a**Flute music, flutes (2). **$k**Hautaketa |

Autoritate elebiduna T940 eremuan adieraziko da (Sarrera osagarria - Izenburu hautatua [elebiduna]).

# T243 IZENBURU HAUTATU OROKORRA (EE)

Katalogatzaileak egile emankor baten idazlanak biltzeko sortzen duen izenburu generikoa.

**Eremu hori autoritate bati lotuta dago**

***Adierazleak***

| | |
|---|---|
| **Lehena** | **0** ***Ez da ez inprimatzen, ez bistaratzen***<br>**1** ***Inprimatu edo bistaratu egiten da*** |
| **Bigarrena** | ***0-9 Alfabetoaren arabera ordenatzeko kontuan hartzen ez diren karaktereen kopurua*** |

***Azpieremuko kodeak***

| | |
|---|---|
| **$a** | ***Izenburu uniformea (EE)*** |
| **$k** | ***Formaren azpisarrera (E)*** |
| **$l** | ***Lanaren hizkuntza (EE)*** |
| **$m** | ***Interpretatzeko bitartekoa (E)*** |
| **$n** | ***Lanaren zati edo atalaren zenbakia (E)*** |
| **$o** | ***Moldaketa (EE)*** |
| **$p** | ***Lanaren zati edo atalaren izena (E)*** |
| **$r** | ***Tonalitatea (EE)*** |

*Ik. Autoritateak*

Autoritate elebiduna T941 eremuan adieraziko da (Izenburu hautatu orokorra [elebiduna]).

Adibideak:

**T100 1# $a**Rachmaninoff, Sergei (**$d**1873-1943)
**T243 10 $a**Piano. **$k**Selección
**T245 10 $a**Piano sonata No. 2 [**$h**Grabación sonora] **$b.** Préludes ; Études-tableaux /**$c**Rachmaninov
**T941 10 $a**Pianoa. **$k**Hautaketa

**T100 1# $a**Celibidache, Sergiu (**$d**1912-1996)
**T243 10 $a**Sinfonías. **$k**Selección
**T245 10 $a**Mozart, Haydn [**$h**Grabación sonora] **$b** : symphonies /**$c**Sergiu Celibidache
**T941 10 $a**Sinfoniak. **$k**Hautaketa

Honako kasu hauetan erabiliko da:

### 1. *Idazlan osoak*

"**Obras**" edo "**Musika-lanak**" izenburu hautatu kolektiboak erabiltzen dira argitalpenak egile baten idazlan guztiak biltzen dituenean edo hala aurkezten direnean.

| Adibidea: |
|---|
| **T110 2 $a**Mecano<br>**T243 10 $a**Obras<br>**T245 10 $a**Obras completas [**$h**Grabación sonora] / **$c**Mecano<br>**T941 10 $a**Musika-lanak |

### 2. *Musika-lan hautatuak*

Konposizio musikal mota desberdinetakoak izanik, konpositore baten obraren hiru obra edo zati baino gehiago dituzten bildumetarako, "**Obra selecta**" edo "**Musika-lan hautatuak**" izenburu hautatua erabiliko da.

| Adibidea: |
|---|
| **T100 1# $a**Strauss, Richard (**$d**1864-1949)<br>**T240 10 $a**Obra selecta<br>**T245 10 $a**Till Eulenspiegel's Merry Pranks Op. 28 [**$h**Grabación sonora] **$b**; Don Juan Op. 20 ; Dance of the seven veils from "Salome" Op. 54 / **$c**Richard Strauss. Sinfonía concertante K. 364 / Wolfgang Amadeus Mozart<br>**T940 10 $a**Musika-lan hautatuak |

### 3. *Konposizio mota bereko musika-lanen bildumak*

Konposizio mota bererako musika-lanen bildumetan, forma musikalaren izena erabiliko da izenburu hautatu gisa, eta interpretazio-bitartekoa erantsiko da, nola eta ez den titulutik eta musika-instrumentuetarako obretatik ondorioztatzen.

| Adibideak: |
|---|
| **T100 1# $a**Beethoven, Ludwig van (**$d**1770-1827)<br>**T243 10 $a**Sonatas, **$m**piano<br>**T245 10 $a**Beethoven for all [**$h**Grabación sonora] **$b**: the piano sonatas<br>**T941 10 $a**Sonatak, **$m**pianoa<br><br>**T100 1# $a**Atterberg, Kurt (**$d**1887-1974)<br>**T243 10 $a**Sinfonías<br>**T245 10 $a**Complete symphonies [**$h**Grabación sonora] / **$c**Kurt Atterberg<br>**T941 10 $a**Sinfoniak<br><br>**T100 1# $a**Beethoven, Ludwig van (**$d**1770-1827)<br>**T243 10 $a**Cuartetos, **$m**cuerda |

**T245 14 $a**Die Streichquartette [**$h**Grabación sonora] **$b**= The string quartets = Les quatuors à cordes / **$c**Ludwig van Beethoven
**T941 10 $a**Kuartetoak, **$m**haria

### *4. Hainbat motatako, musika-instrumentutako eta abarretako musika-lanen bildumak*

Musika-lanen bildumetan, interpretatzeko bitartekoa bat datorrenean baina forma musikala ez, interpretatzeko bitartekoaren izendapena erabiliko da izenburu hautatu gisa.

Adibidea:

**T100 1# $a**Telemann, Georg Philipp (**$d**1681-1767)
**T243 10 $a**Música de cámara
**T245 10 $a**Tafelmusik [**$h**Grabación sonora] **$b**= Musique de table : (complete) / **$c**Teleman
**T941 10 $a**Ganbera-musika

Musika-lanen bilduma ez baldin bada osoa, “**Selección**” edo “**Hautaketa**” terminoak erantsiko dira. Zenbaki korrelatiboa duten musika-lanen kasuan, haien tokian dagokion zenbakia ipiniko da.

Adibideak:

**T100 1# $a**Haydn, Joseph (**$d**1732-1809)
**T243 10 $a**Cuartetos, **$m**cuerda. **$k**Selección
**T245 10 $a**Quatuors opus 64, nº 1, 2, 3, 4, 5 y 6 [**$h**Grabación sonora] /**$c**Joseph Haydn ; Quatuor Festetics
**T941 10 $a**Kuartetoak, **$m**haria. **$k**Hautaketa

**T100 1# $a**Fux, Johann Joseph (**$d**1660-1741)
**T243 10 $a**Oberturas. **$k**Selección
**T245 10 $a**Ouvertures [**$h**Grabación sonora] / **$c**Johann Joseph Fux
**T941 10 $a**Oberturak. **$k**Hautaketa

**T100 1# $a**Henze, Hans Werner (**$d**1926-2012)
**T243 10 $a**Sinfonías. **$n**n. 1-6
**T245 10 $a**Sinfonien nos. 1-6 [**$h**Grabación sonora] / **$c**Hans Werner Henze
**T941 10 $a**Sinfoniak. **$n**1.a-6.a

***Izenburu hautatuaren zati izan litezkeen beste elementu batzuk.***

Beste hainbat elementu ezarri ahal izango dira ezarritako hurrenkeran. Elementu bakoitzak puntu bat du aurretik, nola eta beste puntuazioren bat ez den zehazten. “**Selección**” edo “**Hautaketa**” terminoa erantsiz gero, azkeneko elementua izango da, edo azken-aurrekoa, “**arr.**” edo “mold.” ipiniz gero.

Adibidea:

**T100 1# $a**Chopin, Frédéric (**$d**1810-1849)
**T243 10 $a**Mazurcas, **$m**piano. **$k**Selección ; **$o**arr.
**T245 10 $a**Mazurkas [**$h**Grabación sonora] / **$c**Chopin
**T941 10 $a**Mazurkak, **$m**pianoa. **$k**Hautaketa ; **$o**mold.

Zirriborroak, oharrak, eta abar.

Musika-konposizio baten zirriborro edo oharren kasuan, obra osoaren izenburu hautatua erabiliko da, eta, ondoren, "**Esbozos"** "**Zirriborroa**" terminoa ipiniko da parentesi artean.

Moldaketak eta transkripzioak

Jatorrizko obraren konpositorea buru duten obren moldaketetan eta transkripzioetan "**arr.**" "mold." laburtzapena erantsiko da, puntu eta koma aurretik duela (baita moldaketaren egilea autorea bera baldin bada ere).

# T245 IZENBURUAREN AIPUA (EE)

Musika-lan baten izenburuari eta deskribapen bibliografikoaren erantzukizunaren aipuari buruzko oharra. Eremuan izenburua bera jasotzen da. Hauek ere jaso daitezke: materialaren izendapen orokorra, izenburuaren gainerakoak, izenburuari buruzko informazio osagarria eta erantzukizunaren aipua.

***Adierazleak***

| | | |
|---|---|---|
| **Lehena** | **0** | ***Ez dago sarrera gehigarririk*** |
| | **1** | ***Sarrera gehigarria dago*** |
| **Bigarrena** | **0-9** | ***Alfabetoaren arabera ordenatzeko kontuan hartzen ez diren karaktereen kopurua*** |

***Azpieremuko kodeak***

| | |
|---|---|
| **$a** | ***Izenburua (EE)*** |
| **$b** | ***Izenburuaren gainerakoak (EE)*** |
| **$c** | ***Erantzukizunaren aipua (EE)*** |
| **$h** | ***Material mota (EE)*** |
| **$n** | ***Lanaren zati edo atalaren zenbakia (E)*** |
| **$p** | ***Lanaren zati edo atalaren izena (E)*** |

**Izenburua bera transkribatzeko orduan**, arau orokor hauek hartuko dira kontuan:

- Izenburuaren hasieran dauden artikuluak –zehaztuak zein zehaztugabeak– ez dira kontuan hartzen alfabetoaren arabera ordenatzeko**.**
- Izenburua sarrera nagusia denean, alfabetoaren arabera ordenatzen den lehenengo hitza minuskulaz jarriko da, akats ortografikorik gertatzen ez bada.
- Izenburua zenbaki batez hasten denean, **T246** etiketan transkripzio alfabetikoa jaso beharko da.

Adibideak:

**T245 10 $a**9 sonatas
**T246 1# $a**Nueve sonatas

**T245 10 $a**4 Symphonien
**T246 1# $a**Vier Symphonien

**T245 14 $a**Les 9 symphonies
**T246 1# $a**Neuf symphonies

- Artikulu batez hasten ez diren izenburuen hasieran dauden diakritikoak edo karaktere bereziak –esaterako, [**¿, ¡, “, ¡ !, etab.**]– ageri diren bezala transkribatuko dira, hiru puntuak (...) izan ezik, honela transkribatuko baitira: **__ (2 azpimarra, zuriunerik gabe)**. Karaktere horiek EZ dira kontuan hartuko ALFABETOAren arabera ordenatzeko.

**$a – Izenburua**

Izenburua informazio-iturri nagusitik transkribatzen da. Gainera, zenbait faktore izan behar dira kontuan:

- *ISBD bateratuan* ezartzen den moduan, izenburuak konposizio mota eta klabeari, numerazioari, konposizio-datari eta interpretazio-bitartekoari buruzko informazioa jasotzen duenean, izenburuak berak konposizio mota eta klabearen, numerazioaren, konposizioaren eta interpretazio-bitartekoaren aipamenak hartu ditzake. (Konposizio mota baten izena forma baten izentzat hartzen da, genero baten izentzat edo hainbat konpositorek maiz erabiltzen duten termino generikotzat (*adibidez, capriccio, concerto, intermezzo, Magnificat, mass, movement, muziek, nocturne, requiem, Stück, symphony, suite, Te Deum, trio sonata*)).
  Bereizgarritzat hartzen dira beste izenburu batzuk (termino horiek gehi beste hitz gehigarri bat(zuk) hartuz gero ere bai; esaterako, *ganbera-kontzertua, Konzertstück, suite txikia*).

| Adibidea: |
|---|
| **T245 10 $a**Concierto para flauta y orquesta nº 1, en sol mayor [**$h**Grabación sonora] / **$c**Mozart |

Izenburu bereizgarri gisa agertzen diren klabea, numerazioa, konposizio-urtea eta interpretatzeko bitartekoa izenburuaren informazio osagarritzat hartzen dira.

| Adibidea: |
|---|
| **T245 10 $a**Sinfonía del nuevo mundo [**$h**Grabación sonora] **$b** : n.9, op. 88, sol mayor |

- Baliteke izenburua egilearen edo interprete baten izena izatea.

| Adibidea: |
|---|
| **T245 10 $a**Manuel de Falla [**$h**Grabación sonora]**$b :** grabaciones históricas |

- Izenburu kolektiboa duen grabaketa bateko obren izenburuak oharrean jasotzen dira (**T505** eremua).
- Kontuan izan behar da alemanezko izenburuetan (oso ohikoak musika klasikoan), substantibo arruntak hizki larriz idazten direla.

| Adibideak: |
|---|

**T245 10 $a**Konzert für Klavier, Violine, Violoncello und Orchester, op. 56 [**$h**Grabación sonora] **$b** : "Tripel-Konzert" ; Ouvertüre Egmont, op. 84 ; Ouvertüre Coriolan, op. 62 ; Ouvertüre Fidelio, op. 72

**T245 00 $a**Für Elise [**$h**Grabación sonora] **$b** : my first recital = Mein erstes Konzert = mon premier récital

- Tonalitateak hizki larriz idazten dira alemanez eta ingelesez. Gaztelaniaz, frantsesez eta italieraz, berriz, hizki xehez idazten dira.

Adibideak:

**T245 10 $a**Symphonie Nr. 6 F-dur, op. 68 [**$h**Grabación sonora] **$b** = Symphony nº 6 in F Major, op. 68 = Symphonie nº 6 en fa majeur, op. 68 = Sinfonía nº 6 in fa maggiore, op. 68 = Sinfonía nº 6 en fa mayor, op. 68 / **$c**Beethoven

### $h - Material mota

Izenburu nagusiaren ondoren (**$a**, **$n**, **$p** azpieremuak), eta izenburuaren gainerakoaren (**$b**) eta/edo erantzukizunaren aipuaren (**$c**) aurretik jasotzen da.

Adibidea:

**T245 10 $a**Cascanueces [**$h**Grabación sonora] **$b** : suite **/$c**Tchaikovsky

**$h** azpieremuak katalogatu beharreko material mota zehazteko termino bat jasotzen du. Dokumentu musikalen kasuan, zera erabiliko dugu:

| ***Castellano*** | ***Euskera*** |
|---|---|
| Grabación sonora | Soinu-grabazioa |

*ISBD kontsolidatuan* ezartzen den bezalaxe, izendatzailea hizki larriz hasiko da.

**Azpieremu horrek** aurretiaz definitutako katalogazio-taula bat dauka. «Katalogatzeko laguntza» botoiarekin, dauden aukera posible bakarusiko ditugu.

### $b – Izenburuaren gainerakoak

Elementu horren transkripzioa arau orokorretara egokituko da (1.1.6 katalogazio-araua) eta BETI $h azpieremuaren ostean transkribatuko da.

**$b** azpieremu bat **$h** azpieremuaren atzetik denean, **$b** azpieremuaren puntuazioa **ez da aurretik ipiniko** (**":"** (bi puntu) **"="** (berdin) "**;**" (puntu eta koma) "**.**" (puntu) beti **$b** azpieremuaren ondoren joango dira).

Soinu-grabazioetan, azpi-izenburua honako hau izan liteke:

- Izenburu konbentzional bat, izenburu propioaren edo deskripzioko beste elementu baten zati ez denean (1.1.6F katalogatze-araua).

| Adibidea: |
|---|
| **T245 10 $a**Sinfonía nº5 [**$h**Grabación sonora] **$b** : Patética |

- Generoaren edo forma musikalaren aipamen bat.

| Adibidea: |
|---|
| **T245 10 $a**Cascanueces [**$h**Grabación sonora] **$b** : suite |

**$n – Idazlanaren zati baten edo atal baten zenbakia**

*(Ik. Imprimaki modernoak)*

| Adibidea: |
|---|
| **T245 10 $a**Sonatas para piano. **$n**Volumen III, (Sonatas 16-23) [**$h**Grabación sonora] / **$c**Ludwig van Beethoven |

**$p – Idazlanaren zati baten edo atal baten izena**

*Ik. Imprimaki modernoak*

**$c – Erantzukizunaren aipamena**

Lehenengo erantzukizunaren aipamena edota beste azpieremuetan kodifikatzen ez den eremuaren gainerako informazioa.

Pertsona edota erakundeen izenak informazio-iturri nagusian ageri diren bezala transkribatuko dira. Barraren osteko lehenengo letra minuskulaz jarriko da, akats ortografikorik gertatzen ez bada.

Erantzukizunaren aipamenean obraren eduki intelektualaren arduradunen izenak agertuko dira (pertsonak zein erakundeak); hau da, konpositoreak, moldaketen egileak, libretoen egileak...

- Musika klasikoaren kasuan, konpositoreak, letra-idazleak, libretoen egileak. Interpreteak, oro har, T511 oharrean ipiniko dira.
- Pop, jazz, flamenko, new age eta tankerako musikaren kasuan, interpreteak ipiniko dira.
- Herri-musikaren kasuan, interpreteak ipiniko dira, eta, interesgarria izanez gero, herri-abestien eta -kontakizunen biltzaileak.

| Adibideak: |
|---|
| **T100 1# $a**Berlioz, Héctor (**$d**1803-1869)<br>**T240 10 $a**Symphonie fantastique ; **$o**arr. |

**T245 10 $a**Symphonie fantastique [**$h**Grabación sonora] / **$c**Berlioz ; piano transcription [by] Liszt
**T511 0# $a**Idil Biret, piano

**T245 10 $a**Happy hunting [**$h**Grabación sonora] / **$c**book by Linsay and Roussel Crouse ; lyrics by Matt Dubey ; music by Harold Karr

**T245 10 $a**Euskaldunen organu eresi hautatuak [**$h**Soinu-grabazioa] / **$c**joilea, Esteban Elizondo Iriarte

**T100 1# $a**Códax, Martín (**$d**ca. 1240-1270)
**T245 10 $a**Cantigas de amigo [**$h**Grabación sonora] / **$c**Martín Códax
**T511 0# $a**Grupo de Música Antigua de Compostela

**T100 1# $a**Ordorika, Ruper (**$d**1956-)
**T245 10 $a**Azukre koxkorrak [**$h**Soinu-grabazioa] / **$c**Ruper Ordorika

*ISBD bateratuan* ezartzen den bezala, musika-taldeen edota bestelako taldeen osagaien izen indibidualak parentesi artean eman litezke taldearen izenaren ostean, informazio gogokoenaren iturrian agertzean.

Adibidea:

**T110 2# $a**Euskal Barrokensemble
**T245 10 $a**Euskel Antiqva [**$h**Soinu-grabazioa]**$b** : le legs musical du Pays Basque=legacy of the land of Basque / **$c**Euskal Barrokensemble (Enrike Solinís)

# T246 IZENBURUAREN ALDAERAK (E)

Dokumentuan zehar agertzen diren izenburuaren aldaerak, hura hobeto identifikatzen laguntzen dutenak.

Izenburu-aldaera horiek **T246** eremuan jartzen dira, baldin eta **T245** eremuan aipatutako izenburuarekin alderatuta nabarmen desberdinak badira.

Ohar gisa bistaratzen/inprimatzen direnean, izenburu-aldaeren aurretik sarrerako termino edo esaldi bat azaldu ohi da, bigarren adierazlearen balioarekiko lotura bidez bistaratzen dena. Erregistro bibliografikoan dagokien hizkuntzan bistaratzen/inprimatzen dira; **T040** eremuaren **$b** azpieremuan zehaztutako katalogazio-hizkuntzan, hain zuzen.

## *Adierazleak*

**Lehena**

**1** ***Oharra, sarrera gehigarri bat dago*** (lehenetsita)
**3** ***Ez dago oharrik, sarrera gehigarri bat dago***

**Bigarrena**

**#** ***Ez da zehazten.*** Ez da izenburu motari buruzko informaziorik ematen.
- Izenburua (**$a**) zenbakiz hasten denean edo **@** zeinua daukanean.
- Izenburuak (**$a**) akatsen bat daukanean
- Izenburuan (**+, x, &**) zeinuak ageri direnean
- Letraldatutako idazlanen gaztelaniazko eta euskarazko izenburuetarako.

**0** ***Izenburuaren zatia.*** Honako kasu hauetan:
- Izenburu alternatiboa (edo juntagailuz bereizia) **($a)**
- Zatien edo atalen izenburuak **($p)**
- **($B) azpiizenburua $a** azpieremua inizialez osatuta dagoenean, eta **$b** haren forma garatua denean.

**1** ***Pareko izenburua.*** Izenburua beste hizkuntza batean. T246 bat erabiliko da idazlana idatzita dagoen hizkuntza bakoitzarentzat. (Lehenetsita)

Gainera, behekoz gorako dokumentuen kasuan erabiliko da.

**3** ***Beste izenburu bat***. Dokumentuan agertzen den beste izenburu bat, bigarren adierazlearen ezein balioren bidez zehaztuta ez dagoena; esaterako, atarian ageri den beste izenburu bat.

**4** ***Azaleko izenburua***. Azala informazio-iturri nagusia ez denean.

**5** ***Azal osagarriaren izenburua.*** Oro har, beste hizkuntza batean idatzitako izenburua da, iturri nagusi gisa erabilitako atariaren aurreko edo osteko atarian jasota dagoena. Era berean, behekoz gorako dokumentu elebakarretarako ere erabiliko da.

**8** ***Bizkarreko izenburua.*** Argitaratzailearen izena, ez koadernatzailearena.

## *Azpieremuko kodeak*

**$a** ***Izenburu nagusia/ Izenburu laburtua (EE)***

**$b** ***Izenburuaren gainerakoak (EE)***

**$n** ***Lanaren zati edo atalaren zenbakia (E)***

**$p** ***Lanaren zati edo atalaren izena (E)***

*Lotura bidez bistaratzekoa*

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, hau da, ez da beharrezkoa hitzez-hitzezkoa idaztea, programak automatikoki sortuko baitu dagokion katalogazio-hizkuntzan, baldin eta **T040** eremuko **$b** behar bezala betetzen bada.

| ***2 adie.*** | ***Castellano*** | ***Euskera*** |
|---|---|---|
| 2 | Título distintivo: | Izenburu bereizgarria: |
| 3 | Otro título: | Beste izenburu bat: |
| 4 | Título de la cubierta: | Azaleko izenburua: |
| 5 | Título de la portada adicional: | Atari gehigarriko izenburua: |
| 6 | Título de la cabecera: | Orriburuko izenburua: |
| 7 | “Titulillo”, título de margen: | Orri-ertzeko izenburua: |
| 8 | Título del lomo: | Bizkarreko izenburua: |

**Aplikazio-irizpideak**

- Honako hauek jasotzeko erabiliko dugu:

  Pareko izenburuak (azpiizenburuekin edo gabe)

  Izenburu alternatiboak

  Behekoz gorako izenburuak

  Izenburu-aldaerak

  Bizkarreko izenburua, azaleko izenburua, etab.

  Zenbakiz edo zeinuz hasten diren izenburuak (+, x, @, etab.)

- Hasierako artikuluak (adibidez, El, La, Die, The...) normalean ez dira eremu horretan jasotzen, nola eta ez dugun kontuan hartu nahi alfabetoaren arabera ordenatzeko artikulua; izan ere, **T246** eremuko adierazleek ez dute aukerarik ematen sistemak artikuluok automatikoki ken ditzan.

**IZENBURU OROKORRIK GABEKO BILDUMEN KASUAN, LEHENENGO IZENBURUAREN OSTEAN DATOZEN IZENBURUETARAKO T740 ETIKETA ERABILIKO DA.**

| Adibideak: |
|---|
| **T110 2# $a**Cicatriz<br>**T245 10 $a**4 años, 2 meses y 1 día [**$h**Grabación sonora] / **$c**Cicatriz<br>**T246 1# $a**Cuatro años, dos meses y un día<br><br>**T110 2# $a**Oskorri<br>**T245 10 $a**25 kantu urte [**$h**Soinu-grabazioa] / **$c**Oskorri<br>**T246 1# $a**Hogeistabost kantu urte<br><br>**T100 1# $a**Beethoven, Ludwig van (**$d**1770-1827)<br>**T245 14 $a**The sonatas for violin & piano [**$h**Grabación sonora]**$b** = Integrale des sonatas pour violon et piano / **$c**Beethoven<br>**T246 11 $a**Integrale des sonatas pour violon et piano<br><br>**T100 1# $a**Beethoven, Ludwig van (**$d**1770-1827)<br>**T245 14 $a**Die Symphonien [**$h**Grabación sonora]**$b** = The symphonies / **$c**Ludwig van Beethoven<br>**T246 11 $a**Symphonies |

# T250 EDIZIOAREN AIPUA (E)

Idazlan baten edizioari lotutako informazioa.

Soinu-grabazioen deskribapenean, “edizio” terminoak master-kopia beretik ekoitzitako eta argitalpen-enpresa batek edo enpresa-talde batek argitaratutako dokumentu baten kopia guztiei egiten die erreferentzia.

Horrenbestez, baldintza horiek betetzen direnean, dokumentuaren banatzailearen nortasun-aldaketa ez da edizio aldaketa izango (ISBD-NBM 0.2).

***Adierazleak***

**Lehena** ***# Zehaztugabea***

**Bigarrena** ***# Zehaztugabea***

***Azpieremuko kodeak***

**$a** ***Edizioaren aipua (EE)***

**$b** ***Edizioaren aipuaren gainerakoa (EE).*** Erantzukizunaren aipu pertsonala edo korporatiboa, edota pareko edizioaren aipua.

Edizioaren aipamena nabarmenduko da informazio-iturrian aipamen hori “***edizio***” terminoarekin edota antzeko terminoren batekin agertzen denean (esaterako, “bertsioa”) hura identifikatuko duen zenbaki edo termino eta guzti. Puntu horri dagokionez, kontuan izan behar dugu konpainia musikal handien funts diskografikoaren “berrargitalpen” berriak, disko trinkoan egindakoak, EZ direla edizio berritzat hartu behar.

Ohikoa izaten da grabazioetan “*Bach edizioa*”, “*Mozart edizioa*” eta tankerako aipuak topatzea, baina, egiaz, nahiz eta “edizio” terminoa agertu, seriearen izenburuaren aipamena baino ez dira.

Ez da oso ohikoa soinu-grabazio musikaletan edizio-aipuak topatzea. Halakorik izanez gero, katalogazio-arauetan zehaztutako hurrenkera eta modua kontuan izanda transkribatuko dira.

**$a - *Edizioaren aipua***

Edizioaren aipua, oro har, zenbakiz, karaktere alfabetikoz eta horiekin batera ageri diren hitzez eta/edo laburtzapenez osatzen da. Edizioaren aipua hizkuntza batean baino gehiagotan dagoenean, lehenengoa bakarrik jasoko da **$a** azpieremuan.

**$b - *Edizioaren aipuaren gainerakoak***

| Adibideak: |
|---|
| **T245 14 $a**Las amistades peligrosas [**$h**Grabación sonora]<br>**T250 ## $a**Ed. abreviada<br><br>**T250 ## $a**Remastered ed.<br><br>**T250 ## $a**Ed. para El Círculo de Lectores |

# T260 ARGITALPENA, BANAKETA, ETA ABAR (E)

Idazlan baten argitalpenari, inprimatzeari, banaketari, sorrerari edo ekoizpenari buruzko informazioa.

| *Adierazleak* | |
|---|---|
| **Lehena** | *# Ezin da aplikatu* |
| **Bigarrena** | *# Zehaztugabea* |
| ***Azpieremuko kodeak*** | |
| **$a** | ***Argitaralekua, banaketa-lekua, eta abar (E)*** |
| **$b** | ***Argitaratzailearen izena, banatzailearen izena, eta abar*** |
| **$c** | ***Argitalpen-data, banaketa-data, eta abar*** |
| **$e** | ***Fabrikazio-lekua (E)*** |
| **$f** | ***Fabrikatzailea (E)*** |
| **$g** | ***Fabrikazio-data (E)*** |

Soinu-grabazioen kasuan, ***argitaratua*** terminoak ***merkaturatua*** esan nahi du; hau da, sailean ekoitzitako dokumentuak dira, publikoak eskura dituenak.

Baliteke eremu horren deskribapena konplexua izatea, bai eta akatsak agertzea ere izen komertzialen aniztasunagatik edota soinu-erregistro batean ager litezkeen datengatik. Hala, soinu-grabazio batean hainbat elementu topa daitezke:

- ***Marka komertzial baten izena edo zigilu diskografikoa***. Errazen ezagutzen dena da, diskoan, karatulan eta atxikitako materialean nabarmendu egiten baita (adibidez, *Deutsche Grammophon*, *Decca*, *Philips*, eta abar).

- ***Argitaletxearen izena***. Baliteke zigiluaren izena argitaletxearen izenarekin bat etortzea; edonola ere, ohikoena argitaletxe batek hainbat zigilu diskografiko edukitzea da.
    - ***Atzerriko soinu-grabazioetan***, ekoizpen-etxearen izena copyright © zigiluaren eta/edo grabaketa babesteko dataren (p) alboan agertzen da; izan ere, ekoizlea da fonogramaren eskubideen titularra. Ez dugu argitaletxearekin nahastu behar. Argitaratzaileak bikoizteko operazioak bakarrik finantzatuko ditu, eta, hortaz, ezingo da egile-eskubideen lagatzaile izan; jabetza industrialeko eskubidea baino ez du izango. Katalogatze-arauek ez dute ekoizlearen aipamenik aurreikusten deskribapen bibliografikoan. Nahi izanez gero, oharrean eman liteke.

- ***Banatzailearen izena***.
  Hainbat webgune daude zigilu diskografikoen datu-base handiak topatzeko, katalogatzailearen egitekoa errazte aldera.
  - http://www.allrecordlabels.com
  - http://www.prestoclassical.co.uk/
  - http://www.arkivmusic.com

*ISBD kontsolidatuan* ezartzen den bezalaxe, eremu bereko elementu bakoitza bere kako zuzenen artean sartuko da [I.G.]. : [i.g.].

**$e** fabrikazio-lekua eta **$f** fabrikatzailearen izena azpieremuen adierazleak argitaratzailearen lekua eta izena ezagutzen ez direnean bakarrik jasoko dira.

Datak osorik transkribatuko dira, hau da, **4 digituekin**: 1980-1985, eta ez 1980-85. Ezagutzen ez bada, gutxi gorabeherako data bat erabiliko dugu, kako zuzenen artean.

Laburtzapenen kasuan, ez da zuriunerik utziko puntuaren ostean, beraz, **[i.g.]** jarriko da, eta ez [i. g.]

**$a - Argitaralekua, banaketa-lekua, eta abar**

- Argitaralekua dokumentuan ageri den bezalaxe jasoko da.

| Adibidea: |
|---|
| **T260 ## $a**Vitoria-Gasteiz |

- Lekua ezagutzen ez bada, **[I.G.]** laburdura ipin liteke.
- Transkribatzeko, elementu horrek informazio-iturrian duen aurkezpen ortografikoa eta gramatikala errespetatu behar da, baina ondoan agertzen diren eta argitaralekuaren izen propioaren zati ez diren hitzak ezabatu egin behar dira.
- Toponimoak errepikatzen direnean edo ezagunak ez direnean, beren eremu geografikoa gehituko da gaztelaniaz, parentesien artean agindutako iturrian agertzen bada; agertzen ez bada, berriz, kako zuzenen artean. (Euskal Herriko toponimoen kasuan: gaztelaniaz, izen ofiziala erabiliko da, halakorik izanez gero; euskaraz, Euskaltzaindiak onartutako izen normalizatua erabiliko da, Euskal Onomastikaren Datutegiaren webgune honetan kontsultatu daitekeena: http://www.euskaltzaindia.eus/eoda).
- Argitaralekuaren izena hainbat hizkuntzatan agertzen denean, pareko aipuak egingo dira.
- Hainbat argitaraleku direnean, bakoitza $a azpieremu banatan erregistratuko da.

**$b - Argitaratzailearen izena, banatzailearen izena, eta abar.**

- Editorearen izena argitaletxearen izen gisa transkribatuko da, eta zigilu diskografikoaren izena zenbaketa-eremurako utziko da (8.4.4C katalogatze-araua); edonola ere, baliteke argitaletxearen eta zigiluaren izena berdinak izatea.

| Adibidea: |
|---|
| **T260 ## $a**Madrid : **$b**Polygram Ibérica<br>**T260 ## $a**San Sebastián : **$b**Columbia |

- Banatzailea besterik ez denean, hura hartuko da editoretzat.

| Adibidea: |
|---|
| **T260 ## $a**Barcelona : **$b**distribuido por Hispavox |

- Izena ezagutzen ez bada, **[i.g.]** laburtzapena jarriko da.

**$c - Argitalpen-data, banaketa-data, eta abar**

Eremu honetan **argitalpenaren data** ipiniko da, eta ez jatorrizko grabaketarena.

Dokumentuak argitalpen-datarik ez daukanean, honako hauek ipini ahal izango dira (hurrenkera honetan), dagokion laburduraren ostean:

- **Fab.** (Fabrikazioa)
- **L.G.** (Lege Gordailua)
- **p** (Phonogram) Fonogramaren sorrera-data
- **cop.** (copyright) Argitalpen batean hainbat copyright edota grabaketa-babeseko data agertzen direnean (grabaketan jasotako obra bakoitzeko bat, beste bat liburuxkako testuetarako, baina bat bera ere ez dokumentu osoarentzat) datarik berriena hartuko da.

Dokumentuan argitalpen-datarik ez denean, baina beste aipamen batzuetatik ziurtasunez har daitekeenean (inprimaketa, lege-gordailua edo copyrighta), argitalpen-data gisa emango da kako zuzenen artean, baldin eta dokumentuari dagokion lehen argitalpena baldin bada. Ziur egon ezean, lege-gordailukoa emango da argitalpen-datatzat, edota copyrightarena edo inprimaketarena (hurrenkera horretan). Depósito legal (D.L.) edo lege-gordailu (L.G.) terminoen siglak maiuskulaz transkribatuko dira, puntuaren ostean zuriunerik utzi gabe.

Argitalpen-data eta grabaketa-data oso desberdinak direnean, T518 oharrean adierazi beharko da.

| Adibidea: |
|---|
| **T260 ## $a**Madrid : **$b**Polygram Ibérica, **$c**1985<br>**T518 ## $a**Grabado en 1982 |

Grabaketaren babes-data bakarra edo gehiago agertzen direnean, argitalpen-datatik oso bestelakoak, data gisa  gutxi gorabeherako argitalpen-data bat TRANSKRIBATU DAITEKE, ondoren grabaketa babesteko azken dataren edo copyrightaren data duela.

| Adibidea: |
|---|
| **T260 ## $a**London **: $b**Harmonia Mundi**, $c**[198-?], p 1965 |

- Benetako data jakin ezean, gutxi gorabeherako data edo ustezkoa jarri ahalko da, kako zuzenen artean eta aurretik **[ca.]** edo **[?]** jarrita beti.

| Adibidea: |
|---|
| **T260 ## $c**[ca.1989]<br>**T260 ## $c**[1989?] |

- Dokumentuan datarik agertzen ez bada, hura bilatzen saiatuko gara, baina, ezinezkoa bada, deskripzioaren zati hori ezingo da hutsik utzi, ez eta *sinne anno* [s.a.] laburtzapena jarri ere. Horren ordez, argitalpen-urtera hurbiltzen saiatuko gara, edo tarte kronologiko zabalagoa hartuko da (1.4.6F katalogatze-araua). Data ezezagunak hamarkada edo mendeen bidez adierazi daitezke, (-) marratxoa erabilita.

- Ezagutzen ez bada, gutxi gorabeherako data bat erabiliko dugu, kako zuzenen artean.

| Adibidea: |
|---|
| **T260 ## $c**[197-]<br>**T260 ## $c**[19--] |

- Dataren zati bat aldatu badaiteke, komatxo angeluarrak erabiliko dira, aldatu daitekeen dataren zatia jasotzeko.

| Adibidea: |
|---|
| **T260 ## $c**1970-<1972> |

# T300 DESKRIBAPEN FISIKOA (E)

Dokumentuaren deskribapen fisikoa, luzera, neurriak eta bestelako xehetasun fisiko batzuk barne, baita atxikitako materialaren deskribapena eta unitatearen tamaina eta mota ere.

| | | |
|---|---|---|
| ***Adierazleak*** | | |
| | **Lehena** | ***# Zehaztugabea*** |
| | **Bigarrena** | ***# Zehaztugabea*** |
| ***Azpieremuko kodeak*** | | |
| | **$a** | ***Tamaina (E)*** |
| | **$b** | ***Beste ezaugarri fisiko batzuk (EE)*** |
| | **$c** | ***Neurriak (E)*** |
| | **$e** | ***Atxikitako materiala (EE)*** |

**$a – Tamaina**

Zenbaki arabiarretan, dokumentuak zenbat unitate fisiko dituen adierazten du, bai eta materialaren izendapen espezifikoa ere, dokumentuaren izanera deskribatzeko terminorik egokiena erabilita.

Hona hemen formatua nagusiak:

- **Casete**
- **Diskoa**. Biniloz, arbelez eta tankerakoz egindako diskoetarako.
- **Diskoa (CD-DA**). Disko trinkoetarako (*Digital audio*).
- **Diskoa (CD-DA Extra).** Pista interaktiboa duten diskoetarako (oharrean esandako pista interaktiboa zehaztu beharra dago).
- **Diskoa (SA-CD).** "Super Audio-CD" (SA-CD). SACD diskoa CD-DVD hibrido bat da. Nahiz eta DVD teknologia erabili, SACD ezin da DVD irakurgailu guztietan erreproduzitu. SACD diskoak *Direct Stream Digital* (DSD) izeneko audioa kodetzeko sistema digitala erabiltzen du.

| ***Gaztelania*** | ***Euskara*** |
|---|---|
| Casete | Kasetea |
| Disco | Diskoa |
| Disco (CD-DA) | Diskoa (CD-DA) |
| Disco (CD-DA Extra) | Diskoa (CD-DA Extra) |
| Disco (SA-CD) | Diskoa (SA-CD) |

| Adibideak: |
|---|
| **T300 ## $a**2 discos (CD-DA)<br>**T300 ## $a**2 disko (CD-DA)<br>**T300 ## $a**1 disco (SA-CD) |

Adierazpen osagarri gisa, parentesi artean emango dugu grabaketaren iraupena. Dokumentuak unitate fisiko bat baino gehiago baldin badu, unitate fisiko bakoitzaren iraupena edo grabaketaren denbora osoa erregistratuko dugu.

**- min** ez da laburdura, ikurra baizik, eta ez du onartzen hizki larririk, ezta punturik eta pluralik ere. Ikurren amaieran ez da punturik idatziko. DRAEren arabera: "*Ikurra: Izaera zientifikoa edo teknikoa duen laburtze-mota, alfabetoaren arabera ordenatzeko kontuan hartzen ez diren zeinuez edota letrez osatutakoa, eta punturik gabekoa, laburtzapenak ez bezala*".

| Adibideak: |
|---|
| **T300 ## $a**1 kasete (45 min)<br>**T300 ## $a**2 discos (CD-DA) (80 min ; 97 min) |

**$b – Beste ezaugarri fisiko batzuk**

Azpieremu honetan, beste hainbat ezaugarri fisiko deskribatuko ditugu. Esate baterako:

- ***Erreprodukzio-abiadura***. Binilozko, arbelezko eta tankerako diskoetan erabiltzen da, eta bira minutuko da adierazpen-unitatea (78, 45, 33 edo 16 bira minutuko).
- ***Soinu-kanalen kopurua***. Disko eta kaseteetarako (mono, estereo, kuadrifonia).
- ***Grabazio mota***. CDetarako: analogikoa edo digitala. Aukeran, eskura denean, "SPARS" kodearekin kalifika daiteke [IASA 5.C.1.1]. Soinu-industriaren hiru kode horiek maiz CDetan agertzen dira, eta modu kodetuan zera adierazten dute:

| | |
|---|---|
| **A** | Analogikoa |
| **X** | Ezezaguna |
| **D** | Digitala |

1) *Grabaketa*
2) *Nahasketak / prozesua*
3) *Erreprodukzioa*

Lehendabiziko hizkiak hasierako grabaketa mota adierazten du: (A analogikoa, D digitala)

Bigarren hizkiak nahasketan baliatutako grabaketa mota adierazten du: (A analogikoa, D digitala)

Hirugarren hizkiak masterizazioa adierazten du: D bitarteko digitalerako, eta A bitarteko analogikorako (kasetea, adibidez).

**AAD** = grabaketa eta nahasketa/edizioa, analogikoak; erreprodukzioa, digitala

**ADD** = grabaketa, analogikoa; nahasketa/edizioa eta erreprodukzioa, digitalak

**DDD** = grabaketa, nahasketa/edizioa eta erreprodukzioa, digitalak

| Adibideak: |
|---|
| **T300 ## $a**1 disco (53 min) : **$b**33 rpm<br>**T300 ## $a**1 disco (53 min) : **$b**33 rpm, estéreo<br>**T300 ## $a**1 disco (CD-DA) (75 min) : **$b**digital AAD + 1 folleto (4 p. ; 12 cm)<br>**T300 ## $a**1 disco (CD-DA) (45 min) : **$b**digital, DDD<br>**T300 ## $a**1 disco (SA-CD) (77 min) : **$b**estéreo, multicanal ; **$c**12 cm + 1 folleto (65 p.) |

**$c - Neurriak**

Disko eta zinta magnetofonikoetan, diametroaren neurria zentimetrotan ipiniko da. Zintaren zabalera normalizatua ez denean bakarrik emango da milimetrotan (hau da, 6,3 mm zinta magnetofonikoetarako eta 3,8 mm kaseteetarako).

| Adibideak: |
|---|
| **T300 ## $a**1 disco (42 min) **: $b**33 rpm, estéreo ; **$c**18 cm<br>**T300 ## $a**1 disko (CD-DA) (33 min) ; **$c**12 cm |

**$e - Atxikitako materiala (EE)**

Atxikitako materialaren deskribapen fisikoa parentesi artean, iraupena eta neurriak.

| Adibideak: |
|---|
| *DVDa daramaten CDen kasuan deskribapen fisiko nagusiaren aipua soinu-grabazioari dagokio, eta bideograbazioari buruzko aipua material osagarria izango da:*<br>**T300 ## $a**2 discos (CD-DA) (45, 40 min) **+$e**1 disco (DVD-vídeo)(86 min)<br><br>*Aipatu materialari buruzko informazio gehiago sartzeko T500 oharra egingo da:*<br>**T300 ## $a**2 discos (98 min) : **$b**33 rpm, estéreo +**$e**1 folleto (27 p. ; 11 cm)<br>**T500 ## $a**Folleto con letra de las canciones |

# T4XX SERIE AIPUETARAKO EREMUAK

Serieen kasuan, **T490** etiketa erabiliko dugu, eta **T830 edo T800** eremuan bigarren mailako sarrera egingo da.

Serie-eremuaren area aztertzeko, honako kontsiderazio hauek hartu behar dira kontuan aldez aurretik:

- Ohikoa izaten da Bach edizioa, Mozart edizioa eta tankerako aipamenak dituzten fonogramak topatzea, eta ez diote edizioaren aipamenei erreferentzia egiten, baizik eta serieari.
- Batzuetan zaila da zehaztea disko batean izen jakin bat seriea den edota markaren azpibanaketa bat (esate baterako, "***Ace of Diamonds***" Decca Record Company etxearen azpibanaketa bat da, hau da, **T028** eremuan zenbakiarekin batera joango den azpieremu bat; Walt Disney Productions etxearen "***Disney storyteller***", berriz, serie bat da).
- Katalogatze-arauek ez dute kontu hau aipatzen, baina AACR 6.4D3 honela mintzo da: "*Zalantzarik izanez gero, izena serie gisa tratatu*".

# T490 SERIEAREN AIPUA (E)

Seriearen izenburu baterako seriearen aipua.

**T490 EREMUA BETETZEN DEN GUZTIETAN, DAGOKION SERIEAREN SARRERA GEHIGARRIA (T800 EDO T830) JARRI BEHARKO DA.**

***Adierazleak***

| | |
|---|---|
| **Lehena** | **0** ***Berreskuratze gabeko seriea.*** Ez da behar seriearen sarrera gehigarririk.<br>**1** ***Berreskuratzea duen seriea.*** Seriearen sarrera gehigarria ematen duen **T800** edo **T830** eremu bat dagoela adierazten du. *(Lehenetsita)* |
| **Bigarrena** | ***# Zehaztugabea*** |

***Azpieremuko kodeak***

| | |
|---|---|
| **$a** | ***Seriearen aipua (E)*** |
| **$v** | ***Liburukiaren edo sekuentziaren izendapena (E)*** |
| **$x** | ***Argitalpen Seriatuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua (E)*** |

Eremu hori betetzeko orduan, zenbait jarraibide hartu beharko dira kontuan:

- Seriearen izena iturrian agertzen den bezala transkribatuko da, baina zenbait termino ezabatuta, hala nola bilduma edo seriea, sarrera-balio huts gisa erabiltzen direnean. Hitzok ezabatu ahal izateko, lau baldintza ezartzen dira:
    1. terminook izenburuaren gainerakoek duten tipografian ez beste batean ageri badira;
    2. lerro ezberdinetan baldin badaude;
    3. kolore ezberdina baldin badute;
    4. hitzen eta izenburuaren gainerakoen artean bi puntuak tartekatzen badira.

- Esan dezakegu etendura bat ageri denean, tipografikoa zein gramatikala, sarrera-zati hori ezabatu egingo dela.

- Seriea minuskulaz transkribatuko da beti, salbu eta lehenengo hitzaren lehenengo letra edota izen propioak agertzen direnean.

| Adibidea: |
|---|
| **T490 1# $a**Música del siglo XX |

- **Egilea-seriea** tankerako serieetan *(egile beraren bildumak)*, egile-seriearen **T800** atera beharko da, eta ez **T830**.

| Adibideak: |
| --- |
| **T490 1# $a**Hermann Scherchen edition<br>**T800 1# $a**Scherchen, Hermann (**$d**1891-1966). **$t**Hermann Scherchen edition (Millennium Classics) |

Ik. Inprimaki modernoak

# T5XX OHARREN EREMUAK – INFORMAZIO OROKORRA

- **T5XX** eremu guztiak errepikagarriak dira.
- Ohar gehienetan, adierazleak ez daude zehaztuta (##), salbu eta ez den aurkakoa adierazten.
- Deskribapenaren gainerakoekin konparatuta, izaera osagarria dute oharrek. Ematen duten informazioa ezin da gainerako eremuetan sartu, baina beharrezkoa edo komenigarria da, dokumentua behar bezala identifikatzeko.
- Ez da egingo aleen ezaugarri partikularrei buruzko oharrik (adibidez, "*eskainia*", "*azalik gabeko alea*"...). Datu horiek aleen erregistroaren "Testua" eremuan adieraziko dira.

Ahal dela, ondoren deskribatutako oharrak beteko dira deskribapen bibliografikoan, ohikoenak baitira.

# T500 OHAR OROKORRA (E)

Informazio orokorra, zeinarentzat ez baita T5XX ohar-eremu espezifikorik zehaztu.

***Adierazleak***

**Lehena** ***# Zehaztugabea***

**Bigarrena** ***# Zehaztugabea***

***Azpieremuko kodeak***

**$a** ***Ohar orokorra (EE)***

Jarraian, **T500** eremuan sarri erabiltzen diren zenbait ohar zerrendatuko ditugu:

- Dokumentuaren izaerari erreferentzia egiten dioten oharrak

| Adibideak: |
| --- |
| **T500 ## $a**Homenaje nacional al maestro Quiroga<br><br>**T500 ## $a**Folleto con letra de las canciones<br><br>**T500 ## $a**Liburuxka abestien hitzekin |

- Obrarekin lotutako gertakariei erreferentzia egiten dieten oharrak, ez grabazioari (**T518** ohar batekin joango lirateke).

| Adibidea: |
| --- |
| **T500 ## $a**Obra estrenada en el Festival del Cante de las Minas de 1997 |

# T505 EDUKI FORMATUDUNARI BURUZKO OHARRA (E)

Idazlan independenteen izenburuak, dokumentu baten zatiak edota aurkibidea jaso ditzake. Era berean, erantzukizunaren aipuak, liburukien zenbakiak eta bestelako sekuentzia-izendapenak ere barnean hartu ditzake.

Eremu honetan eduki-ohar normalizatu bat jasoko da. Edukiari buruzko informazioa lan osoari dagokion mailan kodetuko da.

***Adierazleak***

**Lehena**

***0 Eduki osoa.*** Dokumentuaren eduki osoa adierazten du. (Lehenetsita)

***1 Eduki osagabea***. Edukia osatzeke dago. Edukia osatu gabe dago, idazlanaren unitate fisiko guztiak argitaratu ez direlako edo katalogazio-agentziak eskuratu ez dituelako.

***2 Zati baten edukia*** Lan osoa izan arren haren zati aukeratu batzuk besterik ez direla deskribatzen adierazten du.

***8 Ez du lotura bidez bistaratzekorik sortzen***

**Bigarrena**

***# Oinarrizkoa.*** Informazio guztia **$a** azpieremuan jasotzen da.

***0 Osoa.*** Edukiari buruzko oharrean zehaztutako zatien edukia osoa dela adierazten du. (Lehenetsita)

***Azpieremuko kodeak***

**$g** ***Askotariko informazioa (E)***. Liburukia, zatia, orrialde-zenbaketa edota datak adieraziko dira, iturrian ageri diren bezala.

**$r** ***Erantzukizunaren aipua (E)***

**$t** ***Izenburua (E)***

*Lotura bidezko bistaratzea*

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, hau da, ez da beharrezkoa hitzez-hitzezkoa idaztea, programak automatikoki sortuko baitu dagokion katalogazio-hizkuntzan, baldin eta **T040** eremuko **$b** behar bezala betetzen bada.

| ***1 adie.*** | ***Castellano*** | ***Euskera*** |
|---|---|---|
| 0 | Contiene: | Edukia: |
| 1 | Contenido incompleto: | Eduki osagabea: |
| 2 | Contenido parcial: | Eduki partziala: |

Ohar hori kasu hauetan erabiliko da nagusiki:

- zenbait liburukitan dauden eta izenburu orokorra eta gai komuna duten idazlanetan; edo
- beste izenburu independente batzuk biltzen dituzten izenburu orokorra duten idazlanetan.

Sistemak automatikoki jasoko du agindutako puntuazioa; hortaz, ez da beharrezkoa idaztea.

Zenbaketa dokumentuan (liburuki, disko eta abarretan) ageri den bezala egingo da, argitalpenaren hizkuntzan, eta katalogazio-arauetako VIII. gehigarrian ezarritako laburtzapenak erabilita.

**$g - Askotariko informazioa**

Idazlanaren liburukia edo zatia, argitalpenean ageri den bezala.

**$t - Izenburua**

Eduki osoari buruzko oharrean erabilitako izenburua. Bilatu egin daitekeenez, ez da beharrezkoa izenburuaren bigarren mailako sarrerarik egitea (T740).

**$r – Erantzukizunaren aipua**

**$r** azpieremuak barnean hartzen du edukiari buruzko oharrean jasotako zatiaren erantzukizunaren aipua. Hiru baino gehiago ez direnean, autoreen bigarren mailako erregistroak aterako dira, euskal eremuko autoreak direnean izan ezik; kasu horretan, interesgarriak diren guztien bigarren mailako erregistroak egingo dira, dela bertakoak izateagatik, dela garrantzi profesionalagatik.

Soinu-grabazioen kasuan, dokumentu guztien edukiaren oharra egingo da, beti deskribapenerako azpieremuak erabilita:

1. Bakarlarien, taldeen eta abarren albumen kasuan;

| Adibidea: |
|---|
| **T245 10 $a**Dile al sol [**$h**Grabación sonora] /**$c**La oreja de Van Gogh<br>**T505 00 $t**El 28 **; $t**Cuéntame al oído **; $t**Pesadilla **; $t**La estrella y la luna **; $t**Viejo cuento **; $t**Dos cristales **; $t**Lloran piedras **; $t**Qué puedo pedir **; $t**Dile al sol **; $t**El libro **; $t**La carta **; $t**Soñaré |

2. Hainbat egileren eta/edo interpreteren konposizioen kasuan, izenburu kolektiboarekin batera editatuak;

| Adibideak: |
|---|
| **T245 10 $a**Recordando a Donostia y Guridi [**$h**Grabación sonora]**$b** : 1886-1986 / **$c**[intérprete] Jorge Robaina<br>**T505 00 $t**Preludios vascos **/$r**P. Donostia. **$t**Cantos populares vascos **; $t**Ocho apuntes para piano **; $t**Tres danzas viejas **/$r**J. Guridi |

**T245 00 $a**Grandes canciones del pop español [**$h**Grabación sonora]
**T505 00 $g**Disco 1. **$t**Venezia **/$r**Hombres G. **$t**Dr. Spock **/$r**Alaska y Los Pegamoides. **$t**Medicina nuclear **/$r**Los Nikis**.** **$t**Velocidad **/$r**Metal y Ca. **$t**La estufita **/$r**Paco Clavel. **$t**De máscaras y enigmas **/$r**Alphaville. **$t**Nena, no hay nada mejor /**$r**Domingo y Los Cítricos

3. Artista baten edo talde baten gai edo konposizio nagusiak biltzen dituzten soinu-grabazioen kasuan;

Adibidea:

**T100 1# $a**White, Barry (**$d**1944-2003)
**T245 14 $a**The ultimate collection [**$h**Grabación sonora] / **$c**Barry White
**T505 00 $t**You´re the first, the last, my everything **; $t**Can´t get enough of your love babe **; $t**Let the music play **; $t**Don´t make me wait too long **; $t**I´ll do for you anything you want me to **; $t**Sho´ you right **; $t**What am I gonna do with you **;$t**Come on **; $t**I´m gonna love you just a little more babe **; $t**Never, never gonna give you up ;**$t**Baby we better try and get it together

4. Hainbat unitate fisikotan dauden dokumentuen kasuan, **$g** erabiliko dugu dokumentuaren zatiak sartzeko. Kasu hori bera erabiliko dugu DVDekin batera dauden CDetan.

Adibideak:

**T110 2# $a**Queen
**T245 10 $a**Queen live at Wembley '86 [**$h**Grabación sonora]
**T300 ## $a**2 discos (CD-DA) (110 min)
**T505 00 $g**Disc one**.** **$t**One vision **; $t**Tie your mother down **; $t**In the lapo of the gods ;**$t**Seven seas of Rhye **; $t**Tear it up **; $t**A kind of magic ; **$t**Under pressure **; $t**Another one bites the dust **; $t**Who wants to live for ever **; $t**I want to break free **; $t**Impromptu **$g**Disc two. **$t**…

**T110 2# $a**Radio Futura
**T245 10 $a**Paisajes eléctricos [**$h**Grabación sonora]**$b** : lo mejor de Radio Futura
**T300 ## $a**2 discos (CD-DA) (50, 55 min) + **$e**1 disco (DVD-vídeo) (46 min)
**T505 00 $g**CD1**.** **$t**La estatua del jardín botánico **; $t**Oscuro affaire **; $t**Escuela de calor ; **$t**El viento de África **;$t**No tocarte **; $t**En alas de la mentira **; $t**Han caído los dos **; $t**La vida en la frontera **; $t**La negra flor **; $t**A cara o cruz **; $t**El canto del gallo **$g**CD2. **$t**Annabel Lee ; **$t**Luna de agosto **; $t**Paseo con la negra flor

5. Hainbat egilerenak diren eta hainbat artistak interpretatzen dituzten obren kasuan, **$r** azpieremuan piezaren egilea markatuko dugu, eta, aukeran, parentesi artean, interpreteak.

| Adibidea: |
|---|
| **T505 00 $a**CD 1. **$t**Symphony no. 1, op. 21 /**$r**Bramhs **(Orquesta Bratislava) $g**CD 2. **$t**Symphony no. 5 in C Minor, op. 67 / **$r**Ludwig van Beethoven |

Eremu horrek luzera-muga dauka:
- Eremuko esaldi kopurua: 255
- Hitz kopurua esaldiko: 255
- Eremuaren neurria: 65.000 karaktere.

Etiketa hori 255 aldiz errepika daiteke.

# T511 PARTE-HARTZAILEEI ETA ANTZEZLEEI BURUZKO OHARRA (E)

Parte-hartzaileei, interpreteei, narratzaileei, aurkezleei eta aktoreei buruzko informazioa. Eremu horretan, konpositoreen, interpreteen, narratzaileen eta abarren izenak ipiniko dira, **T245** eremuaren **$c** azpieremuan ipini ez direnak.

***Adierazleak***

| | |
|---|---|
| **Lehena** | **0 Ez du lotura bidez bistaratzekorik sortzen**<br>**1 *Interpreteak.*** (Lehenetsita) |
| **Bigarrena** | **# *Zehaztugabea*** |

***Azpieremuko kodeak***

**$a** ***Parte-hartzaileei edo antzezleei buruzko oharra (EE)***

*Lotura bidez bistaratzekoa*

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, hau da, ez da beharrezkoa hitzez-hitzezkoa idaztea, programak automatikoki sortuko baitu dagokion katalogazio-hizkuntzan, baldin eta **T040** eremuko **$b** behar bezala betetzen bada.

| ***Gaztelania*** | ***Euskara*** |
|---|---|
| Intérpretes: | Interpretatzaileak: |

Funtzio berdina betetzen duten parte-hartzaileak **koma zuriune** bidez bereiziko dira, eta funtzio ezberdina dutenak, berriz, **zuriune puntu-koma zuriune** bidez: ahotsak, narratzailea, zuzendaria eta abar.

Adibideak:

*MARC bistaratzea:*

**T511 1# $a**Orquesta Filarmónica de Gran Canaria, Orquesta de Pulso y Pua de la Universidad Complutense de Madrid

*ISBD bistaratzea:*

Intérpretes: Orquesta Filarmónica de Gran Canaria, Orquesta de Pulso y Pua

*MARC bistaratzea:*

**T511 1# $a**Dawn Upsshaw, soprano ; London Sinfonietta ; David Zinman, director

*ISBD bistaratzea:*

Intérpretes: Dawn Upsshaw, soprano ; London Sinfonietta ; David Zinman, director

*MARC bistaratzea:*

**T511 1# $a**Iban, batería ; Arkaitz, ahotsa ; Beñat, gitarra ; Ekain, baxua

*ISBD bistaratzea:*

Interpretatzaileak: Iban, batería ; Arkaitz, ahotsa ; Beñat, gitarra ; Ekain, baxua

| |
|---|
| *MARC bistaratzea:* |
| **T511 0# $a**Narrador: Francisco Rabal |
| *ISBD bistaratzea:* |
| Narrador: Francisco Rabal |

# T518 GERTAKARI BATEN DATARI/ORDUARI ETA LEKUARI BURUZKO OHARRA (E)

Gertakari bat sortu, hartu, grabatu, filmatu, interpretatu edo emititu zen data/ordua edota lekua jasotzen duen oharra. Oro har, gertakari baten aitzakian egindako zuzeneko grabazioen kasuan erabiltzen da, baina informazio mota hori diskoan ageri denean ere erabil daiteke.

| ***Adierazleak*** | |
|---|---|
| **Lehena** | ***# Zehaztugabea*** |
| **Bigarrena** | ***# Zehaztugabea*** |
| ***Azpieremuko kodeak*** | |
| **$a** | ***Gertakari baten datari/orduari eta lekuari buruzko oharra (EE)*** |

“**Grabado en**” edo “**(lekuan) grabatu da”** idatziko da, bi punturik gabe eta tokia eta data zehaztuta daudela, ezagutzen badira, edota “**Grabación en directo**” edo “…**zuzenean grabatuta** (lekuan)**”**.

| Adibideak: |
|---|
| **T518 ## $a**Astigarragako Oialume dantzalekuan grabatua 1997ko azaroaren 1ean<br>**T518 ## $a**Zuzenean grabatua “Se llama copla” ikuskizunen biran<br><br>**T518 ## $a**DVDa eta CDa Santana 27 aretoan grabatu da 2015eko urtarrilaren 24an<br><br>**T518 ## $a**2014ko abuztuaren 20an César Ibarretxe soinu ingeniariak zuzenean grabatuta Bilboko Aste Nagusiaren Abandoibarrako eszenatokian |

## T530 ESKURAGARRI DAUDEN BESTELAKO EUSKARRI FISIKOEI BURUZKO OHARRA (E)

Deskribatutako dokumentua eskuragarri dagoen beste euskarri fisiko bati buruzko informazioa. Hainbat formatutan argitaratutako dokumentuen kasuan erabiliko da: kasetea, disko trinkoa, Internet, eta abar.

***Adierazleak***

**Lehena** ***# Zehaztugabea***

**Bigarrena** ***# Zehaztugabea***

***Azpieremuko kodeak***

**$a** ***Eskuragarri dauden bestelako euskarri fisikoei buruzko oharra (EE)***

Oharra aldatu egingo da eskura dagoen euskarri gehigarriaren arabera:

a) Online eskuragarri. Argitalpenaren eduki osoa Internet bidez eskura badaiteke, **T856** eremua bete behar da.

“***Disponible en Internet***” edo “***Interneten***” oharrak erabiliko dira, eta **T856** eremuan zehaztuko dugu zer zati dagoen/dauden eskuragarri.

Adibideak:

**T245 10 $a**Winter greets you [**$h**Grabación sonora] / **$c**The Great Barrier
**T530 ## $a**Disponible en Internet
**T856 #0 $u**https://thegreatbarrier.badcamp.com **$z**Internet (Publicación)

b) Beste euskarri fisiko batzuetan eskuragarri (kasetea, disko trinkoa, eta abar). Kasu horretan, **T776** eremua bete beharko da, baliabidea modu independentean katalogatuko da eta bi erregistroak lotuko dira.

Adibidea:

**T110 2# $a**Pantxoa eta Peio
**T245 10 $a**Lapurtar koblalariak [**$h**Soinu-grabazioa] /**$c**Pantxoa ta Peio
**T260 ## $a**Donostia-San Sebastián : **$b**Elkar, **$c**2002
**T300 ## $a**1 disko (CD-DA) (ca. 40 min)
**T505 00 $t**Agur munduari! ; **$t**Egun on aitatxi-amatxi ; **$t**Xori kaiolatik ihes joan dena ; **$t**Nere xorteko laguneri ; **$t**Berriketariak ; **$t**Aurten omen
**T530 ## $a**Kasetean
**T655 #4 $a**Herri-musika-**$z**Euskal Herria
**T655 #1 $a**Músicas tradicionales-**$z**Euskal Herria
**T776 0# $t**Lapurtar koblalariak **(Kasete)**

| ***Gaztelania*** | ***Euskara*** |
| --- | --- |
| Disponible en Internet | Interneten |
| Disponible en disco (CD-DA) | Disko (CD-DA)n |
| Disponible en casete | Kasetean |

# T538 SISTEMAREN EZAUGARRIEI BURUZKO OHARRA (E)

Dokumentu bati buruzko informazio teknikoa; esate baterako, grabaketaren dentsitatea. Soinu- eta audio-grabazioen kasuan, izen komertzialaren edo grabazio-sistemaren, modulazio-frekuentziaren eta bereizmenaren lerro-kopuruaren inguruko informazioa ere jaso daiteke.

***Adierazleak***

| | |
|---|---|
| **Lehena** | **# *Zehaztugabea*** |
| **Bigarrena** | **#** ***Zehaztugabea.*** (Lehenetsita)<br>**1 *Sistemaren ezaugarriak***<br>**2 *Sartzeko modua*** |

***Azpieremuko kodeak***

**$a** ***Sistemaren ezaugarriei buruzko oharra (EE)***

*Lotura bidez bistaratzekoa*
Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, hau da, ez da beharrezkoa hitzez-hitzezkoa idaztea, programak automatikoki sortuko baitu dagokion katalogazio-hizkuntzan, baldin eta **T040** eremuko **$b** behar bezala betetzen bada.

| ***2 adie.*** | ***Castellano*** | ***Euskera*** |
|---|---|---|
| 1 | Detalles del sistema: | Sistemaren ezaugarriak: |
| 2 | Modo de acceso: | Sartzeko modua: |

Adibidea:

**T538 ## $a**Diskoaren ezaugarriak: Aurpegi bateko diskoa, dentsitate bikoitza

# T540 ERABILERA- ETA ERREPRODUKZIO-BALDINTZEI BURUZKO OHARRA (E)

Behin materiala eskuratuta horren erabilera zuzentzen duten baldintzak dira. Honako hauek biltzen ditu, baina ez da mugatzen soilik horretara: materiala erreproduzitzeko, erakusteko, moldatzeko, aipatzeko edo bestelakoetarako eskubidea murrizten duten copyright, filmen eskubide, salmenta-murriztapenak, eta abar.

***Adierazleak***

**Lehena** ***# Zehaztugabea***

**Bigarrena** ***# Zehaztugabea***

***Azpieremuko kodeak***

**$a** ***Erabilera- eta erreprodukzio-baldintzak (EE)***

| Adibidea: |
|---|
| **T540 ## $a**Licencia Creative Commons |

# T546 HIZKUNTZARI BURUZKO OHARRA (E)

Ohar horrek deskribatutako materialen edukia helarazteko erabilitako hizkuntza edo notazio-sistema adierazten du. Halaber, dokumentuan azaltzen diren alfabetoak, idazkerak edo bestelako ikurrak deskribatzeko ere erabiltzen da eremu hori.

***Adierazleak***

**Lehena** #
*Zehaztugabea*

**Bigarrena** #
*Zehaztugabea*

***Azpieremuko kodeak***

**$a** ***Hizkuntzari buruzko oharra (EE)***

Liburuxkako hizkuntza edo hizkuntzak T041 eremuko **$d** azpieremuan eta T546 oharrean ipiniko dira.

| Adibideak: |
|---|
| **T546 ## $a**Canciones en inglés y castellano<br>**T546 ## $a**Abestiak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez<br><br>**T546 ## $a**Folleto en inglés, francés y castellano |

# T594 IZENBURUARI ETA ERANTZUKIZUNAREN AIPUARI BURUZKO OHARRA (E)

Izenburuari eta erantzukizunaren aipuari buruzko informazioa biltzen du, informazio hori deskribapenerako garrantzitsua bada eta T245 eremuan jaso beharrekoa ez bada.

***Adierazleak***

**Lehena** **#**
***Zehaztugabea***

**Bigarrena** **#**
***Zehaztugabea***

***Azpieremuko kodeak***

**$a** ***Izenburuari eta erantzukizunaren aipuari buruzko oharra (EE)***

Bertan, ohar hauek transkribatuko dira:

- **Honen egokitzapena: …** Gainerako arauek egokitzapena egin den idazlanari buruzko daturik ematen ez badute, jatorrizko idazlanaren izenburu hautatuaren berri emateko erabiliko da ohar hori; halaber, jatorrizko egilea deskribapenaren gainerakoan agertzen ez bada, barraren ondoren jasoko da.
- **Izenburuaren aurretik:**
- **Jatorrizko izenburua:**
- **(X) hizkuntzatik itzulia.** Deskribatutako lana beste baten itzulpena denean baina jatorrizko izenburua zein den ezin denean jakin, dokumentuaren jatorrizko hizkuntza adierazten duen ohar hau idatziko da.
- **Izenburua gaztelaniaz:**
- **Liburuxkatik hartutako izenburua**
- **Estalkitik hartutako izenburua**

Adibidea:

**T594 ## $a**Título tomado del folleto
**T594 ## $a**Título tomado de la funda

**T594 ## $a**Liburuxkatik hartutako izenburua
**T594 ## $a**Azaletik hartutako izenburua

# T597 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMUARI BURUZKO OHARRA (E)

Deskribapen fisikoari buruz **T300** eremuan adierazi ez den informazioa.

***Adierazleak***

**Lehena** **#** ***Zehaztugabea***

**Bigarrena** **#** ***Zehaztugabea***

***Azpieremuko kodeak***

**$a** ***Deskribapen fisikoaren eremuari buruzko oharra (EE)***

**$a** azpieremuak deskribapen fisikoaren eremuari buruzko oharraren testua jasotzen du.

| Adibidea: |
|---|
| **T597 ## $a**Sonido Dolby<br><br>**T597 ## $a**Vinilo amarillo<br>**T597 ## $a**Vinilo cuadrado |

| ***Gaztelania*** | ***Euskara*** |
|---|---|
| Sonido Dolby | Dolby soinua |

# T6XX GAI-SARREREN EREMUAK – INFORMAZIO OROKORRA

**T6XX** eremuek gai-sarrerak eta -terminoak biltzen dituzte.
***(****Ik. Autoritateak****)***

**SOINU-ERREGISTRO MUSIKALETAN** (gehienak) T655 eremua erabiliko dugu beti, eskuliburu honen 2. eranskinean garatua.

**SOINU-ERREGISTRO EZ-MUSIKALETAN** dagokion gaiburua erabiliko da (**T6XX**). Musikak modu esanguratsuan esku hartzen ez duen soinu-grabazioak dira (esate baterako, txisteen grabaketak, obra errezitatuak, elkarrizketak...).

**Oinarrizko irizpideak:**

- Gai berri bat gehitu aurretik, AUTOn bilatu behar da, dagoeneko sortuta badago ere.
- Jarraian gaien bigarren mailako sarrera motak eta AUTOn duten elkarrekikotasuna jasoko dira:

| | CATA | AUTO |
|---|---|---|
| Pertsona-izena | T600 | T100 |
| Erakunde korporatiboaren izena | T610 | T110 |
| Biltzarraren izena | T611 | T111 |
| Izenburu hautatua | T630 | T130 |
| Gai-terminoa | T650 | T150 |
| Izen geografikoa | T651 | T151 |
| Generoa/forma | T655 | T155 |

Gai-sarrera gehigarri guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira. Bibliografia-erregistroan autoritate bat sartzeko orduan, dagokion gai elebiduna ere atzitu beharko dugu.




Adibideak:

**T130 0# $a**Lazarillo de Tormes
**T245 13 $a**La Vida de Lazarillo de Tormes y de sus fortunas y adversidades [**$h**Grabación sonora] / **$c**narrado por Francisco Rabal
**T655 #1 $a**Novela picaresca
**T655 #4 $a**Eleberri pikareskoa

**T100 10 $a**Borges, Jorge Luis (**$d**1899-1986)
**T245 10 $a**Diálogo con Borges [**$h**Grabación sonora] / **$c**[entrevista realizada por] Victoria Ocampo ; musicalización y dirección, Hugo Ditaranto
**T600 11 $a**Borges, Jorge Luis (**$d**1899-1986)-**$v**Entrevistas
**T600 14 $a**Borges, Jorge Luis (**$d**1899-1986)-**$v**Elkarrizketak

**T245 00 $a**Aprende inglés conmigo [**$h**Grabación sonora]
**T650 #1 $a**Lengua inglesa-**$v**Métodos
**T650 #4 $a**Ingelesa-**$v**Metodoak

**T110 2# $a**Governors
**T245 10 $a**Su garaian [**$h**Soinu-grabazioa] / **$c**Governors
**T655 #4 $a**Hard rocka
**T655 #1 $a**Hard rock

Ik. Inprimaki modernoak

# T600 MATERIAREN SARRERA GEHIGARRIA - PERTSONA-IZENA (E)

Gai-sarrera gehigarri gisa erabilitako pertsona-izena.

## Eremu hori autoritate bati lotuta dago

| Adierazleak | |
|---|---|
| **Lehena** | **0** ***Izena***<br>**1** ***Abizenak***<br>**3** ***Familia-izena*** |
| *Bigarrena* * | **1** ***Gaztelaniaz bakarrik balio duen autoritatea.*** Gaztelaniazko autoritateak<br>**4** ***Euskaraz bakarrik balio duen autoritatea.*** Euskarazko autoritateak<br>**7** ***Autoritate bakarra.*** Autoritate "bakarrak", hots, euskaraz eta gaztelaniaz berdin-berdinak direnak.<br>**0** ***Beste gaiburu batzuk*** |

*(Ik. Autoritateak)*

Gai-sarrera gehigarri guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira. Bibliografia-erregistroan autoritate bat sartzeko orduan, dagokion gai elebiduna ere atzitu beharko dugu.

| Adibidea: |
|---|
| **T600 11 $a**Borges, Jorge Luis (**$d**1899-1986)-**$v**Entrevistas<br>**T600 14 $a**Borges, Jorge Luis (**$d**1899-1986)-**$v**Elkarrizketak |

* Autoritateen katalogoan (AUTO), T1XX eremuen bigarren adierazlea beti da definitu gabea (#); horregatik, katalogatzaileak eskuz egin beharko du erregistro bibliografikoaren (CATA) bigarren adierazlearen aldaketa, 1, 4 edo 7 jarrita.

# T650 GAI-SARRERA GEHIGARRIA – GAI-TERMINOA (E)

Gai-sarrera gehigarria, hasierako elementu gisa gai baten terminoa duena.

## Eremu hori autoritate bati lotuta dago

| ***Adierazleak*** | |
|---|---|
| **Lehena** | ***# Ez dago informaziorik.*** (Lehenetsita)<br>**0** ***Ez dago zehaztuta.*** Gai-maila adierazi daiteke, baina ez dago zehaztuta.<br>**1** ***Nagusia.*** Dokumentuaren gai edo xede nagusia. |
| *Bigarrena* * | **1** ***Gaztelaniaz bakarrik balio duen autoritatea.*** Gaztelaniazko autoritateak<br>**4** ***Euskaraz bakarrik balio duen autoritatea.*** Euskarazko autoritateak<br>**7** ***Autoritate bakarra.*** Autoritate "bakarrak", hots, euskaraz eta gaztelaniaz berdin-berdinak direnak.<br>**0** ***Beste gaiburu batzuk*** |

*(Ik. Autoritateak*

Gai-sarrera gehigarri guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira. Bibliografia-erregistroan autoritate bat sartzeko orduan, dagokion gai elebiduna ere jaso beharko dugu, beste T650 eremu batean.

| Adibideak: |
|---|
| **T650 #4 $a**Audioliburuak<br>**T650 #1 $a**Audiolibros |

* Autoritateen katalogoan (AUTO), T1XX eremuen bigarren adierazlea beti da definitu gabea (#); horregatik, katalogatzaileak eskuz egin beharko du erregistro bibliografikoaren (CATA) bigarren adierazlearen aldaketa, 1, 4 edo 7 jarrita.

# T655 INDEXATZEKO TERMINOA – GENEROA / FORMA (E)

T008 etiketako 18-19 posizioetan deskribatutako materialen genero, forma edota ezaugarri fisikoak jasotzen dituzten terminoak dira. Gure kasuan, Liburutegi Zerbitzuak osatutako generoen zerrenda baliatuko dugu (2. eranskina).

**Eremu hori autoritate bati lotuta dago**

| *Adierazleak* | |
|---|---|
| **Lehena** | **# *Oinarrizkoa***<br>**0 *Fazetakakoa*** |
| *Bigarrena* * | **1 *Gaztelaniaz bakarrik balio duen autoritatea.*** Gaztelaniazko autoritateak<br>**4 *Euskaraz bakarrik balio duen autoritatea.*** Euskarazko autoritateak<br>**7 *Autoritate bakarra.*** Autoritate "bakarrak", hots, euskaraz eta gaztelaniaz berdin-berdinak direnak. |

*Ik. Autoritateak*

Gai-sarrera gehigarri guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira. Bibliografia-erregistroan autoritate bat sartzeko orduan, dagokion gai elebiduna ere jaso beharko dugu, beste T655 eremu batean.

| Adibideak: |
|---|
| **T655 #1 $a**Blues<br>**T655 #4 $a**Bluesa<br><br>**T655 #4 $a**Jazza<br>**T655 #1 $a**Jazz<br><br>**T655 #1 $a**Músicas tradicionales-**$z**Senegal<br>**T655 #4 $a**Herri-musika-**$z**Senegal |

* Autoritateen katalogoan (AUTO), T1XX eremuen bigarren adierazlea beti da definitu gabea (#); horregatik, katalogatzaileak eskuz egin beharko du erregistro bibliografikoaren (CATA) bigarren adierazlearen aldaketa, 1, 4 edo 7 jarrita.

# T7XX SARRERA GEHIGARRIAK – INFORMAZIO OROKORRA

Idazlan batekin nola edo hala erlazionatuta dauden izenen eta/edo izenburuen bitartez eratutako sarrera gehigarriak dira, bibliografia-erregistro batera sartzea ahalbidetzeko helburuarekin.

## Eremu horiek autoritate bati lotuta daude

(Ik. Inprimaki modernoak)

Hainbat alderdi izan beharko ditugu kontuan:

1. goiburu nagusian ageri ez diren interpreteen, konpositoreen eta egileen bigarren mailako sarrerak egingo dira, gehienez ere 3;
2. euskal interpreteen, konpositoreen eta egileen kasuan, bigarren mailako sarrerak ipiniko dira, gehienez ere hiru, salbu eta euskal eremuko egileak direnean eta interesa dutenean, dela bertakoak izateagatik, dela garrantzi profesionalagatik.

Eremuok betetzeko orduan, jarraibide hauek hartuko dira kontuan:

- Katalogazio-arauek ezarritakoaren arabera esleituko dira;
- Arreta berezia jarri behar da bigarren adierazlean, bigarren mailako sarrera sortze aldera;
- Bigarren mailako sarrerak sortuko dira kasu hauetan: egilekideak, edizioaren apailatzailek, hitzaurre-egileak, erakundeak, itzultzaileak eta ilustratzaileak; baldin eta informazio-iturri nagusian agertzen badira edota katalogazio-zentroarentzat garrantzitsuak badira;
- Ez da funtzioa aipatuko (konpositorea, argitaratzailea, eta abar).

CATA eta AUTO eremuen arteko elkarrekikotasunak honako hauek dira:

| | **CATA** | **AUTO** |
|---|---|---|
| *Pertsona-izena* | T700 | T100 |
| *Erakundearen izena* | T710 | T110 |
| *Biltzarraren izena* | T711 | T111 |
| *Izenburu hautatua* | T730 | T130 |

Sarrera gehigarri batzuk euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira. Kasu horretan, bibliografia-erregistroan autoritate bat sartzeko orduan, dagokion autoritate elebiduna ere atzitu beharko dugu, T9XX eremu batean.


http://www.katalogoak.euskadi.net/cgi-bin_q81a/abnetcl/X8396/IDd34761c5/NT95?ACC=700&TB=1100&ID
AUTE
kultura euskadi
Zehatza
Kontsulta
Bilatu
Autoritatea
«a»Euskadi. «b»Antzerti Zerbitzua
– < «a»Euskadi. «b»Kultura Saila. «b»Antzerti Zerbitzua
– < «a»Euskadi. «b»Antzerti Serbitzua
– < «a»Euskadi. «b»Kultura Saila. «b»Antzerti Serbitzua
– = «a»Euskadi. «b»Servicio de Arte Dramático«ZZ0073327»
«a»Euskadi. «b»Centro de Patrimonio Cultural Vasco
– = «a»Euskadi. «b»Euskal Kultura Ondarearen Zentroa«ZZ0074935»
«a»Euskadi. «b»Departamento de Cultura
– < «a»País Vasco. «b»Departamento de Cultura
– << «w»b «ZZ_»«a»Euskadi. «b»Departamento de Educación y Cultura«ZZ007...
– << «w»b «ZZ_»«a»Euskadi. «b»Departamento de Cultura y Turismo«ZZ00692...
– = «a»Euskadi. «b»Kultura Saila«ZZ0069215»

# T700 SARRERA GEHIGARRIA – PERTSONA IZENA (E)

Eremu horretan bigarren mailako sarrera gisa erabilitako pertsona-izen bat jasoko da.

**Eremu hori autoritate bati lotuta dago**

| ***Adierazleak*** | |
|---|---|
| **Lehena** | **0 *Izena.*** Izen berezi bat edo hurrenkera zuzenean jarritako hitzez, inizialez eta abarrez osatutako izen bat da.<br>**1 *Abizena(k)*** Abizen sinplea edo konposatua, alderantzizko hurrenkeran.<br>**3 *Familia-izena.*** Familia, klan, dinastia, etxe edo halako beste talde bat izendatzen du, zuzenean edo alderantziz. |
| **Bigarrena** | ***# Ez dago informaziorik.*** (Lehenetsita)<br>**2 *Sarrera analitikoa.*** Dokumentuak bigarren mailako goiburuan jasotako idazlana barruan hartzen duela adierazten du. |

*(Ik. Autoritateak*

Pertsona-izenaren sarrera gehigarri batzuk euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira. Kasu horretan, bibliografia-erregistroan autoritate bat sartzeko orduan, dagokion pertsonaren izen elebiduna ere atzitu beharko dugu, T910 eremu batean.

| Adibideak: |
|---|
| **T700 0# $a**Joan Gurutzekoa, **$c**Santua (**$d**1542-1591)<br>**T700 0# $a**Joan Gurutzekoa, **$c**Santo (**$d**1542-1591)<br><br>**T700 1# $a**Beethoven, Ludwig van (**$d**1770-1827) |

# T710 SARRERA GEHIGARRIA – ERAKUNDEAREN IZENA (E)

Sarrera gehigarria, hasierako elementu gisa erakunde baten izena duena.

**Eremu hori autoritate bati lotuta dago**

| ***Adierazleak*** | |
|---|---|
| **Lehena** | **0** ***Izena alderantzizko hurrenkeran***<br>**1** ***Jurisdikzioaren izena.*** Sarrera-elementua izen jurisdikzional bat da.<br>**2** ***Izena hurrenkera zuzenean*** |
| **Bigarrena** | **#** ***Ez dago informaziorik.*** (Lehenetsita)<br>**2** ***Sarrera analitikoa.*** Dokumentuak bigarren mailako goiburuan jasotako idazlana barruan hartzen duela adierazten du. |

*(Ik. Autoritateak)*

Erakundeen izenaren sarrera gehigarri batzuk euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira. Kasu horretan, bibliografia-erregistroan autoritate bat sartzeko orduan, dagokion erakundearen izen elebiduna ere atzitu beharko dugu, T911 eremu batean.

| Adibideak: |
|---|
| **T710 2# $a**Opera Lagunen Bilboko Elkartea<br>**T911 2# $a**Asociación Bilbaína de Amigos de la Ópera<br><br>**T710 2# $a**Orfeón Donostiarra<br>**T911 2# $a**Donostiako Orfeoia |

# T711 SARRERA GEHIGARRIA - BILTZAR-IZENA (E)

Sarrera gehigarria, hasierako elementu gisa biltzar baten izena duena.

**Eremu hori autoritate bati lotuta dago**

| *Adierazleak* | |
|---|---|
| **Lehena** | **0** ***Izena alderantzizko hurrenkeran***<br>**2** ***Izena hurrenkera zuzenean*** |
| **Bigarrena** | ***# Ez dago informaziorik***<br>**2** ***Sarrera analitikoa.*** Dokumentuak sarrera gehigarrian jasotako idazlana barruan hartzen duela adierazten du. |

*(Ik. Autoritateak)*

Biltzarraren izenaren sarrera gehigarri batzuk euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira. Kasu horretan, bibliografia-erregistroan autoritate bat sartzeko orduan, dagokion biltzarraren izen elebiduna ere atzitu beharko dugu, T912 eremu batean.

| Adibideak: |
|---|
| **T711 2# $a**Bayreuther Festspiele (**$d**1962)<br><br>**T111 2# $a**Temporada de Ópera (**$n**52ª. **$d**2003-2004. **$c**Bilbao)<br>**T711 2# $a**Opera Denboraldia (**$n**52.a. **$d**2003-2004. **$c**Bilbo) |

# T730 SARRERA GEHIGARRIA – IZENBURU HAUTATUA (E)

Izenburu hautatu bat da, hau da, autoritateen fitxategi edo zerrenda batean kontrolatutako izenburu erlazionatu edo analitiko bat, eta sarrera gehigarri gisa erabiltzen da.

**Eremu hori autoritate bati lotuta dago**

| ***Adierazleak*** | |
|---|---|
| **Lehena** | ***0 – 9 Alfabetoaren arabera ordenatzeko kontuan hartzen ez diren karaktereen kopurua*** |
| **Bigarrena** | ***# Ez dago informaziorik***<br>***2 Sarrera analitikoa.*** Dokumentuak sarrera gehigarrian jasotako idazlana barruan hartzen duela adierazten du. |

*Ik. Autoritateak*

Kasu hauetan erabiliko da: bibliografia-erregistro batean sartutako bigarren, hirugarren eta gainerako idazlanek izenburu hautatua dutenean eta anonimoak direnean.

Izenburu hautatuaren sarrera gehigarri batzuk euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira. Kasu horretan, bibliografia-erregistroan autoritate bat sartzeko orduan, dagokion izenburu hautatu elebiduna ere atzitu beharko dugu, T913 eremu batean.

| Adibideak: |
|---|
| **T730 0# $a**Cancionero de Montecassino |

# T740 SARRERA GEHIGARRIA – IZENBURU ERLAZIONATU EDO ANALITIKO KONTROLATUGABEA (E)

Sarrera gehigarria, autoritateen fitxategi edo zerrenda baten bidez kontrolatu gabeko izenburu erlazionatu edo analitikoetarako.

***Adierazleak***

| | |
|---|---|
| **Lehena** | **0 – 9** ***Alfabetoaren arabera ordenatzeko kontuan hartzen ez diren karaktereen kopurua*** |
| **Bigarrena** | **#** ***Zehaztugabea.***<br>**2** ***Sarrera analitikoa.*** Dokumentuak sarrera gehigarrian jasotako idazlana barruan hartzen duela adierazten du. (Lehenetsita) |

***Azpieremuko kodeak***

**$a** ***Izenburu erlazionatua edo izenburu analitiko kontrolatugabea (EE)***

**$n** ***Lanaren zati edo atalaren zenbakia (E)***

**$p** ***Lanaren zati edo atalaren izena (E)***

Honako kasu hauetan erabiliko da:

1) *Egile beraren idazlanetarako:*
   - Idazlanak batera argitaratuta badaude izenburu orokorrik gabe, **T740** eremuan jasoko dira bigarren izenburua eta hurrengoak, hiru baino gehiago ez badira.
2) *Egile baten baino gehiagoren idazlanetarako:*
   - Idazlanak batera argitaratuta badaude izenburu orokorrik gabe, **T740** eremuan jasoko dira **T245** eremuan bigarren mailako sarrerarik egin ez zaien izenburuak. Egile guztiei bigarren mailako sarrera egingo zaie **T700** eremuan.

| Adibidea: |
|---|
| **T100 1# $a**Debussy, Claude (**$d**1862-1918)<br>**T245 10 $a**Children's Corner Suite [**$h**Grabación sonora] **$b** ; Petite Suite ; Danses sacrée et profane ; La Boite à Joujoux / **$c**Claude Debussy<br>**T740 02 $a**Petite Suite<br>**T740 02 $a**Danses sacrée et profane<br>**T740 32 $a**La Boite à Joujoux |

# T76X-T78X – LOTURA-EREMUAK – INFORMAZIO OROKORRA

Bestelako bibliografia-dokumentu erlazionatuak identifikatzen dituen informazioa. Lotura-eremu bakoitzak erregistroan deskribatutako dokumentuaren eta dokumentu erlazionatuaren arteko harremana adierazten du.

Erlazioak ezartzea: Erlazioak elkarrekiko moduan ezartzen dira, bibliografia-erregistro erlazionatuen artean. Lotura-eremu batek dokumentu erlazionatu bat lotzen du, fitxategi batean erregistro baten bidez adierazita egon daitekeena. Erregistro erlazionatuak daudenean, erregistro bakoitzak bere lotura-eremua izan dezake. Kasu batzuetan, elkarrekiko lotura-eremuek eremu-etiketa berberak izaten dituzte, eta beste batzuetan, bakoitzak berea. Honako hauek dira eremuetako elkarrekiko etiketak:

| **Erregistroa** | **Erregistro erlazionatua** |
|---|---|
| 773 (Iturri-dokumenturako lotura) | 774 (Unitate osagarri baterako lotura) |
| 776 (Formatu fisiko gehigarri baterako lotura) | 776 (Formatu fisiko gehigarri baterako lotura) |
| 777 ("Honekin batera argitaratuta" lotura) | 777 ("Honekin batera argitaratuta" lotura) |

# T773 ITURRI-DOKUMENTURAKO LOTURA (E)

Erregistroan deskribatutako unitate osagarriaren iturri-dokumentuari buruzko informazioa. **Iturri-dokumentua** dokumentu bibliografiko bat da. Erregistroaren xede den dokumentua osatzen duen azpiatala fisikoki (atal osagarri) edo bere bibliografian (unitate osatzailea) barne hartzen du.

Eskuliburu honetan zenbait liburukitako argitalpenak diren iturri-dokumentuetan bilduko dugu arreta; horretarako, $g azpieremuko informazioa behar da, berorren bidez zati osagarriak bibliografia-dokumentuaren barruan duen kokapen zehatza adierazten baita.

***Adierazleak***

| | |
|---|---|
| **Lehena** | **0** ***Oharra sortzen du.*** (Lehenetsita)<br>**1** ***Ez du oharrik sortzen*** |
| **Bigarrena** | **#** ***Honetan.*** (Lehenetsita)<br>**8** ***Ez du lotura bidez bistaratzekorik sortzen.*** |

***Azpieremuko kodeak***

| | |
|---|---|
| **$g** | ***Erlazionatutako zatia(*k) (E)** |
| **$t** | ***Izenburua (EE)*** |
| **$x** | ***ISSN*** |

Eremuaren helburua erabiltzaileak deskribatutako zatia duen dokumentua aurkitu ahal izatea da. Horregatik, iturri-dokumentua identifikatzeko beharrezko diren datuak besterik ez dira jaso behar eremuan.

*Lotura bidez bistaratzekoa*

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, hau da, ez da beharrezkoa hitzez-hitzezkoa idaztea, programak automatikoki sortuko baitu dagokion katalogazio-hizkuntzan, baldin eta **T040** eremuko **$b** behar bezala betetzen bada.

| ***Gaztelania*** | ***Euskara*** |
|---|---|
| En: | Honetan: |

Eremu hori erabiliko dugu serie zabalago baten zati diren eta izenburu bereizgarria duten hainbat liburukitako idazlanetarako, beren edukia dela-eta liburutegi-funtsean fisikoki banandu daitezkeenak.

Era berean, argitalpen seriatuekin eta/edo monografiekin argitaratzen diren soinu-erregistroak katalogatzeko ere erabiliko da.

«*Dokumentua estekatu*» programa-aukera erabiliko da iturri-dokumentuaren eta haren atal bakoitzaren arteko lotura ezartzeko.

**$g – Zati erlazionatua(k)**

Iturri-dokumentuarekin erlazionatutako dokumentuaren zatiari/zatiei buruzko informazioa; adibidez, datei eta liburukiei buruzkoa.

**$t - Izenburua**

Iturri-dokumentuaren izenburuari buruzko informazioa.

**$x - ISSN**

Argitalpen seriatu batekin doan soinu-grabazio bat soinu-grabazioen moduluan era independentean katalogatu nahi badugu, honako prozedura honi jarraituko diogu:

| Adibidea: |
|---|
| *MARC bistaratzea:* |
| **T245 00 $a**10 Años de acuarela [**$h**Grabación sonora]<br>**T260 ## $a**Barcelona : **$b**Sinedín : **$b**Rockdelux, **$c**2003<br>**T773 0# $t**Rock de lux. -- **$g**n. 212 **$x**1138-2864 |
| *ISBD bistaratzea:* |
| 10 Años de acuarela [Grabación sonora]. -- Barcelona : Sinedín : Rockdelux, 2003<br>1 disco (CD-DA) (76 min)<br>Rocka<br>Rock<br>En: Rock de lux. -- n. 212 = ISSN 1138-2864 |

# T776 FORMATU FISIKO GEHIGARRI BATERAKO LOTURA (E)

Xede-dokumentua eskuragarri dagoen bestelako euskarri fisikoei buruzko informazioa. Euskarri fisiko desberdina duten izenburu bereko erregistroak erlazionatzeko erabiltzen da.

Beharrezkoa da T530 oharra (eskuragarri dauden bestelako euskarri fisikoei buruzkoa) betetzea.

***Adierazleak***

| | |
|---|---|
| **Lehena** | **0 *Oharra sortzen du.*** (Lehenetsita)<br>**1 Ez du oharrik sortzen** |
| **Bigarrena** | **# Beste formatu batean eskuragarri (lehenetsita)**<br>**8 *Ez du lotura bidez bistaratzekorik sortzen.*** |

***Azpieremuko kodeak***

**$t** ***Izenburua (EE)***



T776 eremuko izenburua erreferentzia egiten dion baliabidearekin lotuko da. Informazio kontsultatzeko, ikus “*Lotu dokumentua*”.

*(Ikus "Katalogaziorako prozedura orokorren eskuliburua").*

<u>*Lotura bidez bistaratzekoa*</u>

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, hau da, ez da beharrezkoa hitzez-hitzezkoa idaztea, programak automatikoki sortuko baitu dagokion katalogazio-hizkuntzan, baldin eta **T040** eremuko **$b** behar bezala betetzen bada.

| ***Gaztelania*** | ***Euskara*** |
|---|---|
| Otro soporte: | Beste euskarri bat: |

Adibidea:

*MARC bistaratzea:*

**T110 2# $a**Pantxoa eta Peio
**T245 10 $a**Lapurtar koblalariak [**$h**Soinu-grabazioa] /**$c**Pantxoa ta Peio
**T260 ## $a**Donostia-San Sebastián : **$b**Elkar, **$c**2002
**T300 ## $a**1 disko (CD-DA) (ca. 40 min)
**T505 00 $t**Agur munduari! ; **$t**Egun on aitatxi-amatxi ; **$t**Xori kaiolatik ihes joan dena ; **$t**Nere xorteko laguneri ; **$t**Berriketariak ; **$t**Aurten omen
**T530 ## $aKasetean**
**T655 #4 $a**Herri-musika-**$z**Euskal Herria
**T655 #1 $a**Músicas tradicionales-**$z**Euskal Herria
**T776 0# $t «LK_»Lapurtar koblalariak «LK="386098".TITN.» (Kasete)**

*ISBD bistaratzea:*

Pantxoa eta Peio
Lapurtar koblalariak [Soinu-grabazioa] / Pantxoa ta Peio. -- Donostia-San Sebastián : Elkar, 2002
1 disko (CD-DA) (ca. 40 min)

Edukia: Agur munduari! ; Egun on aitatxi-amatxi ; Xori kaiolatik ihes joan dena ; Nere xorteko laguneri ; Berriketariak ; Aurten omen ; Xuriko ; Auzoan zer berri den ; Gurea da ; Neskatxa gazte ;Enen maitea, xarmangarria ; Eukual Herria gure ama da
**Kasetean**

Herri-musika-Euskal Herria
Músicas tradicionales-Euskal Herria

**Beste euskarri bat: Lapurtar koblalariak (Kasete)**

SR398
SR399

# T777 “HONEKIN BATERA ARGITARATUA” LOTURA (E)

Bereizita katalogatzen diren baina xede-dokumentuarekin batera argitaratu diren argitalpenei buruzko informazioa.

***Adierazleak***

| | |
|---|---|
| **Lehena** | **0** ***Oharra sortzen du.*** (Lehenetsita)<br>**1** ***Ez du oharrik sortzen*** |
| **Bigarrena** | **#** ***Honekin batera argitaratua.*** (Lehenetsita)<br>**8** ***Ez du lotura bidez bistaratzekorik sortzen*** |

***Azpieremuko kodeak***

| | |
|---|---|
| **$a** | ***Sarrera nagusia (EE)*** |
| **$n** | ***Oharra (E)*** |
| **$t** | ***Izenburua (EE)*** |
| **$x** | ***ISSN (EE)*** |

Bi idazlan batera argitaratzen direnean, bereizita katalogatuko dira, bigarren idazlanaren izenburua T777 $t batean jasoko da, eta bi erregistroak “*Lotu dokumentua”* prozeduraren bidez lotuko dira.

*Lotura bidez bistaratzekoa*

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, hau da, ez da beharrezkoa hitzez-hitzezkoa idaztea, programak automatikoki sortuko baitu dagokion katalogazio-hizkuntzan, baldin eta **T040** eremuko **$b** behar bezala betetzen bada.

| ***Gaztelania*** | ***Euskara*** |
|---|---|
| Publicado con: | Honekin batera argitaratua: |

Adibidea:

*MARC bistaratzea:*

**T245 00 $a**Speak up [**$h**Grabación sonora] **$b** : la revista audiomensual que mantiene vivo su inglés

**T260 ## $a**[Barcelona] : **$b**RBA Revistas, **$c**1999-

**T300 ## $a**casetes <161-172>

**T650 #1 $a**Lengua inglesa-**$x**Métodos audiovisuales

**T650 #4 $a**Ingelesa-**$x**Ikus-entzunezko metodoak

**T777 0# $t«LK_»Speak up«LK="323371".TITN.» $x0214-1418**

*ISBD bistaratzea:*

Speak up [Grabación sonora] : la revista audiomensual que mantiene vivo su inglés. -- [Barcelona] : RBA Revistas, 1999-

casetes <161-172>

Lengua inglesa-Métodos audiovisuales

Ingelesa-Ikus-entzunezko metodoak

Publicado con: Speak up = ISSN 0214-1418

**$n - Oharra**

Idazlan bat beste batzuekin batera sistematikoki argitaratzen denean, ohar hau erabiliko dugu argitalpen nagusia eta atxikitakoak lotzeko:

| ***Gaztelania*** | ***Euskara*** |
|---|---|
| Documentos anejos en formato sonoro | Atxikitako dokumentuak, soinu formatuan |

Argitalpenen zenbaki batzuek atxikita izaten dituzten soinudun materialak zein bere aldetik katalogatuko dira, eta argitalpenaren erregistro nagusiarekin erlazionatuko.

**Bilaketa batera egingo da lotura**, eta ez dokumentu batera. Bilaketa dagokion ISSNarekin edo izenburuarekin (ISSNrik ez badu) lotutako orriburuko kodearekin egingo da (**j.ld06.** soinu-grabazioetarako). **Berariaz idatziko da "ETA"** juntagailua bilaketa-formularen elementuen artean.




Loturei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus “*Lotu dokumentua*” atala.

*Ik. "Katalogatzeko prozedura orokorren eskuliburua").*




| Adibidea: |
|---|

| *MARC bistaratzea:* |
|---|
| **T222 #0 $a**Rock de lux (**$b**1987) |
| **T245 00 $a**Rock de lux |
| **T260 ## $a**Barcelona : **$b**RDL-Rock de lux, **$c**[1987]- |
| **T300 ## $a**v. ; **$c**30 cm |
| **T310 ## $a**Mensual |
| **T777 0# $nDocumentos anejos en formato «LK_»sonoro«LK=j.ld06. y "1138-2864"»** |

| Adibidea: |
|---|

| *ISBD bistaratzea:* |
|---|
| Rock de lux. -- N.33 (sept. 1987)-. -- Barcelona : RDL-Rock de lux, [1987]- |
| v. ; 30 cm |
| Mensual |
| D.L. M 25176-1981 |
| ISSN 1138-2864 = Rock de lux (1987) |
| Música rock |
| Rock musika |

**Publicado con: Documentos anejos en formato sonoro**
78

# T800 SERIEAREN SARRERA GEHIGARRIA - PERTSONA-IZENA (E)

Egile/izenburuaren sarrera gehigarria, egilearen zatia pertsona baten izena denean. T800 eremuaren justifikazio gisa, seriearen aipu bat (T490 eremua) edota serieari erreferentzia egiten dion ohar orokor bat (T500 eremua) egin ohi da.

**Eremu hori autoritate bati lotuta dago**

| *Adierazleak* | |
|---|---|
| **Lehena** | **0 *Izena***<br>**1 *Abizena(k)***<br>**3 *Familia-izena*** |
| **Bigarrena** | **# *Zehaztugabea*** |

*(Ik. Autoritateak)*

**AUTO**n, **T100** eremu bati lotuta dago beti.

Autoritate elebiduna T942 eremuan adieraziko da (Sarrera nagusia - Pertsona-izena (elebiduna)).

| Adibidea: |
|---|
| **T100 1# $a**Bach, Johann Sebastian (**$d**1685-1750)<br>**T243 10 $a**Cantatas. **$k**Selección<br>**T245 10 $a**City of London [**$h**Grabación sonora] / **$c**Johann Sebastian Bach<br>**T260 ## $a**London : **$b**Monteverdi Productions, **$c**p 2005<br>**T490 1# $a**Bach cantatas ; **$v**1<br>**T800 1# $a**Bach, Johann Sebastian (**$d**1685-1750). **$t**Bach cantatas (Soli Deo Gloria) |

# T830 SERIEAREN SARRERA GEHIGARRIA - IZENBURU HAUTATUA (E)

Seriearen sarrera gehigarria, seriearen izenburua bakarrik jasotzen duena. T830 eremuaren justifikazio gisa, seriearen aipu bat (T490) edota serieari erreferentzia egiten dion ohar orokor bat (T500) egin ohi da.

**Eremu hori autoritate bati lotuta dago**

***Adierazleak***

| | |
|---|---|
| **Lehena** | ***# Zehaztugabea*** |
| **Bigarrena** | **0 – 9** ***Alfabetoaren arabera ordenatzeko kontuan hartzen ez diren karaktereen kopurua*** |

***Azpieremuko kodeak***

| | |
|---|---|
| **$a** | ***Izenburu uniformea (EE)*** |
| **$n** | ***Lanaren zati edo atalaren zenbakia (E)*** |
| **$p** | ***Lanaren zati edo atalaren izena (E)*** |

*Ik. Autoritateak*

**AUTO**n, **T130** eremu bati lotuta dago beti.

Serieen izenburu hautatuak transkribatzeko orduan honako arau honi jarraituko zaio beti: **Seriearen izena + argitaletxearen izena parentesi artean** (berau identifikatzeko beharrezkoa denean).

| Adibideak: |
|---|
| **T830 #0 $a**Classic Masterpieces (IMP Classics)<br>**T830 #3 $a**La gran música paso a paso |

Autoritate elebiduna T943 eremuan adieraziko da (Seriearen sarrera nagusia - Izenburu hautatua [elebiduna]).

# T856 BALIABIDE ELEKTRONIKOEN KOKAPENA ETA SARBIDEA (E)

Baliabide elektroniko bat lokalizatu eta bertara sartzeko beharrezkoa den informazioa. Eremua baliabide baten bibliografia-erregistroan erabil daiteke, baliabide osoa edo zati bat elektronikoki eskura daitezkeenean. Bestalde, erabili daiteke bibliografia-erregistroan deskribatutako baliabide ez-elektroniko baten bertsio elektronikoa edota baliabide elektroniko erlazionatu bat lokalizatu eta bertara sartzeko.

***Adierazleak***

| | |
|---|---|
| **Lehena** | **4 HTTP.** (Lehenetsita) |
| **Bigarrena** | **0 Baliabidea.** Kokapen elektronikoa erregistroak baliabide oso gisa deskribatzen duen baliabideari dagokio.<br>**1 Baliabidearen bertsioa.** Kokapen elektronikoa erregistroak deskribatutako baliabidearen bertsio elektroniko bati dagokio. (Lehenetsita)<br>**2 Baliabide erlazionatua** |

***Azpieremuko kodeak***

| | |
|---|---|
| **$u** | ***Baliabidearen Identifikatzaile Hautatua (BIH) (E).*** BIH barne hartzen du. |
| **$y** | ***Loturaren testua (R).*** $u azpieremuaren URLaren ordez bistaratzen den testua. |
| **$z** | ***Ohar publikoa (E).*** Ohar hori eremuan identifikatutako iturriaren kokapen elektronikoarekin erlazionatuta dago. |

*(Ik. Inprimaki modernoak)*

Ezinbestekoa da T530 oharra betetzea. Baita T776 oharra ere, formatu fisiko gehigarria izanez gero.

| Adibidea: |
|---|
| **T245 10 $a**Winter greets you [**$h**Grabación sonora] / **$c**The Great Barrier<br>**T530 ## $**aDisponible en Internet<br>**T856 #0 $u**https://thegreatbarrier.badcamp.com **$y**Internet (Publicación) |

# T9XX TOKIAN TOKIKO EREMUAK

**T9XX** etiketei dagokienez, irizpide hauek aplikatuko dira:

a) T1XX, T24X, T7XX eta T8XX eremuetan jasotako autoritateen beste hizkuntza bateko baliokideak jasotzea. Prozesu hori automatikoki egiten da, prozedura orokorren eskuliburuan azaltzen den bezala. T1XX / T8XX eta T9XX etiketen arteko baliokidetzak honako hauek dira:

| **CATA** | | **CATA-autoritate elebiduna** |
|---|---|---|
| T100 | SN-Pertsona-izena | **T900** |
| T110 | SN-Erakunde korporatiboaren izena | **T901** |
| T111 | SN-Biltzarraren izena | **T902** |
| T130 | SN-Izenburu hautatua | **T903** |
| T240 | Izenburu hautatua | **T940** |
| T243 | Izenburu hautatu orokorra | **T941** |
| T700 | SG- Pertsona-izena | **T910** |
| T710 | SG- Erakunde korporatiboaren izena | **T911** |
| T711 | SG- Biltzarraren izena | **T912** |
| T730 | SG- Izenburu hautatua | **T913** |
| T800 | SSG-Pertsona-izena | **T942** |
| T830 | SSG-Izenburu hautatua | **T943** |

SG -Sarrera gehigarria
ASG -Arloko Sarrera Gehigarria
SSG -Seriearen sarrera gehigarria
SN -Sarrera nagusia

b) **T999** etiketa ez da erabiliko soinu-grabazioen erregistro berrien katalogazioan.

NULL

Katalogazio berrietan, eremu hori ez da erabiliko.

## LOTURA BIDEZ BISTARATZEKOAK

Jarraian, soinu-grabazioen bibliografia-erregistroetan lotura bidez bistaratuko diren testu garrantzitsuenen zerrenda azalduko da. Eskuliburuan zehar, etiketa bakoitzak lotura bidez etiketa bistaratzeko aukerarik duen adieraziko da.

| | |
|---|---|
| **T017 – NÚMERO DE COPYRIGHT O DE DEPÓSITO LEGAL** | |
| D.L. | L.G. |
| **T024 – OTROS IDENTIFICADORES NORMALIZADOS** | |
| ISRC | ISRC |
| UPC | UPC |
| ISMN | ISMN |
| EAN | EAN |
| SICI | SICI |
| **T246 – VARIANTE DE TÍTULO** | |
| Título distintivo: | Izenburu bereizgarria: |
| Otro título: | Beste izenburu bat: |
| Título de la cubierta: | Azaleko izenburua: |
| Título de la portada adicional: | Atari gehigarriko izenburua: |
| Título de la cabecera: | Orriburuko izenburua: |
| “Titulillo”, título de margen: | Orri-ertzeko izenburua: |
| Título del lomo: | Bizkarreko izenburua: |
| **T505 – NOTA DE CONTENIDO CON FORMATO** | |
| Contiene: | Edukia: |
| Contenido incompleto: | Eduki osagabea: |
| Contenido parcial: | Eduki partziala: |
| **T511 – NOTA DE PARTICIPANTES O INTÉRPRETES** | |
| Intérpretes: | Interpretatzaileak: |
| **T773 – ENLACE AL DOCUMENTO FUENTE** | |
| En: | Honetan: |
| **T776 – ENLACE A UN FORMATO FÍSICO ADICIONAL** | |
| Otro soporte: | Beste euskarri bat: |
| **T777 – ENLACE A “PUBLICADO CON”** | |
| Publicado con: | Honekin batera argitaratua: |

# 1. **ERANSKINA** Soinu-grabazio ez-musikalak katalogatzea

Eranskin honetan, soinu-grabazio EZ-MUSIKALEN erregistroak katalogatzeko garaian jarraitu beharreko katalogatze-arau espezifikoak jasotzen dira, hala nola narrazioak, elkarrizketak, dialogoak, eta abar.

**Gaiburuaren forma**

Gaiburu nagusia aukeratzeko, testu idatzietako irizpide berberei jarraitzen zaie.

| Adibidea: |
|---|
| **T100 1# $a**Proust, Marcel (**$d**1871-1922)<br>**T245 13 $a**Un amour de Swann [**$h**Grabación sonora] **$b**: adaptation radiophónique |

**Literatur obretan**, gaiburu nagusia testuaren egilea izan ohi da. Narratzailea T511 oharraren bidez adieraziko da, lehen adierazlean 0 ipinita, dagokion bistaratzea ager ez dadin.

| Adibidea: |
|---|
| **T100 1# $a**García Lorca, Federico (**$d**1898-1936)<br>**T245 13 $a**La poesía de García Lorca [**$h**Grabación sonora]<br>**T511 0# $a**Narrador: Francisco Rabal |

Hiru egile baino gehiago direnean eta errezitatzailea nabarmenduta ageri denean, azken hori aukeratuko da gaiburu nagusirako, eta egilea bigarren mailakotzat ipintzen da, **T700**, lehenengoaren ondotik.

| Adibidea: |
|---|
| **T100 1# $a**Rabal, Francisco (**$d**1926-2001)<br>**T245 10 $a**Paco Rabal y los poetas andaluces [**$h**Grabación sonora] |

**Elkarrizketa eta solasaldietan**, T100 erregistro nagusia edukiaren arduradun nagusia izango da. Esku hartzen duten gainerako pertsonak bigarren mailakotzat erregistratuko dira, T700, baina hiru baino gehiago baldin badira, lehendabizikoa bakarrik. Zalantza denetan, elkarrizketaren egilearen izena aukeratuko da.

| Adibidea: |
|---|
| **T100 1# $a**Paco Navarro, José de<br>**T245 10 $a**Entrevista con José Crespo [**$h**Grabación sonora] /**$c**José de Paco<br>**T600 11 $a**Crespo, José **-$v**Entrevistas<br>**T600 14 $a**Crespo, José **-$v**Elkarrizketak<br>**T700 1# $a**Crespo, José |

Elkarrizketek elkarrizketatutako pertsonaren hitzak jasotzen dituztenean, T100 sarrera nagusia izango da. Bi edo hiru lagunen elkarrizketak biltzen baditu, sarrera nagusia lehendabiziko elkarrizketatua izango da, eta gainerakoak bigarren mailako izango dira. Obrak hiru baino gehiago jasotzen baditu, gaiburu nagusia izenburuaren arabera izango da, eta lehen elkarrizketatua bakarrik egingo da bigarren mailako. Bigarren mailako, T700, izango da, halaber, elkarrizketatzailea edo esku hartu duen biltzailea, edota lehendabizikoa hiru baino gehiago baldin badira.

Elkarrizketatzaileak literatur forma ematen badio elkarrizketari, hura agertuko da erregistroaren gaiburuan.

| Adibidea: |
|---|
| **T100 1# $a**Cela, Camilo José (**$d**1916-2002)<br>**T245 10 $a**Conversaciones con Cela [**$h**Grabación sonora] /**$c**por Jaime Valera<br>**T600 11 $a**Cela, Camilo José (**$d**1916-2002)**- $v**Entrevistas<br>**T600 14 $a**Cela, Camilo José (**$d**1916-2002)**- $v**Elkarrizketak<br>**T700 1# $a**Valera, Jaime |

Obrak parte-hartzaileen hitzak erreproduzitu baino ez dituenean egiten (**elkarrizketetan, solasaldietan edo eztabaidetan**), T100 gaiburu nagusia lehendabiziko tokian aipatuko da informazio-iturrian, hiru baino gehiago ez baldin badira, eta gainerakoak bigarren mailako egingo dira, T700. Baina hiru pertsonak baino gehiagok parte hartzen badute, sarrera nagusia tituluaren arabera egingo da eta bigarren mailakoa lehendabiziko tokian aipatutakoa bakarrik izango da.

**Biografietan**, testuak edo argudioak jorratzen duen pertsonaren izena izango da gaiburu nagusi; funtzioa garbi ez baldin badago, sarrera nagusia izenburuaren arabera egingo da. Biografia egindako pertsonaren bigarren mailako gaiak jasoko dira (T600, T610, T650).

| Adibidea: |
|---|
| **T100 1# $a**Rondel, Pancracio<br>**T245 13 $a**La vida de Arthur Rimbaud [**$h**Grabación sonora] /**$c**Pancracio Rondel<br>**T600 11 $a**Rimbaud, Arthur (**$d**1854-1891)**-$x**Biografías<br>**T600 14 $a**Rimbaud, Arthur (**$d**1854-1891)**-$x**Biografiak |

**Ahozko historian** eta diskurtso, soinu-artxibo eta tankerako dokumentu historikoetan, gaiburu nagusian egilea ipiniko da, eta, halakorik ezean, izenburua.

| Adibidea: |
|---|
| **T100 1# $a**Eliseef, Danièle<br>**T245 10 $a**China, el primer imperio de los hunos [**$h**Grabación sonora] /**$c**D. Eliseef |

**Umore eta barietate** obra mintzatuetan, gaiburuan interpretea ipiniko da, edo izenburua.

| Adibidea: |
|---|

| |
|---|
| **T110 2# $a**Les Luthiers<br>**T245 14 $a**Les Luthiers hacen muchas gracias de nada [**$h**Grabación sonora] |

# 2. ERANSKINA Soinu-grabazioetarako generoen zerrenda

## Aurretiko argibideak

1 Soinu-grabazio musikalen katalogazio berri guztiek zer generori atxikita dauden agertu beharko dute **T655** etiketan. Horretarako, EIPSeko liburutegi guztiek erabili beharreko genero-zerrenda elebiduna sortu du zerbitzuak.
2 **T655** etiketaren erabilera “*Inprimaki modernoak katalogatzeko prozeduraren eskuliburua*” izenekoan azaltzen da.
3 Genero horiek hizki txikiz eta lodiz idatzita ageri dira zerrenda honetan. Dokumentuaren amaieran, guztien zerrenda bat dago jasota.
4 Erabat bateragarria da, katalogatzeak hala behar badu, genero bat baino gehiago erregistro berean erabiltzea (esate baterako, Mozarten *Requiem* batek bi genero desberdin eduki ahal izango ditu ipinita: musika erlijiosoa eta musika korala).
5 Soinu-grabazio **ez-musikalak** dagokien gaiburua erabilita katalogatuko dira: **(T6XX)** (animaliak, ipuinak, gazte eta haurrentzako liburuak).

Generoak funtzioaren arabera bereizi ditzakegu (musika erlijiosoa, soinu-bandak, balleta...), edota instrumentazioaren arabera (ahots-musika, musika instrumentala, musika elektronikoa...).

## Ahots-musika eta musika korala

**Música vocal / Ahots musika**

Guztietan generorik zaharrenaren historia da, «musika-instrumenturik» zaharrena erabiltzen baitu guztietan: giza ahotsa. Ahots-musika askotan *a capella* interpretatzen da; hau da, ahots-musika bakarrik edo taldean (duoak, trioak eta abar), batere akonpainamendurik gabe.

Emakume-ahotsak (akutua = sopranoa, ertaina = mezzo sopranoa eta baxua = altua edo kontraltoa), gizon-ahotsak (baxua = baxua, media = baritonoa eta akutua = tenorra) edo haurrenak.

Adibidea:

**T084 ## $a**SA1
**T245 04 $a**Les voix du monde [**$h**Grabación sonora] **$b:** une anthologie des expressions vocals = Voices of the world : an anthology of vocal expresion /**$c**conception et réalisation, Gilles Léothaud, Bernard Lortat-Jacob, Hugo Zemp ; avec la collaboration de Jean Schwarz et de Tran Quang Hai
**T655 #1 $a**Música vocal
**T655 #4 $a**Ahots musika

**Música coral / Abesbatzako musika**

Pertsona talde batek abestua, zeinak modu koordinatuan pieza bat interpretatzen duen, hariekin taldekatuta (eskuarki, lau). *Musika koral* terminoak adierazten du ahots bakoitzeko bi abeslari edo gehiago direla. Musika koral gehiena abesbatza batentzat konposatua izaten da; abesbatza gizonez eta emakumez, haurrez edo helduz osatua egoten da, edota bakarrik gizon-ahotsez edo emakume-ahotsez osatua.

Antzinate Klasikotik existitzen da. Historian zehar agertzen da: mezak, moteteak, oratorioak, operak...

| Adibideak: |
|---|
| **T084 ## $a**SB4<br>**T110 20 $a**Orfeón Donostiarra<br>**T245 10 $a**Euskal kantak [**$h**Soinu-grabazioa] /**$c**Orfeón Donostiarra = Donostiako Orfeoia ; zuzendaria José A. Sainz ; solistak Ana Salberria, José A. Vega<br>**T655 #4 $a**Abesbatzako musika<br>**T655 #1 $a**Música coral |

# Musika instrumentala

Konposizio musikal edo pieza hitzik gabea, musika-instrumentuz ekoitzia. Ahots-musikaren oposizioz definitzen da. Aro barrokotik garapen handia izan du.

## 1. Orkestrako musika

Musikari kopuru handi batek esku hartzen du (80 baino gehiago); hau da, hari, haize, metal, perkusio eta gainerako sekzio tradizionalez osatutako orkestra. Hala, orkestra sinfonikoak edo orkestra handiak ditugu, eta ganbera-orkestrak, hari-orkestrak, eta abar. Musika mota horren barruan nabarmentzen dira:

**Conciertos (Instrumento) / Kontzertuak (Instrumentua)**

Askotariko obrak biltzen dituzte, eta haien ezaugarri komuna zera izaten da, oro har orkestra-talde batentzat idatzita egoten direla, eta musika-instrumentu bakarra izaten dela protagonista, dela «soloak» eginda, dela gainerako musika-instrumentuei «aurre eginda». Parentesi artean emango da musika-instrumentu protagonista, halakorik badago.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SQ32<br>**T100 10 $a**Chopin, Fryderyk (**$d**1810-1849)<br>**T240 10 $a**Conciertos **$m**piano **$n**n. 1, op. 11 **$r**mi menor<br>**T245 00 $a**Concierto n. 1 en mi menor para piano y orquesta, op. 11 [**$h**Grabación sonora] /**$c**F. Chopin<br>**T655 #1 $a**Conciertos (Piano) |

| |
|---|
| **T655 #4 $a**Kontzertuak (Pianoa) |

## Oberturas / Oberturak

Jatorrian, orkestrak jotzen zuen pieza labur bat baino ez zen; kontzertu baten edo opera baten hasiera iragartzen zuen, eta osteko kontzertuaren abestiak jasotzen zituen. Ondoren, XIX. mendean, *pot-pourri* moduan emandako obertura mota honekin batera, beste obertura batzuk ipini ziren modan, obraren gai nagusia aurkezten zutenak edota erabat independenteak (askotan zirkunstantzia hori izenburu oso pintoreskoekin emanda). Batez ere, operetan iraun zuen, baina baita luzera nabarmeneko kontzertu eta bestelako obretan ere.

Nabarmentzekoak dira Scarlatti XVII. mendean, Mozart eta Beethoven XVIII.ean eta Wagner edota Rossini XIX. mendean.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SQ31<br>**T100 10 $a**Mozart, Wolfgang Amadeus (**$d**1756-1791)<br>**T240 10 $a**Oberturas .**$k**Selección<br>**T245 10 $a**Oberturas [**$h**Grabación sonora]**$b ;** Pequeña Serenata Nocturna /**$c**Wolfgang Amadeus Mozart<br>**T655 #1 $a**Oberturas<br>**T655 #4 $a**Oberturak |

## Preludios / Preludioak

Pieza musikal laburra eskuarki, barne-forma berezirik gabea, honako mugimendu hauen sarrera gisa agertzen dena: fuga, eskuarki handiagoa eta konplexuagoa den obra baten sonata. Preludioak ere egin diezaioke erreferentzia obertura bati, bereziki opera, oratorio edo ballet batekoei.

Oberturak bezalaxe, aurretik ematen zuten obra luzeago baten gaiak jasotzen zituen, baina modu askeagoan; hala, Erromantizismoaren garaian forma independente izatera iritsi zen: Chopin, Ratxmaninov eta Debussy.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SQ3<br>**T100 10 $a**Wagner, Richard (**$d**1813-1883)<br>**T245 10 $a**Preludio acto I "Parsifal" [**$h**Grabación sonora] /**$c**Richard Wagner<br>**T655 #1 $a**Preludios<br>**T655 #4 $a**Preludioak |

## Sinfonías / Sinfoniak

Orkestra-konposizio handi-handia da; orkestraren aukera ia guztiak erabili ohi ditu. Lau mugimenduk osatzen dute: hasierako mugimendu bat, bizitasun handiagoz edo txikiagoz (*allegro*), ondoren bigarren mugimendu bat duela, motelagoa (*adagio edo andante*);

hirugarren mugimendua berriro ere biziagoa izaten da (oro har, *minuetto* bat), eta laugarrena, berriz, askoz biziagoa da (*presto edo vivo*).

Italian sortu zen, 1730ean. Aro klasikoan, Haydn, Mozart eta Beethoven nabarmentzen dira. Gaur egun, berriz, Honegger.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SQ3<br>**T100 10 $a**Berlioz, Hector (**$d**1803-1869)<br>**T240 10 $a**Symphonie fantastique<br>**T245 10 $a**Sinfonía fantástica [**$h**Grabación sonora] /**$c**Hector Berlioz<br>**T655 #1 $a**Sinfonías<br>**T655 #4 $a**Sinfoniak |

**<u>Suites / Suiteak</u>**

Eskuarki, ballet batetik edo agertokirako musika intzidental batetik hartutako mugimenduen hautaketa izaten da.

Hamar mugimendu inguru izaten zituen. Preludio batekin hasten zen. Tipikoa zen barrokoan, eta Händelek eta Bachek eraman zuten gailurrera, XVIII. mendean. Sonatak suitea ordezkatuko du XVIII. mendearen bigarren erdialdean, genero instrumental gisa.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SQ61<br>**T100 10 $a**Rimsky-Korsakov, Nikolay (**$d**1844-1908)<br>**T240 10 $a**Scheherazade<br>**T245 10 $a**Scheherezade [**$h**Grabación sonora]**$b :** suite sinfónica Op. 35 /**$c**Rimsky Korsakov<br>**T655 #1 $a**Suites<br>**T655 #4 $a**Suiteak |

## 2. Ganbera-musika

Instrumentu-talde murritz baterako konposatua, orkestra-musikarekin kontrajarrita. Sorreran, aristokraziaren egongeletarako sortua zen; gerora, kontzertu-areto txikietara eta etxe partikularretara zabaltzen joan zen.

Teorian, ez dago musika-instrumentuen gehieneko mugarik, baina praktikan konposizio gehienek bi eta hogei artean izaten dituzte. Instrumentu-konbinazio ugari dago; garrantzitsuena, hari-laukotea. Haize- eta metal-instrumentuak ez dira horren ohikoak.

**<u>Sonatas / Sonatak</u>**

Genero hori XVIII. mendearen amaieran sortu zen, eta XIX. mendean izan zuen loraldia, egitura komuna izan ohi zuen mugimendu baten formarekin: sarrera bat, gai askearekin; gai nagusiaren eta beste aukerako baten azalpena, biak batuta amaieran; bi gaien

garapena; laburpena, gai nagusiarena eta ondoren bigarrenarena, nagusiaren tonalitate berean, eta epilogoa, askea, tonalitate horretan bertan.

Interpretatzaile gutxirentzat konposatuta egon ohi dira, gehienetan batentzat edo birentzat, salbuespenak salbuespen. Nabarmendu behar da oro har instrumentu bakarrerako sonatak pianorako izaten direla, polifoniarako duen gaitasuna dela eta.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SO<br>**T100 10 $a**Beethoven, Ludwig van (**$d**1770-1827)<br>**T240 10 $a**Sonatas **$m**piano **$n**n. 21, op. 53 **$r**do mayor<br>**T245 10 $a**Para Elisa [**$h**Grabación sonora]**$b :** sonata Walstein / **$c**Ludwig van Beethoven<br>**T655 #1 $a**Sonatas<br>**T655 #4 $a**Sonatak |

**<u>Música de cámara (Instrumento) / Ganbera-musika (Instrumentua)</u>**

Instrumentu bakarlariek interpretatutako piezetarako.

**<u>Dúos / Duoak</u>**

Garai batean dueto izenez ere deitzen zituzten; bi instrumentista edo ahots-interpreteren multzoa da.

Ganbera-musikan formarik ohikoenetako bat da; batez ere, instrumentu bakarrean oinarriturik teklatuan lagundutakoa; konposizio ugari daude musika mota honetarako. Ugariak dira flautarako, biolinerako, biolontxelorako, oboerako edo klarineterako idatzitakoak.

Familia bereko bi musika-instrumentutarako duoak ere ugari dira: haria edo haizea (biolina eta biola, flauta eta klarinetea, eta abar). Edonola ere, edozer musika-instrumenturen konbinaziotarako adibideak topa ditzakegu.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SL1<br>**T100 10 $a**Schubert, Franz (**$d**1797-1828)<br>**T245 10 $a**Works for violin & piano [**$h**Grabación sonora] /**$c**Franz Schubert ; Thomas Brandis, Bruno Cannino<br>**T655 #1 $a**Dúos<br>**T655 #4 $a**Duoak |

**<u>Tríos / Trioak</u>**

Hiru instrumentistaren edo ahots-interpreteren taldea da.

Ohikoena hari-trioak izaten dira (biolina, biola eta biolontxeloa), eta trioa pianoarekin (pianoa biolinarekin eta biolontxeloarekin). Ahal den guztietan, obra zer instrumentutarako edo zer instrumentu-familiatarako konposatuta dagoen zehaztuko da.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SM2<br>**T100 10 $a**Beethoven, Ludwig van (**$d**1770-1827)<br>**T240 10 $a**Tríos **$m**cuerda **$n**n. 3, op. 9, n. 1 **$r**sol mayor<br>**T245 10 $a**Tríos para cuerda op. 9, n. 1 y n. 3 [**$h**Grabación sonora] /**$c**Ludwig van Beethoven<br>**T655 #1 $a**Tríos<br>**T655 #4 $a**Trioak |

**Cuartetos / Kuartetoak**

Lau instrumentistaren edo ahots-interpreteren taldea da.

Ohikoenak hauek dira: hari-laukotea (bi biolin, biola eta biolontxeloa), laukotea pianoarekin (pianoa biolinarekin, biolarekin eta biolontxeloarekin) eta laukotea beste edozer instrumenturekin (haren konposizioa oro har hari-laukotearen konposizioaren tankerakoa da, baina, bigarren biolinaren tokian, aukeratutako beste instrumentu bat ipintzen da).

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SM3<br>**T100 10 $a**Haydn, Joseph (**$d**1732-1809)<br>**T240 10 $a**Cuartetos **$m**cuerda. **$k**Selección<br>**T245 10 $a**Cuarteto en re mayor para guitarra, violín, viola y violoncelo [**$h**Grabación sonora] /**$c**Joseph Haydn<br>**T655 #1 $a**Cuartetos<br>**T655 #4 $a**Kuartetoak |

**Quintetos / Kintetoak**

Bost instrumentistaren edo ahots-interpreteren taldea da. Ahots-boskotea XVI. mendearen amaieran eta XVII. eta XVIII. mendeetan agertu zen.

Hari-boskoteak izan daitezke (bi biolin, biola eta bi biolontxelo; edota bi biolin, bi biola eta biolontxeloa), hari-boskotea gehi pianoa (oro har, piano bat bi biolinekin, biolarekin eta biolontxeloarekin), haize-boskotea eta metal-boskotea.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SN41<br>**T100 10 $a**Mozart, Wolfgang Amadeus (**$d**1756-1791)<br>**T240 10 $a**Quintetos **$m**clarinete, violin, viola, violonchelo **$n**K. 581 **$r**la mayor<br>**T245 10 $a**Clarinet quintet en La mayor KV 581 [**$h**Grabación sonora] /**$c**Mozart<br>**T655 #1 $a**Quintetos<br>**T655 #4 $a**Kintetoak |

**Sextetos, Septetos, Octetos, Nonetos / Sestetoak, Septetoak, Oktetoak, Nonetoak**

Sei instrumentistaz edo ahots-interpretez osatutako taldea da.

Sei, zazpi, zortzi edo bederatzi instrumentutarako konposizioak dezente gutxiagotan agertzen dira, eta konbinazio-barietatea askoz ere zabalagoa da (dela instrumentu kopuruagatik, dela finkapen txikiagoagatik).

## 3. Musika dramatikoa

**Óperas / Operak**

Opera orkestra-musikaren, kantuaren, antzerkiaren eta batzuetan dantzaren arteko konbinazioa da. Opera genero handiaren barruan, hainbat azpigeneroz ere hitz egin genezake, hala nola Espainiako zarzuela edota Vienako opereta, baita AEBko musikala ere.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SQ51<br>**T100 10 $a**Wagner, Richard (**$d**1813-1883)<br>**T245 10 $a**Lohengrin [**$h**Grabación sonora] / **$c**ópera romántica en tres actos de Richard Wagner<br>**T655 #1 $a**Óperas<br>**T655 #4 $a**Operak |

**Zarzuelas / Zarzuelak**

Drama liriko bereziki espainiarra, antzerkia eta herri-folklorea jasotzen dituzten atal musikalekin.

**Zarzuela** antzerkiarekin lotutako musika forma edo genero musikal eszenikoa da, Espainian sortua, eta zati instrumentalak, ahotsezkoak (soloak, duoak, koruak...) eta zati mintzatuak izatea du ezaugarri. *Zarzuela* terminoa, musika- eta antzerki-generoari aplikatua, Zarzuela jauregitik dator; Madril inguruan dagoen errege-jauregitik, hain zuzen. Bertan zegoen genero honen lehendabiziko antzezpenak egin ziren antzokia.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SQ52<br>**T100 10 $a**Vives, Amadeo (**$d**1871-1932)<br>**T245 10 $a**Bohemios [**$h**Grabación sonora] /**$c**Amadeo Vives ; [interpreta] Alfredo Kraus<br>**T655 #1 $a**Zarzuelas<br>**T655 #4 $a**Zarzuelak |

**Óperas cómicas / Opera komikoak**

**Opera komikoa edo "buffa"** Napolin sortutako generoa da, eta komikotasuna du ardatz. *Opera serioaren* beste muturrean dago. Erabat abestutako opera da, eta *farsa* generoaren eta *opera semiseria* izeneko erdibideko formula baten artean dago. Gaiei dagokienez, *opera buffak* neurri handi batean kapa eta ezpatazko Espainiako komedian du jatorria.

“Korapilo” izaera hartzeaz gain, pertsonaiak ere hartzen ditu hartatik. *Opera buffa*k ez ditu albo batera uzten ariak eta konjuntoak, baina dinamismoa ematen die eta ekintzaren antzerki-zentzuaren zerbitzura ipintzen ditu. Hori dela eta, ez du horren maiz erabiltzen *da capo* edo ekintzaren tankera daukan beste edozer, eta, batez ere, ekitaldien amaierak luzatzen ditu, jarraitutasun musikal arina eta zabala lortzeko. Hori guztia ederki geratzen da jasota *Le nozze di Figaro* obran.

**Singspiel** ere komedia da, baina alemanez, zati batzuk mintzatuak eta beste batzuk abestuak direla (antzezlan abestua).

**Tonadilla** obra eszenikoa, jatorrian, espainiar kutsu nabarmeneko dantzekin amaitzen zen; gerora beste pieza batzuk erantsi zitzaizkion.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SQ53<br>**T100 10 $a**Ruffini, Giovanni (**$d**1807-1881)<br>**T245 10 $a**Don Pasquale [**$h**Grabación sonora] / **$c**libreto de Giovanni Ruffini ; ópera cómica en tres actos de Gaetano Donizetti<br>**T655 #1 $a**Óperas cómicas<br>**T655 #4 $a**Opera komikoak |

**<u>Operetas / Operetak</u>**

**Opereta** operatik sortutako forma da. Termino hori opera baino obra eszeniko soil eta laburragoetan erabili zen XVII. eta XVIII. mendeetan. XIX. eta XX. mendeetan genero *arinago* bilakatu zen, elkarrizketa mintzatu eta dantzekin.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SQ54<br>**T100 10 $a**Prada Delgado, José Andrés de (**$d**1884-1968)<br>**T245 13 $a**El caballero del amor [**$h**Grabación sonora] **$b**: opereta en tres actos /**$c**original de J. Andrés de Prada ; música del Mtrº. Juan Dotras Vila<br>**T655 #1 $a**Operetas<br>**T655 #4 $a**Operetak |

**<u>Teatro musical / Antzerki musikala</u>**

Musikalak edo antzezlan musikalak Ameriketako Estatu Batuetako genero musikal tipikoa dira, baina beste herrialde batzuetan ere egiten dira. Antzerki mota honek musika, abestiak, elkarrizketak eta dantza uztartzen ditu.

Genero horren adibide garbiak dira *My fair lady*, *Operako mamua*, *Cats* eta *Hello Dolly*, besteak beste.

Haren barruan sartuko dugu errebista; ikuskizun mota horretan musika, dantza eta, askotan, antzerki-eszenak edota esketxak izaten dira, hala umorezkoak, nola satirikoak. Errebistak elementu dramatikoak konbinatzen ditu, hala nola burlesque, *vaudeville*, *extravaganza* eta komedia musikaletik hartuak, baina guztietatik desberdintzen da bere karga erotikoagatik eta sinpletasun dramatikoagatik. Hala, operetan eta musikalean

bezalaxe, errebistak musika, dantza eta testuak uztartzen ditu funtzio bakarrean, nahiz eta argudio-haririk izan ez.

| Adibideak: |
|---|
| **T084 ## $a**SQ55<br>**T100 10 $a**Webber, Andrew Lloyd **($d**1948-)<br>**T245 13 $a**El fantasma de la ópera [**$h**Grabación sonora] /**$c**música por Andrew Lloyd Webber ; letra por Charles Hart<br>**T655 #1 $a**Teatro musical<br>**T655 #4 $a**Antzerki musikala<br><br>**T084 ## $a**SQ55<br>**T100 10 $a**Alonso, Francisco (**$d**1887-1948)<br>**T245 14 $a**Las Leandras [**$h**Grabación sonora] /**$c**Francisco Alonso ; libreto de Emilio González del Castillo y José Muñoz Román<br>**T655 #1 $a**Teatro musical<br>**T655 #4 $a**Antzerki musikala |

# Beste genero batzuk

**Ballets / Balletak**

Dantzarekin lagundutako pieza musikala. Dantza-musikaren urratsetatik abiatuta garatua, istorio bat kontatzen digu, antzezlanetan bezala, baina ez hitzez, baizik eta mugimenduekin eta dantzarien mimikarekin (hondo musikala ahaztu gabe, noski).

Egungo forma ballet erromantiko frantsesetik eta Errusiako eskolako ballet klasikotik dator (azken horrek barietate handiagoa zuen formei eta gaiei dagokienez).

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SQ61<br>**T100 10 $a**Chaikovskiï, Piotr Ilich (**$d**1840-1893)<br>**T245 10 $a**Swan Lake, Op. 20 [**$h**Grabación sonora]**$b** : (Excerpts from the Ballet) /**$c**Tchaikovsky<br>**T655 #1 $a**Ballets<br>**T655 #4 $a**Balletak |

**Bailes de salón/Areto-dantzak**

Bikote batek dantzatuak, modu koordinatuan eta musikaren erritmoari jarraikiz. Jatorrian erabat ludikoak eta herrikoiak ziren; gizarte-oihartzuna handitzen joan ziren, ordea, eta, hori ikusirik, areto espezifikoak sortzen joan ziren, orkestra batekin eta dantzatzeko zoru egokiarekin. Gaur egun, kirol-modalitate gisa ere praktikatzen dira, federazio nazionalek zein nazioartekoek antolatutako eta araututako lehiaketetan.

Areto-dantzen artean, jatorri latinoko dantza ugari dituzte errepertorioan. Rumba, mamboa, txa-txa-txa, samba, tangoa...

| Adibideak: |
|---|
| **T084 ## $a**SR82<br>**T100 10 $a**Strauss, Johann (**$d**1825-1899)<br>**T245 14 $a**The Best of Waltzez & Polkas [**$h**Grabación sonora] /**$c**Johann Strauss<br>**T655 #1 $a**Bailes de salón<br>**T655 #4 $a**Areto-dantzak<br><br>**T084 ## $a**SR83<br>**T100 10 $a**Gardel, Carlos (**$d**1890-1935)<br>**T245 10 $a**Carlos Gardel [**$h**Grabación sonora]<br>**T655 #1 $a**Bailes de salón<br>**T655 #4 $a**Areto-dantzak<br><br>**T084 ## $a**SR83<br>**T245 00 $a**Vuelve el merengue [**$h**Grabación sonora]<br>**T655 #1 $a**Bailes de salón<br>**T655 #4 $a**Areto-dantzak |

**Bailes regionales/Eskualdeko dantzak**

Kultura bateko dantza tipikoak eta tradizionalak dira**,** tradizioz dantzatzen dira, eta edozer gizon eta emakumek dantza ditzakete (ez da dantzari profesionalen kontua bakarrik, nahiz eta dantza folklorikoko talde profesionalak ere badiren).

Dantza mota horiek, bereziki, jaietan eta tankerako ospakizun sozialetan dantzatzen dira, eta dantzariak autonomia-erkidego edo eskualde bakoitzeko jantzi tipikoak soinean dituztela dantzatzen dira.

Sevillanak, txotisa, muñeirak eta tankerakoak nabarmentzen dira.

| Adibideak: |
|---|
| T084 ## $aSR83<br>T245 00 $aJotas navarras [$hGrabación sonora]<br>T655 #1 $aBailes regionales<br>T655 #1 $aEskualdeko dantzak |

**Música religiosa / Erlijio-musika**

Genero horren barruan sartzen dira kutsu erlijiosoa duten eta beste edozer generotakoak diren konposizioak. Ahots-obrak edo instrumentalak oro har atal honen barruan sartzen dira; printzipio bakarra sekularra eta erlijiosoa bereiztea da.

Dena den, Elizak ahots-generoan izandako eragin bereziaren ondorioz, forma erlijioso berezkoenek ahotsa dute protagonista, bakarka edo, bereziki, abesbatzaren forman.

Sekzio honen barruan sartuko dira, konparazio batera, monodiak, mezak eta haien zatiak, requiemak, kantatak, moteteak, *te deum*ak, salmoak, ereserki liturgikoak, kantu gregorianoa, eta abar.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SR1<br>**T110 2# $a**The Franciscan Monks of Assisi<br>**T245 10 $a**Gregorian Chants [**$h**Grabación sonora] /**$c**The Franciscan Monks of Assisi<br>**T655 #1 $a**Música religiosa<br>**T655 #4 $**aErlijio-musika |

**Villancicos / Gabon-kantak**

Gabon-abestiak jatorrian abesti profanoak ziren, lelodunak, herrikoiak eta hainbat ahotsekin harmonizatuak. Gabon-abestien tradizioa XIII. mendekoa da. Gaur egun, *gabon-abesti* terminoak abesti genero bat baino ez du markatzen, eta letrak Eguberriari egiten dio erreferentzia; tradizionalki urte-garai horretan abesten dira.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SR17<br>**T245 00 $a**Ahoz korua [**$h**Soinu-grabazioa]<br>**T655 #4 $**aGabon-kantak |

| |
|---|
| **T655 #1 $a**Villancicos |

## Música infantil / Haur-musika

Haur-musikak hitz errazak izaten ditu, errimadunak eta oso errepikakorrak; oro har mugimenduak, keinuak edo joko eragileak izaten dituzte lagun. Ulertzen eta buruz ikasten erraza da, eta letra barregarriak izaten ditu.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SR2<br>**T245 00 $a**100 haur kanta [**$h**Soinu-grabazioa]<br>**T655 #4 $a**Haur-musika<br>**T655 #1 $a**Música infantil |

## Canciones de cuna / Lo-kantak

Erritmo goxoko eta lasaigarriko abestia, jaioberri bati xuxurlatzeko eta lo hartzen laguntzeko. Lo-kanta edo sehaska-kanta ere esaten zaio.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SR2<br>**T245 00 $a**Nanas del mundo [**$h**Grabación sonora]<br>**T655 #1 $a**Canciones de cuna<br>**T655 #4 $a**Lo-kantak |

## Músicas tradicionales / Herri-musika

**Tradizio nazionaleko musika** edo **musika folklorikoa** *(ingeleseko "folk" = herria)* herrialde edo eskualde bateko herri-musika propioari deitzen zaio. Oro har, belaunaldiz belaunaldi transmititzen da. Era berean, eskualdeen, herrialdeen edo kontinenteen izenak ipin daitezke azpigaiburu geografiko gisa, **$z** azpieremuan.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SR332<br>**T245 00 $a**Tibetan ritual [**$h**Grabación sonora] **$b :** spiritual chants and ceremonial horns<br>**T655 #1 $a**Música tradicional -**$z**Tibet<br>**T655 #4 $a**Herri-musika -**$z**Tibet |

Herrialde bakoitzeko musika tradizionalen barruan, komenigarria iruditu zaigu hemen bi genero kontuan hartzea, berez estilo musikala sortzen duten aldetik, jatorrizko eskualde eta herrialdea gainditu baitute eta munduko herrialde ugaritan ezagun egin baitira: AEBko country musika eta Andaluziako flamenkoa.

## Country / Countrya

Amerikako Estatu Batuetako herri-musikako estiloa, hegoaldeko musika tradizionala oinarri duena (etorkin britainiarren musika folklorikotik sortua), beste herri-musika batzuen eragina duena. 1920ko urteetan sortu zen, Estatu Batuetako hegoaldeko landaguneetan, Kanadako itsasaldean eta Australiakoan.

*Country* tradizionala jatorrian hari-instrumentuak baliatuta jotzen zen, hala nola gitarra, banjoa, biolin soila (fiddle) eta kontrabaxua; edonola ere, maiz agertzen ziren akordeoia (eragin frantsesekoa, Cajun musikarako), eta aho-soinua. Country modernoak batez ere instrumentu elektronikoak erabiltzen ditu: gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, teklatuak, dobroa, edota steel guitar delakoa.

| Adibidea: |
| --- |
| **T084 ## $a**SR354<br>**T100 10 $a**Brooks, Garth (**$d**1962-)<br>**T245 10 $a**Sevens [**$h**Grabación sonora] /**$c**Garth Brooks<br>**T655 #1 $a**Country<br>**T655 #4 $a**Countrya |

## Flamenco / Flamenkoa

Espainia hegoaldean sortutako artea, hiru formatan adierazten dena: kantua, dantza eta gitarra. Andaluzian orain mende asko zituzten herri-kantu eta -dantzak dituzte jatorrian. Andaluziako herriaren adierazpen folkloriko-musikal nagusia da, beraz.

| Adibidea: |
| --- |
| **T084 ## $a**SR394<br>**T100 10 $a**Mercé, José (**$d**1955-)<br>**T245 10 $a**Aire [**$b**Grabación sonora] /**$c**José Mercé<br>**T655 #1 $a**Flamenco<br>**T655 #4 $a**Flamenkoa |

## Música celta / Zelta musika

*Musika zelta* terminoa genero musikalen talde zabal bat izendatzeko erabiltzen da; hain zuzen ere, tradiziozelta duten Mendebaldeko Europako herriena.

Horien artean, hauek dira nagusi: The Chieftains, The Dubliners , Carlos Núñez, Luar na Lubre, Milladoiro, Susana Seivane, Cristina Pato, eta abar.

| Adibidea: |
| --- |
| **T084 ## $a**SR3<br>**T110 10 $a**Milladoiro<br>**T245 10 $a**Aires da terra [**$b**Grabación sonora] /**$c**Milladoiro<br>**T655 #1 $a**Música celta<br>**T655 #4 $a**Zelta musika |

**Fados / Fadoak**

Fadoa da Portugalgo musikaren adierazpide nagusia nazioartean.

Normalean, pertsona bakarrak abesten du, *viola* batek (gitarra espainiarra) eta gitarra portugesak lagunduta. Fadoan gehien abesten diren gaiak malenkonia, nostalgia eta auzo apaletako eguneroko bizimoduaren istoriotxoak dira, baina, batez ere, fatalismoa eta frustrazioa.

Horien artean, hauek dira nagusi: Dulce Pontes, Mísia, Mariza, Amália Rodrigues, Mafalda Arnauth, Carlos do Carmo, eta abar.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SR3<br>**T100 10 $a**Pontes, Dulce<br>**T245 10 $a**Momentos [**$b**Grabación sonora] /**$c**Dulce Pontes<br>**T655 #1 $a**Fados<br>**T655 #4 $a**Fadoak |

**Canción ligera / Abesti arina**

Pop musikaren aldaerarik leunena. Kategoria honetako artistarik esanguratsuenak: Julio Iglesias, José Luis Perales, Raphael, Dyango, Luis Miguel…

| Adibideak: |
|---|
| **T084 ## $a**SR41<br>**T100 10 $a**Iglesias, Julio (**$d**1944-)<br>**T245 10 $a**Divorcio [**$h**Grabación sonora] /**$c**Julio Iglesias<br>**T655 #1 $a**Canción ligera<br>**T655 #4 $a**Abesti arina<br><br>**T084 ## $a**SR41<br>**T100 10 $a**Jones, Tom (**$d**1940-)<br>**T245 10 $a**Gold [**$h**Grabación sonora] **$b:** greatest hits /**$c**Tom Jones<br>**T655 #1 $a**Canción ligera<br>**T655 #4 $a**Abesti arina |

**Cantautores / Kantautoreak**

Abeslaria, oro har bakarlaria, bere konposizioen egile ere izan ohi da; horietan, musikaren gainean asmo kritikoko edo poetikoko mezua gailentzen zaio musikari. Serrat, Bob Dylan, Leonard Cohen, Silvio Rodríguez eta tankerako artistak.

| Adibideak: |
|---|
| **T084 ## $a**SR41<br>**T100 10 $a**Urdangarin, Mikel (**$d**1971-)<br>**T245 10 $a**Badira hiru aste[**$h**Grabación sonora] /**$c**Mikel Urdangarin<br>**T655 #4 $a**Kantautoreak<br>**T655 #1 $a**Cantautores |

**T084 ## $a**SR41
**T100 10 $a**Serrat, Joan Manuel (**$d**1942-)
**T245 13 $a**El sur también existe [**$h**Grabación sonora] /**$c**Joan Manuel Serrat
**T655 #1 $a**Cantautores
**T655 #4 $a**Kantautoreak

**<u>Jazz / Jazza</u>**

Jazz musika AEBn sortua da. Inprobisazioari garrantzi handia ematen dio, eta erritmo aldagarria du ezaugarri. Ezaugarri nagusiak hauek dira: erritmo sinkopatua eta denboren alternantzia edo gainezarpena, tentsio emozionala sortzen duen swing edo balantzeoa eta inprobisatzeko askatasuna. Jatorrian, hainbat forma musikal jaso zituen, hala nola *work song* edo lan abestiak (esklabo afroamerikarrenak) eta espiritualak (testu biblikoen kantuak).

Jazzak eragin asko eta asko ditu; esaterako, ragtime, New Orleans soinua, dixieland eta Cajun-zydeco. Halaber, aldaerak ere ugari dira: jazz klasikoa, Big Band taldeak, vocal jazza, swing delako, bebop aldaera, cool aldaera, latin jazza, jazz etnikoa, free-jazza (askea), fussion jazza, funka (edo funkya).

Adibidea:

**T084 ## $a**SR53
**T100 10 $a**Parker, Charlie (**$d**1920-1955)
**T245 10 $a**Bird and Diz [**$h**Grabación sonora] /**$c**Charlie Parker, Dizzy Gillespie
**T655 #1 $a**Jazz
**T655 #4 $a**Jazza

**<u>Gospel / Gospela</u>**

Gospel musika, musika espirituala edo musika ebanjelikoa, definiziorik murriztaileenean, eliza afroamerikarretan XVIII. mendean sortu zen musika erlijiosoa da, eta 1930eko hamarkadan egin zen ospetsu.

Gospel musikako lehendabiziko figura nabarmena Rosetta Tharpe izan zen**.** Era berean, nabarmentzekoak dira Reverend Timothy Wright (gospelaren aitabitxia), Ansgar Gospel, Mahalia Jackson eta tankerako artistak ere.

Adibidea:

**T084 ## $a**SR51
**T245 03 $a**Lo mejor del góspel [**$h**Grabación sonora]
**T655 #1 $a**Gospel
**T655 #4 $a**Gospela

**<u>Blues / Bluesa</u>**

Bluesa beltz amerikarrengandik datorren genero bat da, eta edukia, batez ere, soziala eta sexuala da. Garbi identifikatutako bi aldaera ditu: hiriko bluesa, emakumezkoen ahotsek interpretatua pianoa lagun dutela; eta landa-bluesa, gizonezkoek interpretatua, banjo

edo gitarra batekin lagunduta. Aldaerarik ezagunenetako bat rhythm and bluesa da (musika popular beltza, 1940ko hamarkadakoa, rock-and-rolla sortu zuena. Erritmoa oinarrizkoa da).

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SR51<br>**T100 10 $a**Moore, Gary (**$d**1952-)<br>**T245 10 $a**Blues alive [**$h**Grabación sonora] /**$c**Gary Moore<br>**T655 #1 $a**Blues<br>**T655 #4 $a**Bluesa |

**<u>Soul / Soula</u>**

Rhythm and blues eta musika beltzaren beste forma batzuetatik sortua. Erritmo sinkopatua du ezaugarri, eta haize-instrumentuen exekuzioan garrantzi handia dute. Detroiten garatu zen, bi konpainia diskografikoren inguruan: Atlantic Records eta Tamla Motown. Interprete nagusiak honako hauek izan ziren: Aretha Franklin, Wilson Pickett, The Supremes eta The Vandellas.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SR58<br>**T100 10 $a**Franklin, Aretha (**$d**1942-)<br>**T245 10 $a**30 greatest hits [**$h**Grabación sonora] /**$c**Aretha Franklin<br>**T655 #1 $a**Soul<br>**T655 #4 $a**Soula |

**<u>Pop / Popa</u>**

1960ko hamarkadan sortutako musika estiloa, rock musikaren eta herri-musika britainiarraren elementuak dituena; egitura soila eta zuzena ditu ezaugarri, eta garrantzi berezia izaten du melodiak.

Genero gisa, pop musika oso eklektikoa da, eta beste estilo askotatik hartzen ditu elementuak, hala nola urban dance, rock, rhythm and blues edota folk eta musika latinotik.

Beste hainbaten artean, hauek dira nabarmentzekoak: 21 Japonesas, Nacha Pop, Los fresones rebeldes, Tam Tam Go!, Itoiz, La Buena vida, La Oreja de Van Gogh…

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SR62<br>**T100 10 $a**Dion, Céline (**$d**1968-)<br>**T245 12 $a**A new day has come [**$h**Grabación sonora] /**$c**Celine Dion<br>**T655 #1 $a**Pop<br>**T655 #4 $a**Popa |

## Indie / Indiea

*Indie* terminoa independente hitzetik dator. Genero musikal horretatik sortzen dira indie rock, indie pop, indietronikoa, indiefolk eta rock alternatiboa.

Euren estilo propioa nabarmentzeaz arduratzen dira taldeok, eta eurei sortzea gustatzen zaien musika erakusten dute, joera globalen mende egon gabe edota genero batean betikotuko dituzten markarik gabe.

Talde hauek nabarmendu daitezke: Delorean, Deluxe, Sidonie, Love of Lesbian, La Bien Querida, Supersubmarina, John Berkhout, eta abar.

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SR62<br>**T110 10 $a**Love of lesbian<br>**T245 10 $a**Últimos días de 1999 [**$h**Grabación sonora] **$b**: aquellas noches de incendio /**$c**Love of lesbian<br>**T655 #1 $a**Indie<br>**T655 #4 $a**Indie |

## Rock / Rocka

1960ko hamarkadan rock-and-rolletik desbideratuz jaiotako musika-estiloa; melodia eta erritmo konplexuak erabiltzea du ezaugarri, instrumentu finko samarrekin (batez ere, gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, teklatua eta bateria); erritmo sutsukoa da, baxuaren eta bateriaren potentziak nabarmendua.

Generoa ordezkatzen duten artistak: The Rolling Stones, The Kinks, Queen, Police, Los Rodríguez, Siniestro Total, Zarama, EH Sukarra, Gatibu…

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SR63<br>**T100 10 $a**Springsteen, Bruce (**$d**1949-)<br>**T245 14 $a**The rising [**$h**Grabación sonora] /**$c**Bruce Springsteen<br>**T655 #1 $a**Rock<br>**T655 #4 $a**Rocka |

## Hard rock / Hard rocka

Hard rock edo rock gogorra 1960ko hamarkadaren amaieran Estatu Batuetan eta Europan (bereziki, Erresuma Batuan) sortutako rock generoa da.

*Hard rock* terminoak eskuarki rock tradizionalaren adar eta azpigenero gogor eta zakarragoak hartzen ditu.

Genero horren sorreran, hauexek nabarmenduko genituzke: Black Sabbath, Led Zeppelin eta Blue Cheer.

Beste artista esanguratsu batzuk: Alice Cooper, Kiss, Scorpions, AC/DC, eta Aerosmith / Guns N' Roses, Extremoduro, Los Suaves, Barón Rojo, Barricada, Berri Txarrak...

| Adibidea: |
|---|
| **T084 ## $a**SR65<br>**T110 20 $a**AC/DC<br>**T245 10 $a**Back in black [Grabación sonora] /**$c** AC/DC<br>**T655 #1 $a**Hard rock<br>**T655 #4 $a**Hard rocka |

**<u>Música metal / Metal musika</u>**

Soinu gogor eta ahaltsuetan oinarritutako musika-estiloa da.

